





# Ligninan oinarritutako materialak energia biltegiratze aplikazioetarako

**Nagore Izaguirre Arostegui-k** aurkeztua

Euskal Herriko Unibertsitateak Material Berriztagarrien Ingeniaritzako  
programan Doktore Titulua lortzeko bete beharreko baldintzak betez

Tesi zuzendariak:

*Rodrigo Llano-Ponte eta Xabier Erdocia doktoreak*

Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza Saila

Donostia-San Sebastian

2024





*"Every accomplishment starts with the decision to try."*

- Anon



## Esker onak

Echo la vista atrás a mis comienzos en esta aventura, y me es inevitable pensar en cuánto he cambiado y evolucionado estos últimos años. Ha supuesto una etapa esencial en mi desarrollo profesional, pero sobre todo personal. He descubierto una profesión que me apasiona, la cual me ha enseñado que con esfuerzo y trabajo duro las recompensas saben mejor, y me he llevado lecciones de vida que sin duda me acompañarán siempre.

En primer lugar quisiera agradecer a mi tutor el Dr. Jalel Labidi y a mis directores de tesis el Dr. Rodrigo Llano-Ponte y el Dr. Xabier Erdocia por depositar su confianza en mí y darme la oportunidad de realizar la tesis bajo su supervisión. Gracias por confiar en mí y darme la libertad de realizar el trabajo. Quisiera agradecer también al Gobierno Vasco por concederme la ayuda de la Formación de Personal Investigador y a la Universidad del País Vasco UPV/EHU, en especial al departamento de Ingeniería Química y Medio Ambiente por acogerme estos años.

Gracias también al Dr. Claudio Gerbaldi y a su grupo GAME Lab, por acogerme y enseñarme durante mi estancia en el Politecnico di Torino, no solo sus conocimientos en electroquímica, también su calidad humana. Gracias también a Polymat, en especial a David Mecerreyes y su grupo, por darme opción a continuar trabajando y aprendiendo del tema en sus instalaciones.

Gracias a mis compañeros del grupo BioRP por la ayuda brindada. Gracias, en especial, a los que habéis hecho del laboratorio mi segundo hogar. Por hacer más amenas esas jornadas interminables y aconsejarme y ayudarme cuando lo he necesitado. Gracias por la cálida acogida a los que estuvisteis en los comienzos, por animarme a empezar y darme la seguridad que necesitaba para creer en mí. A los que estuvisteis durante y seguís estando ahora, por hacer de mis logros los vuestros y acompañarme cuando más sola

y perdida me sentía. Gracias por ser y estar, antes durante y espero que después. Por entendernos entre nosotros e impulsarnos a ser mejores. Gracias a las personas que vinieron de estancia también, por traer un soplo de aire fresco. Cómo no a 'los de arriba', por los *coffee-breaks*, *lunch-breaks* y múltiples otros *breaks* que nos han servido como aliento en nuestra rutina. Han sido fuente de innumerables anécdotas que recordaremos con una sonrisa.

Gracias a mis amigas, las que me traen de vuelta a la realidad, las que me hacen desconectar y ver el mundo desde otra perspectiva. Las que me empujan a luchar y a sacar las garras. Sois incondicionales y os quiero infinito.

Gracias por último a mi familia, mi pilar. Gracias a vosotros soy quien soy. A mi padre por inculcarme valores como el trabajo duro y la perseverancia. A mi madre por siempre estar ahí, por sufrir y celebrar cada momento como si fuera suyo. A mi hermana, por ser mi mayor ejemplo. Por haberme abierto camino y enseñado que lo difícil suele merecer la pena.

Gracias a todas y cada una de las personas que me han acompañado y han dado sentido a los momentos vividos, los altos y los bajos, los llantos y las alegrías, porque lo que hace que un momento sea memorable son las personas con la que los compartes.

Eskerrik asko bihotzez,

## Laburpena

The current energy scarcity requires not only more sustainable practices but also the exploration of unlimited energy sources. To consider energy as sustainable, three factors should be considered: the renewability of the energy source, the adequacy of the storage methods, and the sustainability of energy transport. Essential components for the fulfillment of these requirements are energy storage devices.

Alongside the transition to sustainable energy generation and consumption, there is a growing demand for increased capacity and durability, as well as simpler commodity products being extensively employed as various gadgets. This trend has created a higher demand for materials used in energy storage devices.

However, the materials currently in use are often scarce, and require specific production and utilization processes, resulting in a higher embodied energy in their constituents compared to what they will consume. Therefore, it is essential to develop low-cost, simple-to-process, and environmentally friendly innovative materials. Significant efforts have been made to substitute commonly used inorganic materials with organic alternatives. Recently, even more ambitious plans have emerged to implement "green" materials and technologies.

One such material that aligns perfectly with the requests for green processes and materials is lignocellulosic biomass. It is highly abundant, and a low-cost organic precursor. Moreover, it offers economically feasible and low-cost processing methods. While it has been extensively studied for energy conversion to obtain biofuels, a more recent approach involves utilizing this lignocellulosic biomass as energy storage material, thereby presenting a sustainable alternative to the currently used materials.

A constituent of the lignocellulosic material, until now mostly considered as waste, albeit its versatility, is lignin. It is the most abundant aromatic biopolymer found on earth, with a very complex structure and high heterogeneity. Despite these complexities, lignin is versatile, with plausible applications where it can be incorporated to obtain high-value-added products.

Current research efforts are focusing on incorporating lignin as an energy storage material. The most explored path involves its conversion into carbon. However, this process remains energy-intensive, and alternative methods such as chemical modifications or composite materials have been studied.

This work focuses on the integration of lignin into energy storage materials. For that, various lignin treatments were designed. Lignin was sequentially dissolved to obtain fractions of different molecular weight, resulting in lignins with distinct chemical structures and properties. Moreover, lignin was subjected to numerous modifications to change its functionality and to obtain the one with optimum performance for the selected application.

Finally, composite materials composed of active components and lignin were developed and characterized electrochemically. Alternatively, the modified lignins were employed in the formulation of electrode materials, and half-cell batteries were assembled and tested to evaluate their performance.

---

# Nomenklatura



$^{13}\text{C}$ NMR	Karbono-13 erresonantzia magnetiko nuklearren espektro
$^{31}\text{P}$ NMR	Fosforo-31 erresonantzia magnetiko nuklearren espektro
AC	Karbono aktibatua
AC-KL	Karbono aktibatua-Kraft lignina konpositeak
AC-OL	Karbono aktibatua-Organosolv lignina konpositeak
AFM	Indar Atomikozko Mikroskopio
AIL	Azidotan Disolbaezina den Lignina
AL	Lignina alkalinoa
ASL	Azidotan Disolbagarria den Lignina
BET	Brunauer–Emmett–Teller (BET) metodoa
BKL	Kraft lignin Handia
BOL	Organosolv Lignina Handia
C1	ECM-aren maiztasun oso baxuko balio kapazitiboa
C2	ECM-aren maiztasun oso altuko balio kapazitiboa
C3	ECM-aren maiztasun altuko balio kapazitiboa
C4	ECM-aren maiztasun ertaineko balio kapazitiboa
C45	Super C45 karbono beltza
CA	Karbohidratoak
CAH	Hidrolisi Azido Kontzentratua
CE	Kontrako Elektrodoa
CM	Karboximetilazioa
CMC	Karboximetil zelulosa
CMCS	Karboximetil kitosanoa
CMKL	Kraft lignina karboximetilatua
CML	Lignina karboximetilatua
CMOL	Organosolv lignina karboximetilatua
$C_p(\text{CV})$	Voltametria ziklikotik kalkulatutako kapazitantzia
$C_p(\text{EIS})$	Inpedantzia-espektroskopia elektrokimikotik kalkulatutako kapazitantzia
$C_p(\text{GCD})$	Karga/deskarga Galvanostatikotik kalkulatako kapazitantzia

## Ligninan oinarritutako materialak energia biltegiratze aplikazioetarako

CPE	Fase konstanteko elementua
CV	Voltametria ziklikoa
CVD	Lurrun-faseko jalkitze kimiko
DAH	Hidrolisi Azido Diluitua
DAP	Aurretratamendu azido diluituak
DCA	Azido Dikarboxilikoak
DE	Eukalipto deslignifikatua
DES	Disolbatzaile Eutektiko Sakonak
DLS	Argi-Dispertsio Dinamiko
DMC	Dimetil Karbonatoa
DMK	Propan-2-onaa
DMSO	Dimetil sulfoxidoa
DOE	Esperimentuen diseinua
DRT	Denbora erlaxazioen banaketa
DSC	Ekortze-Kalorimetria Diferentziala
DTGA	Analisi termograbiometrikoen deribatua
E	Eukaliptoa
EA	Analisi Elementalala
EC	Etilen karbonatoa
ECM	Zirkuitu ekibalenteen modeloa
EDLC	Geruza elektriko bikoitzeko kondentsadorea
EHL	Entzimatikoki hidrolizatutako lignina
EIS	Inpedantzia-espektroskopía elektrokimikoa
Es	Energia dentsitatea
ES	Energia biltegiratzea
EtOAc	Etil azetatoa
EtOH	Etanola
F1	Frakzio disolbagarria iPrOH-n
F2	Frakzio disolbagarria EtOAc-n
F3	Frakzio disolbagarria EtOH-n

F4	Frakzio disolbagarria DMK-n
FI	Frakzio disolbagaitza
FTIR	Fourier-en transformatu bidezko espektroskopia infragorria
G	Grafitoa
G units	Guaiazil unitateak
GCD	Karga/deskarga galvanostatikoa
G-KL	Grafito-Kraft lignina konpositeak
GO	Grafito oxidoa
GO-KL	Grafito oxidoa-Kraft lignina konpositeak
G-OL	Grafito-organosolv lignina konpositeak
GO-OL	Grafito oxido-organosolv lignin konpositeak
GPC	Gel iragazketako kromatografia
GPE	Elektrolito Gel Polimerikoak
H units	p-Hidroxifenil unitateak
HC	Biokarbono gogorra
HPMC	Hidroxipropil Metil Zelulosa
I <sub>d</sub>	Korronte espezifikoa
IL	Likido Ionikoa
<i>i</i> -PrOH	Propan-2-ola
KL	Kraft lignina
L1	ECMaren kanpo elementuak
L-AC	Lignina-karbono aktibatuaren konpositeak
LCP	Poli(N-imidazol)-ko-poli(poli(etilen glikol) metiletermetakrilatoa
LDAM	Dentsitate baxuko monomero aromatikoak
L-G	Lignina Grafito konpositea
LIB	Litio ioi bateriak
LiFSI	Litio bis(fluorosulfonil)imida
LiTFSI	Litio bis(trifluorometanosulfonil)imida
LMWPC	Pisu molekular baxuko konposatu fenolikoak

## Ligninan oinarritutako materialak energia biltegiratze aplikazioetarako

LPE	Fase likidoko esfoliazioa
LS	Lignosulfonatoak
MBKL	Kraft Lignina handi metilatua
MEK	Butan-2-onaa
MeOH	Metanola
MKL	Kraft Lignina Metilatua
ML	Lignina Metilatua
$M_n$	Batezbesteko pisu molekularra kopuruan
MOL	Organosolv Lignina Metilatua
MSKL	Kraft Lignina Txiki Metilatua
MSOL	Kraft Organosolv Txiki Metilatua
$M_w$	Batez besteko pisu molekularra pisuan
NIB	Sodio ioi bateriak
NMC	$\text{LiNi}_x\text{Mn}_y\text{Co}_z\text{O}_2$
NMP	N-metil-2-pirrolidona
<i>n</i> -PrOH	Propan-1-ola
NREL	Energia berriztagarriaren laborategi nazionala
OL	Organosolv lignina
OxL	Lignina Oxidatua
OxKL	Kraft lignina Oxidatua
OxOL	Organosolv lignina Oxidatua
PAN	Poliakrilonitriloa
PC	Pseudokapazitoreak
PE	Polietilenoa
PEDOT	Poly(3,4-etilen dioxitiofenoa)
PEG	Polietilen glikola
PEO	Polietilen oxidoa
PI	Polisakabanatze indizea
post-GCD	Karga/deskarga Galvanostatikoaren ondorengoa
PP	Polipropilenoa

---

PPy	Polipirrola
pre-GCD	Karga/deskarga Galvanostatikoaren aurrekoan
PSD	Poro tamaina banaketa
PVA	Poli(binil) alkohola
PVDF	Poli(biniliden difluoruroa)
PVDF-HFP	Kopolimero polibiniliden fluoruro-ko-hexafluoruroa
PVP	Polibinilpirrolidona
Py-GC/MS	Pirolisi-gas-kromatografia/masa-espektrometria
Q( $I_d$ )	Kapazitate espezifikoa
QAH	Hidrolisi azido kuantitatiboa
R1	ECM-aren maiztasun oso baxuko erresistentzia balioa
R2	ECM-aren maiztasun oso altuko erresistentzia balioa
R3	ECM-aren maiztasun altuko erresistentzia balioa
R4	ECM-aren maiztasun ertaineko erresistentzia balioa
$R_\infty$	Elektrolito erresistentzia
$R_{ct}$	Karga transferentzia erresistentzia
$R_{d1}$	Difusio erresistentzia
RE	Erreferentzia elektrodoa
RT	Giro Temperatura
$R_{mt}$	Masa transferentzia erresistentzia
$R_p$	Elektrodo erresistentzia
S units	Siringil unitateak
S/G	Siringil/Guaiazil unitateen ratioa
SC	Superkondentsadorea
SCA	Sodio kloroazetatoa
SCE	Kalomel Saturatzko Elektrodoak
SEI	Solido-elektrolito interfasea
SEM	Ekorketazko Mikroskopio Elektronikoa
SKL	Kraft lignina Txikia
SM	Sulfometilazioa

## Ligninan oinarritutako materialak energia biltegiratze aplikazioetarako

SMKL	Kraft lignina sulfometilatua
SML	Lignina sulfometilatua
SMOL	Organosolv Lignina sulfometilatua
SOL	Organosolv lignina txikia
SOSE	Disolbatzaile Organikoen bidezko Erauzketa Metodoa
SPE	Polimero Elektrolito Solidoa
SSA	Azalera espezifika
T	Tenperatura
t	Denbora
T <sub>5%</sub>	%5-aren masa totala degradatu zeneko tenperatura
T <sub>50%</sub>	%50-aren masa totala degradatu zeneko tenperatura
TAC	Tratatutako karbono aktibatua
TAC-KL	Tratatutako karbono aktibatua -Kraft lignina konpositea
TAC-OL	Tratatutako karbono aktibatua -organosolv lignina konpositea
TAPPI	Paper-ore eta paper industriaren asoziazio teknikoa
TBAP	Tetrabutilamonio perkloratoa
t-BuOH	2-Metilpropan-2-ola
t <sub>d1</sub>	Difusio denbora
TEM	Transmisiozko Mikroskopio Elektroniko
TGA	Analisi Termograbitmetrikoa
TPC	Eduki fenoliko totala
UALPE	Ultrasoinu bidez lagundutako likido fase esfoliazioa
US	Ultrasoinu
UV	Ultramore
V <sub>d</sub>	Tentsio espezifika
W <sub>d3</sub>	Warburg elementua
WE	Lan Elektrodoa
X1	Tenperatura aldagai DOEn
X2	Denbora aldagai DOEn
X3	Hidrogeno peroxide aldagai DOEn

XPS	X-izpi fotoelektroi-espektroskopia
$Y_{ZP}$	Menpeko aldagaia DOEn
$Z_{\text{imag}}$	Z irudikaria
ZP	Z Potentziala
$Z_{\text{real}}$	Z erreala



# Aurkibidea

## 1. Sarrera

---

1.1. GAUR EGUNGO EGOERA ETA ENERGIA JASANGARRIA .....	3
1.2. BIOMASA LIGNINAREN ERAUZKETA .....	6
1.3. LIGNINAREN APLIKAZIO KONBENTZIONALAK .....	10
1.3.1. DESLIGNIFIKAZIO PROZESUAK .....	10
1.3.2. KARBOHIDRATOEN KONBERTSIOA .....	14
1.4. BILTEGIRATZE ENERGETIKOA (ES) .....	15
1.5. ENERGIA ELEKTROKIMIKOA BILTEGIRATZEKO (EES) GAILUAK .....	18
1.6.1. LIB-AK .....	22
1.6.2. LIB-ENTZAKO MATERIAL BERRI ETA JASANGARRIAK .....	24
1.6.3. SUPEREROALEAK.....	27
1.7. LIGNINAREN GEHIKETA ETA MODIFIKAZIOA EES-ETAN .....	28
1.8. ERREFERENTZIAK.....	31

## 2. Helburuak

---

2.1. TESIAREN LABURPENA.....	46
------------------------------	----

## 3. Metodologia

---

3.1. LEHENGAIAK.....	51
3.2. KARAKTERIZAZIO METODOAK .....	51
3.2.1. LEHENGAIEN KARAKTERIZAZIOA .....	51
3.2.2. LIKOREEN KARAKTERIZAZIOA .....	51
3.2.3. LIGNINA ETA LIGNINA KONPOSITEEN KARAKTERIZAZIOA .....	52
3.3. KARAKTERIZAZIO ELEKTROKIMIKOA.....	53
3.3.1. MATERIAL AKTIBOEN KARAKTERIZAZIOA .....	53
3.3.1.1. Voltametria ziklikoa (CV) .....	53
3.3.1.2. Inpedantzia-espektroskopia elektrokimikoa (EIS)....	54

3.3.1.3. Karga/deskarga galvanostatikoa (GCD).....	55
3.3.2. NEURKETEN KONFIGURAZIOA.....	56
3.3.2.1. Hiru elektrodoz osatutako beirazko zelda.....	56
3.3.2.2. Bi elektrodoz osatutako erdi zeldak.....	58
3.4. ERREFERENTZIAK .....	61

## 4. Lignina frakzionamendua

---

4.1. MOTIBAZIOA.....	65
4.2. HELBURUAK .....	67
4.3. PROZEDURA ESPERIMENTALA .....	67
4.3.1. ORGANOSOLV ERAUZKETA .....	67
4.3.2. LIGNINA ERAUZKETA.....	68
4.3.3. DISOLBATZAILE ORGANIKOEN AUKERAKETA ETA FRAKZIONAMENDUAREN ORDENA.....	68
4.3.4. LIGNINEN FRAKZIONAMENDUA ERAUZKETA SEKUENTZIALAREN BIDEZ .....	69
4.3.5. LORTUTAKO LIGNINA FRAKZIOEN KARAKTERIZAZIOA.....	70
4.3.6. EZAGUARRI DESBERDINEN ARTEKO KORRELAZIOA.....	71
4.4. EMAITZAK ETA EZTABADA .....	71
4.4.1. EUKALIPTO (E) ETA EUKALIPTO DESLIGNIFIKATUAREN (DE) KARAKTERIZAZIOA.....	71
4.4.2. KRAFT (K) ETA ORGANOSOLV (O) LIKOREEN KARAKTERIZAZIOA .....	72
4.4.3. DISOLBATZAILEEN MIAKETA INIZIALETIK LORTUTAKO ETEKIN ETA PISU MOLEKULARREN DETERMINAZIOAKL ETA OL-RENTZAT ....	73
4.4.4. DISOLBATZAILE ORGANIKO BIDEZKO ESTRAKZIO SEKUENTZIALAREN ETEKINAK .....	76
4.4.5. EGITURA KIMIKOA.....	77
4.4.6. PISU MOLEKULARRA ETA LIGNINA PURUTASUNA .....	78
4.5. ONDORIOAK .....	94
4.6. ERREFERENTZIAK .....	97

## 5. Lignina eraldaketak

---

5.1. MOTIBAZIOA .....	103
5.2. HELBURUAK .....	108
5.3. PROZEDURA ESPERIMENTALA .....	110
5.3.1. LIGNINAREN OXIDAZIO SONOKIMIKOA .....	110
5.3.2. OXIDATUTAKO LIGNINA NANOPARTIKULEN KARAKTERIZAZIOA .....	112
5.3.4. SULFOMETILAZIO ERREAKZIOA .....	113
5.3.5. METILAZIO ERREAKZIOA .....	114
5.3.6. LORTUTAKO LIGNINA KARBOXIMETILATU, SULFOMETILATU ETA METILATUEN KARAKTERIZAZIOA. ....	115
5.4.1. OXIDATUTAKO LIGNINA NANOPARTIKULEN PRODUKZIOA....	115
5.4.1.1. Prozesu sonokimikoaren diseinu esperimentala ....	115
5.4.1.2. Etekina, pH aldaketa, eta sistemari banatutako energia totala.....	120
5.4.1.3. Laginen konposizio kimikoa eta analisi elementalala	122
5.4.1.4. Laginen ezaugarri fisikokimikoak.....	125
5.4.1.5. Laginen ezaugarri termikoak .....	134
5.4.1.6. Laginen ezaugarri morfologikoak .....	138
5.4.1.6. Eskala igotzeko ikuspegiak .....	145
5.4.1.7. Prozesuaren balioztatzea OL ligninarentzat .....	146
5.4.2. KARBOXIMETILATUTAKO, SULFOMETILATUTAKO, ETA METILATUTAKO LIGNINEN KARAKTERIZAZIOA .....	149
5.5. ONDORIOAK .....	165
5.6. ERREFERENTZIAK.....	169

## 6. Lignin-carbon composites

---

6.1. MOTIVATION.....	183
6.2. OBJECTIVES .....	188
6.3. METHODOLOGY .....	190

6.3.1. TREATMENT OF ACTIVE CARBON AND GRAPHITE .....	190
6.3.2. PREPARATION OF LIGNIN-ACTIVE CARBON AND LIGNIN-GRAPHITE COMPOSITES .....	190
6.3.3. PHYSICOCHEMICAL AND MORPHOLOGICAL CHARACTERIZATION .....	191
6.3.4. ELECTROCHEMICAL CHARACTERIZATION .....	191
6.4. RESULTS.....	191
6.4.1. PHYSICOCHEMICAL CHARACTERIZATION.....	191
6.4.2. MORPHOLOGICAL CHARACTERIZATION .....	199
6.4.3. ELECTROCHEMICAL CHARACTERIZATION .....	208
6.5. CONCLUSIONS.....	229
6.6. REFERENCES.....	231

## **7. Implementation of lignin as binder material for LIB anodes**

---

7.1. MOTIVATION .....	243
7.2. OBJECTIVES .....	246
7.3. EXPERIMENTAL PROCEDURE .....	248
7.3.1. ANODIC ELECTRODE PREPARATION AND HALF-BATTERY COIN CELL ASSEMBLY .....	248
7.4. RESULTS AND DISCUSSION .....	249
7.5. CONCLUSIONS.....	261
7.6. REFERENCES.....	263

## **8. Conclusions and future works**

---

8.1. FINAL CONCLUSIONS .....	271
8.2. FUTURE WORKS .....	273
8.3. SCIENTIFIC PRODUCTION.....	274

## **Annex I**

---

A.1. RAW MATERIAL CHARACTERIZATION .....	283
--	-----

A.1.1. MOISTURE .....	283
A.1.2. ASH CONTENT.....	283
A.1.3. EXTRACTIVES CONTENT.....	283
A.1.4. ACID SOLUBLE LIGNIN (ASL) AND ACID INSOLUBLE LIGNIN (AIL) CONTENT.....	283
A.1.5. HOLOCCELLULOSE CONTENT.....	284
A.1.6. CELLULOSE CONTENT .....	284
A.1.7. HEMICELLULOSE CONTENT .....	285
<b>A.2. PHYSICOCHEMICAL CHARACTERIZATION METHODS.....</b>	<b>285</b>
A.2.1. ELEMENTAL ANALYSIS (EA) .....	285
A.2.2. FOURIER TRANSFORMED INFRARED (FTIR) SPECTROSCOPY ..	285
A.2.3. GEL PERMEATION CHROMATOGRAPHY (GPC) .....	286
A.2.4. PHOSPHOROUS-31 NUCLEAR MAGNETIC RESONANCE SPECTROSCOPY ( $^{31}\text{P}$ NMR).....	287
A.2.5. CARBON-13 NUCLEAR MAGNETIC RESONANCE ( $^{13}\text{C}$ NMR) ...	289
A.2.6. ULTRAVIOLET-VISIBLE SPECTROPHOTOMETRY (UV-VIS).....	289
A.2.7. PYROLYSIS - GAS CHROMATOGRAPHY / MASS SPECTROMETRY (Py-GC/MS).....	290
A.2.8. X RAY PHOTOELECTRON SPECTROSCOPY (XPS).....	291
<b>A.3. THERMAL PROPERTIES CHARACTERIZATION .....</b>	<b>292</b>
A.3.1. THERMOGRAVIMETRIC ANALYSIS (TGA) .....	292
A.3.2. DIFFERENTIAL SCANNING CALORIMETRY (DSC).....	292
<b>A.4. MORPHOLOGICAL CHARACTERIZATION .....</b>	<b>292</b>
A.4.1. DYNAMIC LIGHT SCATTERING (DLS).....	292
A.4.2. ATOMIC FORCE MICROSCOPY (AFM) .....	293
A.4.3. TRANSMISSION ELECTRON MICROSCOPY (TEM) .....	293
A.4.4. SCANNING ELECTRON MICROSCOPY (SEM).....	294
A.4.5. BRUNAUER-EMMETT-TELLER (BET) METHOD .....	294
<b>A.5. ELECTROCHEMICAL CHARACTERIZATION .....</b>	<b>294</b>

A.5.1. THREE-ELECTRODE GLASS-CELL .....	294
A.5.2. TWO-ELECTRODE HALF-CELL .....	298
A.6. REFERENCES .....	301

---

# **1. SARRERA**



## 1.1. GAUR EGUNGO EGOERA ETA ENERGIA JASANGARRIA

Aspalditik jakinak dira gaur egun jasaten ari garen ingurumen arazoak. Normaltzat hartuak ditugun gain kontsumo eta xahubide ohiturak ez dira jasangarriak ingurumen zein energia ikuspegiatik. Berotegi efektua sortzen duten gasen isuriak eragin suntsitzaleak izaten ari dira naturan. Energia behar handi hauek erregai fosilen bidez betetzeak egoera hau larritzeaz gain, ordezko aukera bat bilatzeko beharra sortzen du, erregai fosil hauen kontsumoa haien ekoizpen abiadura baino handiagoa baita. Honek guztiak energia eskasia sortzen du, aukera jasangarri eta mugagabeen bidez gainditu beharko litzatekeena [1].

Energia jasangarria etorkizuneko belaunaldien energia beharrak asetzeko gaitasuna arriskuan jarri gabe, oraingo beharrak betetzen dituena da [2]. Gai hau hiru ikuspegi desberdinatik bideratu behar da. Alde batetik, energia iturri berriztagarrietatik eterri behar da, hala nola haizea, eguzkia eta ura. Bestalde, sortutako energia modu egoki eta eraginkorrean gorde eta erabili behar da. Azkenik, garraiobideak jasangarriak izan behar dira, modu eraginkorrean, ingurumenean eraginik izan gabe [3].

Garraio sistemak herritarrok sozialki eta ekonomikoki konektatzeko giltzarri dira. Hala ere, oso etxebizitza gutxi dira karbono neutralak diren sistemak mantentzeko gai eta erregai fosilen %95a funtzio honetara bideratzen da, berotegi efektua sortzen duten gas emisioen jatorri nagusi bilakatzen direlarik, mundu mailan %20-25a kontsumituz. Ibilgailu jasangarri batzuk geroz eta ohikoagoak bilakatzen ari dira, gasolina eta diesel autoak ordezkatzeko helburuarekin. Aukera hauek teknologia desberdinak hartzen dituzte oinarri, ohikoenak hibrido-elektrikoak, bateria elektrikoak, erregai-pilak eta hidrogeno autoak direlarik. Aukera hauek

berotegi efektua nabarmenki murriztu dezakete, guztiz murrizteria iritsi daitekeelarik, elektrizitate hau alternatiba berriztagarrietatik ustiatuak badaude [4].

Horrez gain, energia biltegiratzea kontuan hartu beharreko faktore garrantzitsua da. Modu honetan, energia jatorri gutxiago beharko dira eta kontsumo xahutzailea ekidingo da. Eraikinen diseinu eta garapenean bereziki kontuan izan beharreko gai bat da, edota eguneroko kontsumo produktuetan, energetikoki eraginkorrapak diren lanpara erdieroaleak edo okupazio sentsoreak bezalako gailuak erabiliz [5].

Azkenik, energia jatorri berriztagarriak jasangarritasun kontzeptuan termino klabeak dira. Hauek gizaki denbora eskalan berriztatzen direnak dira, haizea, eguzki izpiak, ur mugimenduak, eta bero geotermikoa besteak beste. Tamalez, energia ekoizteko modu hauek klima eta puntu geografikoez baldintzatuak daude, biltegiratzea optimizatu eta ekoiztutako energia galera ekidingo duten energia biltegiratzeko gailu eraginkorragoak behar direlarik baldintza klimatikoak onenak ez diren egoeretarako. Horregatik, energia biltegiratzeko gailuak energia berriztagarrien erabilera zabala bultzatzeko eta garraio jasangarrientzako ezinbestekoak dira [6].

Jasangarritasunetik eratorritako onurak, ingurumenarekin erlazionatutakoez gain, osasun berdintasuna eta berdintasun sozialarekin daude lotuta. Bihotzeko gaixotasun koronarioa, iktusak, biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa eta minbizia, eta beheko arnasbideetako infekzioa ingurumenaren kutsadurarekin lotutako gaixotasun ohikoenak dira [7]. Bestalde, gizarte-talde behartsuak dira alderdi sozial eta ekonomikoak aldaketak gehien eragiten dieten kolektiboa, adibidez erregai fosilen prezioen igoera neurrigabe eta ustekabekoak ondorioz energia-pobrezia jasateko bereziki kalteberak direlarik [8].

Karbono-emisio-intentsiboz osaturiko ingurumena karbono-emisiorik gabeko ingurumenean eraldatu behar da. Hori aurrera eraman ahal izateko, energia biltegiratzeko tresna iraunkorrago eta eraginkorragoen beharra ezinbestekoa da. Horrekin batera, gure egunerokotasunean erabilitako oinarritzko tresna berriek prozesaketa espezifikoago eta anitzagoen beharra sortzen dute, nano eskalako funtzionalitateak dituzten materialak ekoizteko beharra hala nola. Hauek jasandako aurrerakuntza teknologiko eta espezifikotasunen ondorioz, gailu hauen osagaien barne-energia, ekoizten duen energia baino handiagoa da [9,10].

Hori dela eta, ingurumenarekiko jasangarriak diren eta kostu baxua duten material berritzaleen garapena beharrezkoa da. Orain arte modu zabalean erabilitako material ez-organikoak material organikoengatik ordezkatzen ahalegin handiak egin dira. Hala ere, azken urteetan material “berde” eta teknologia “berde”-ak ezartzeko egitasmo handiko planak oraindik gehiago azaleratu dira. Helburua ugaritasun handiko eta kostu baxuko aurrekari organikoak erabiltzea da, ekonomikoki bideragarriak diren prozesatzeak erabiliz, eta bizi-ziklo amaierara iritsitakoan biodegradagarriak izan daitezkeen material elektronikoak ekoitziz [10].

Prozesatze eta material berdeen eskakizunekin bat egiten duen material mota bat biomasa lignozelulosikoa da. Energia-sorgailu gisa aztertu da, lignozelulosaren konbertsio termokimiko eta biologikoak burutuz bioerregaiak lortu direlarik. Hala ere, hurbilketa berriago bat biomasa lignozelulosiko hau energia biltegiratzeko material gisa erabiltzea da, gaur egun erabiltzen diren materialak ordezkatuz. Ikuspegi desberdinak erabili izan dira, non material lignozelulosiko osoa zein honen osagai isolatuak, zelulosa eta lignina nagusiki, erabili izan diren [11].

Gaiaren deskribapen grafikoa 1.1 irudian ageri da.



**1.1 Irudia.** Gaur egungo jokabide kutsatzaile eta jokabide jasangarrien deskribapen grafikoa eta energia biltegiratzeko gailu jasangarriak garatzeko gakoetako bat.


## 1.2. BIOMASA LIGNOZELULOSIKOA

Biomasa lignozelulosikoa naturan aurki daitekeen material gordin ugariena da. Zelulosa, hemizelulosa eta ligninaz dago osatua. Zelulosa eta hemizelulosa karbohidratoak diren bitartean, lignina polimero aromatiko heterogeneo bat da, modu ez-uniformean eta hiru-dimentsioko egituretan eratua [12]. Zelulosa da osagai nagusia, lignozelulosaren zelula pareten osagai delarik. Mikrozuntz luze eta orientatuak eratzen ditu, ondoren hauek zuntz luzeagoak osatzen dituztelarik [13]. Hemizelulosak polimero adarkatuak dira, kate bakarrekoak eta amorfak, eta zelulosa zuntzekin lotura gurutzatu ez-kobalenteak eratzen dituzte [14].

Aitzitik, ligninak zelulosa eta hemizelulosen arteko hutsuneak betetzen ditu landare-horman, matrize lignozelulosikoaren lotura mantenduz. Zurruntasun eta indarraz hornitzen du landare ehuna, likido isuria kontrolatu eta landarea estres biokimikoengandik babesteaz gain [15]. Biomasaren konposizioa hainbat faktore desberdinengandik egon daiteke baldintzatua, ingurumen egoera edo jatorriaren araberakoa da adibidez,

baina orokorrean biomasaren materia lehorrenaren %40-60 zelulosaz osatua dago, %10-40 hemizelulosaz, eta %7-35 ligninaz [16].

Zelulosa D-anhidroglukosa dimero unitatez osatutako polimero lerrokatu da,  $\beta$ -1,4 lotura glikosidiko kobalentez lotutako 500-1400 unitatez osatua (polimerizazio maila materiareneko jatorriaren araberakoa da). Hemizelulosak pentosa, hexosa, azido uroniko, eta azetil taldeez osatutako sakarido desberdinez daude konposatuak. Berri ere, hauen proportzioa jatorriaren araberakoa da. Azkenik, lignina hiru unitate ezberdinez osatutako polimero hirudimentsionala da. Unitate hauek p-hidroxifeniloa (H), siringiloa (S) eta guaiaziloa (G) dira, p-kumaril alkohol, koniferil alkohol, eta sinapil alkohol delakoez eratuak, hurrenez hurren (1.2 Irudian ikusgai).



### 1.1 Irudia. Ligninaren alkohol eta monolignolak.

Unitate hauek lotura ezberdinen bitartez lotzen dira. Hauetako batzuk kondentsatuak dira,  $\beta$ -O-4,  $\alpha$ -O-4 eta  $\beta$ - $\beta$  loturak hala nola, beste batzuk ez-kondentsatuak diren bitartean,  $\beta$ -5,  $\beta$ -1 eta 5-5. Aurreko osagai lignozelulosikoekin bezala, ligninaren konposizio zehatza jatorriaren araberakoa da. Orokorrean, konifero-zuretatik eratorritako ligninak G unitatez daude ostuta nagusiki, hostozabalen zuretatik datozenak S eta G unitateak dituztelarik. Belarretatik eratorritako ligninak, ordea, H unitateak dituzte S eta G unitateez gain, nahiz eta aipatutako H unitate hauek %5etik beherako proportzioan dauden. Bestalde, konifero-zurak dira lignina


kantitate gehien duten biomasa mota, hostozabalen zurez jarraituak, eta belarrekin amaituz, materia lehorren %21-29arekin, %18-25arekin, eta %15-24arekin, hurrenez hurren [17].

Lignina erreakzio erradikalen bitartez ausaz polimerizatzen da, inongo espezifikotasunik gabe eta biomasan bertan dauden monolignolen araberako konposizioarekin. Gainera, ligninaren erauzketa aurrera eraman ahal izateko, lignina naturalak modifikazio batzuk jasan behar ditu, bere izateko egitura erreala guztiz determinatzea ezinezko bihurtuz.

Lignina erauzteko ezinbestekoa da lignina-karbohidrato konplexuak haustea. Hala ere, prozesuan zehar lignina makromolekuluan dauden beste lotura batzuk ere apurtzen dira, neurri batean bere despolimerizazioa eraginez. Prozesu honetan zehar hausten den loturariik ohikoena  $\beta$ -O-4 lotura da, hostozabaletako zuretan konifero-zuretan baino ugariagoa. Beraz, hostozabaletako zurak errazago degradatzen dira. Aipatutako monolignol eta lotura mota bakoitzaren ehunekoak 1.1 Taulan eta 1.3 Irudian daude zerrendatuak eta irudikatuak.

**1.1. Taula.** Lignina konposizio eta lotura arruntenak iturriaren arabera [18].

	<i>Egur bigunak</i>	<i>Egur gogorrak</i>	<i>Belarrak</i>
<b>Monolignol unitateak</b>	G nagusiki	G eta S	G, S, eta H
<b>S</b>	%95-100	%≈50	%20-54
<b>G</b>	%0-5	%≈50	%33-88
<b>H</b>	-	-	%5-33
<i>Loturak</i>			
<b><math>\beta</math>-O-4</b>	%45-60	%60-62	%74-84
<b><math>\beta</math>-5 eta 5-O-4</b>	%9-12	%3-11	%5-11
<b><math>\beta</math>-<math>\beta</math> eta <math>\gamma</math>-O-<math>\alpha</math></b>	%2-6	%3-12	%1-7
<b>(5-5), (<math>\alpha</math>-O-4), eta (<math>\beta</math>-O-5)</b>	%5-7	%<1	-
<b>(4-O-5)</b>	%1-9	%1-7	-
<b>(<math>\beta</math>-1) eta (<math>\alpha</math>-O-<math>\alpha</math>)</b>	%2	%2	-



### 1.3 Irudia. Lignina makromolekularen lotura arruntenak.

Zenbait aplikaziotan material lignozelulosikoak jasotako egoera berean erabiltzen dira, beste batzuetan aurretratamendu bat behar izaten da, eta beste batzuetan konposatu lignozelulosiko desberdinak bereizteko beharra dago. Azken prozedura hau bereziki interesgarria da konposatu bakoitzarentzako egokigarritasun optimoa lortzeko, egitura eta konposizio desberdinak dituztenez, xede desberdinatarako izan baitaitezke aproposak. Zelulosaren isolamendua mendeetan zehar modu zabalean burutu izan den prozedura bat da, papera, guztiz zelulosaz osatua, egunerokotasunean gehien erabili izan den produktua izanik. Alderantziz, lignina paper-industriako hondakintzat konsideratua izan da hamarkadetan zehar, biomaterialak osatzeko duen kalitate paregabeari eta aplikazio askotarako duen potentzial handiari jaramon egin gabe, bere egitura konplexu eta aromatikoaren ondorioz.

Liginaren egitura aromatiko konplexuaren barruan, balio handiko aplikazio zehatzagoetarako interesgarriak diren talde funtzional batzuk daude. Talde hidroxilo alifatiko eta fenolikoak dira talde funtzional errektiboenak, baina metoxi taldeak ugariak dira egituraren zehar baita ere.

Ligninaren isolamendu edo material lignozelulosikoaren zatikatzeak are eta gehiago eragiten dute lortutako ligninaren egituraren ezaugarriean, erabilitako prozesuaren arabera egitura eta talde funtzionalak modu desberdinean aldatuz [19].

### **1.3. LIGNINAREN ERAUZKETA**

Biomasan burututako tratamenduek lortutako ligninan eragiten dute, tratamendu bakoitzak lignina modifikatu espezifikoak lortzen dituelarik. C-C loturaren hausturak, kondentsazio maila, pisu molekularra, eta talde funtzionalen ugaritasunaren bariazioa desberdintasun garrantzitsuak dira, eta helburutzat hartutako aplikazioetan eragin dezakete [18].

Lignina erauzteko metodoak bi motatan bana daitezke. Lehena, deslignifikatze prozesua deritzona, lignina bere disolbaketaren bidez, gainerako konposatuetatik bereizteko prozesua da. Bestean, lignina bere matrizetik askatzen da, zelulosa eta hemizelulosa karbohidratoetan bihurtuz disolbatzen direlarik.

#### **1.3.1. DESLIGNIFIKAZIO PROZESUAK**

Ligninaren disolbaketa aldaera ezberdinetan oinarrituak egon daiteke, deslignifikazio metodo desberdinak sortuz. Industria eskalan metodo arrunt eta hedatuena deslignifikazio alkalinoa da. Prozesu ezberdinak aurkitu daitezke erreakzionatzaile eta erabilitako baldintzen arabera, baina guztiak ligninaren disolbatze eta biomasaren deslignifikatzean oinarritzen dira. Ingurune alkalinoek talde hidroxilo fenolikoen desprotonazioa ahalbidetzen dute, bere disolbagarritasuna sustatuz. Horrez gain, lignina-karbohidrato loturak hausten dira, lignina hemizelulosatik bereizten delarik, eta  $\beta$ -D-4 loturen hausturaren ondorioz, lignina zatikatu egiten da baita ere. Ekoiztutako paper-ore guztiaren %90a baina gehiago Kraft prozesutik eratorriak dira [17]. NaOH eta Na<sub>2</sub>S disoluzio akuosoetan burutzen da,

deslignifikazio prozesua areagotzen duten HS<sup>-</sup> ioiak ingurunean daudelarik, eta kalitate handiko orea lortzen delarik. Hala ere, prozesuan ezarritako baldintza gogorrek degradazio eta birpolimerizazio erreakzioak induzitzen dituzte, oso molekula kondentsatuak lortuz,  $\beta$ -O-4 lotura gutxiagoekin. Horrez gain, lortzen den likore beltzean, ligninarekin batera, tiol taldeak daude disoluzioan. Disolbatutako lignina azido bidez prezipitatu eta berreskuratu daiteke, baina paper-fabrikako prozesuetan beharrezkoa den energia beharrak asetzeko erabiltzen da, likore beltza errez. Bestalde, erreketa burutu baino lehen erabilitako kimikoak berreskuratzen dira. Onura guzti hauengatik da industrialki prozesu hedatuena [20].

Kraft lignina (KL) pisu molekular handiko lignina konsideratzen da, Kraft prozesuan gertatzen diren kondentsazioen ondorioz. Azidoa gehitzean hauspeatzen da, ligninan dauden konposatu fenolikoak protonatuz, hauen hidrofilizitatea jaitsiz, eta ondorioz prezipitatuz. Mekanismo bera aplikatzen da Lignoboost teknologian, 2002an diseinatua, lignina etekinak maximizatzeko eta gatz ezpurutasunak ezabatzeko [21]. LignoForce prozesua Kraft prozesuan sortutako sulfito konposatuak deuseztatzeko sortutako beste hurbilketa bat da [22]. Metodo hau ligninaren oxidazioan dago oinarritua, bere aplikagarritasuna mugatzen duten sulfuro konposatuak kentzeko.

Sulfito prozesua da bigarren garrantzitsuena. Hau ere deslignifikazio alkalinoan oinarritzen da. Kasu honetan, sulfito ( $\text{SO}_3^{2-}$ ) edo bisulfito ( $\text{HSO}_3^-$ ) gatzak erabiltzen dira ligninaren gune aktiboak (eratzun aromatikoen  $\alpha$ -posizioak) erreakzionatu eta sulfonatzeko, bentzilo sulfonatu taldeak sortuz, uretan eta ingurune azidotan oso disolbagarriak. Ezaugarri honek lignosulfonatoak (LS) oso erakargarri bihurtzen ditu hainbat aplikaziotarako [23]. Hala ere, ligninaren degradazio maila eta sufre kantitate altuek, merkatu-kuotaren jaitsierarekin batera, etorkizun zalantzagarria ondorioztatzen zaie lignosulfonatoei [24].

Soda-oreatzea da hirugarren prozesu tradizional ohikoena, zurezko materialak ez diren biomasetan erabili izan ohi dena, belarretan alegia. Kraft prozesuaren antzekoa da,  $\text{Na}_2\text{S}$  gehitzen ez den aldearekin. Despolimerizazio erreakzioak txikiagotzen ditu, eta ingurune alkalinoetan egonkorrik diren enol eter egiturak sortzen ditu. Biomasa belarkaretan erabiltzen den beste soda prozesu bat aurretratamendu alkalino akuosoa da, non  $\text{NaOH}$  erabiltzen den baita ere, baina baldintza arinagoetan. Monomero fenoliko, lignina oligomero, eta karbohidratoetarik eratorritako azido hidroxilikuetan aberats den likorea lortzen da. Beste metodo alkalino batzuk  $\text{NaOH}$ -aren ordez, erraz berreskura daitezkeen amoniako likido edo anhidroan oinarritzen dira [25].

Ingurune azidoek biomasaren zatikapena sustatu dezakete baita ere, karbohidrato polimerikoen (zelulosa eta hemizelulosen) hidrolisia sustatuz. Ingurune azidoak ligninan eragiten du baita ere,  $\beta$ -O-4 loturak haustuz eta  $\alpha$ -posizioko hidroxilo taldea kenduz. Karbenio bentzilikoak eratzen dira, eta hauek urrunago erreakzionatzen edo birpolimerizatzen dira enol eterren protoiekin. Aurretratamendu azido diluituak (DAP) lignina zatikatu eta partzialki disolbatzen ditu lignina eta hemizelulosa. Lote moduan egindakoan, lignina kondentsatu eta disolbatu gabeko biomasan jalkitzen da. Fluxu-zeharrean egindakoan, gertaera hau ekidin daiteke eta lignina modu eraginkorragoan lor daiteke. Berokuntza eremutik disolbatutako lignina frakzioa baztertuz eta jalkitzea eragotziz, hemizelulosa karbohidratoak eta lignina oligomero eta monomeroak lortzen dira. Hala ere, ligninaren isolatze osoa burutzea erronka bat da oraindik. Honen ordezko metodo bat lurrun-eztanda aurretratamendua da. Bertan, uraren lurrunaz presioa sortu eta bat-batean askatuz, biomasa lignozelulosikoaren matrizea irekitzen da, zuntzak moztuz eta ligninaren erauzketa erraztuz [26].

Disolbatzaile akuosoak organikoengandik aldatu ezkerro, deslignifikazio prozesuaren etekinak handiagotu daitezke, eta ondoren, prezipitazio azido bidez disolbatutako hemizelulosa oligomeroetatik banandu. Prozesu honi organosolv tratamendua deritzo eta hiru osagai lignozelulosiko nagusiak isolatzeko duen gaitasunagatik, potentzial handiko biofindegia prozesua konsideratzen da. Lignina eta hemizelulosa prozesuan zehar disolbatzen dira eta zelulosa-orea lortzen da produktu sólido bezala. Lignina errez lor daiteke likoretik erauzketa aurrera eramanez, eta iragazketaz bananduz, hemizelulosa disolbaturik mantentzen delarik [27]. Bestalde, prozesua oso afinagarria da, disolbatzaile organiko (metanola, etanola, butanola, tetrahidrofuranoa edo dioxanoa) eta azido desberdinak erabili daitezkeelarik disolbatzaile edo katalizatzaile bezala. Lortzen den lignina nahiko purua denez, ez dago ezpurutasunak kentzeko horrenbesteko beharra, Kraft prozesuan ez bezala. Hala ere, prozesua optimizatzeko ahalegin handiak egiten ari dira oraindik, erreakzio baldintzak aldatuz edo katalizatzaile desberdinak erabiliz [18].

Erauzketa solbolitikoa erredox katalizatzaile heterogeneoekin konbina daiteke, frakzionamendu katalitiko erreduzitzaleetan, lignina aldi berean disolbatu eta despolimerizatzeko, lignina olia ekoitziz. Likido ionikoak (IL) konposatu lignozelulosikoak disolbatzeko ere erabil daitezke. IL-a hiru osagai nagusiak disolbatzeko gai den bitartean, ionosolv prozesuak hemizelulosak eta lignina disolbatzen ditu soilik. IL disolbatze prozesuan, zelulosa antidisolbatzaile bat erabiliz erauz daiteke lignina baino lehen, eta kristalinitate baxuko zelulosa lor daiteke, honen bihurketa erraztuz. Ionosolv tratamendua organosolv tratamenduaren oso antzekoa da, temperatura baxuagoak erabil daitezkeen abantailarekin. Hala ere, IL-ak garestiak eta berreskuratzten zailak izan ohi dira [28].

Azken deslignifikazio prozesua metodo oxidatzalea da, orearen zuritzea metodoaren antzekoa. Hidrogeno peroxidoa edo oxigenoa erabiltzen da

lignina pisu molekular baxuko produktuetan bihurtzeko, konposatu fenolikoak, kinonak, eta azido alifatiko zein karboxilikoen egituretakoak besteak beste [29].

### **1.3.2. KARBOHIDRATOEN KONBERTSIOA**

Metodo hauetan, karbohidrato polimeroak (zelulosa eta hemizelulosak) ingurunean eraldatu eta disolbatzen dira, lignina hondakin disolbaezin edo erauzian lortzen delarik. Metodo ohikoena katalizatzaile azido bidezko karbohidrato konbertsioa da, hidrolisi azido kontzentratu (CAH) bidez monosakridoak lortzen direlarik. Konbertsioa kontzentrazio baxuagoko azido disoluzioekin ere lor daiteke, temperatura altuagoekin konpentsatua. Metodo honi hidrolisi azido diluitu (DAH) deitzen zaio. IL azidotuak ere erabil daitezke, lotura glikosidikoak eskuragarriago bihurtuz eta hidrolisia erraztuz. Despolimerizazio mekanokatalitikoa erabil daiteke bestalde, aurretik azidotan bustia izan den biomasa ehotuz guztiz disolbatu arte. Lignina erauzia lortzeko post-hidrolisi pausua beharrezkoa da, bai monofasikoa zein bifasikoa. Metodo bifasikoa pisu molekular baxuko ligninak lortzeko bereziki erabilgarria da.

Azido tratamenduen antzera, hidrolisi entzimatikoak ere ohikoak dira. Normalean aurretratamenduen ondoren ezartzen dira, biomasaren iraunkortasuna murrizteko. Lignina hondakin solido bezala lortzen da, beste karbohidrato hondakinekin batera, purutasun gutxiko lignina ekoitziz, baina haratago balioztatzeko ahalmen handiarekin. Biomasa termikoki ere tratatu daiteke produktu gaseosoak eta ikatza lortzeko. Ikatza ligninatik eratorritako produktuez dago osatua, produktu gaseosoak karbohidrato produktuez eta lignina monomero eta oligomeroez osatuta dago bestalde, produktu gaseoso hauek olio batean kondetsatuz lortzen direlarik [30].

## 1.4. LIGNINAREN APLIKAZIO KONBENTZIONALAK

Lignina paper-industrian edo bioerregai prozesuetan azpi-produktu edo hondakin bezala ekoitzi izan da modu zabalean. Lignosulfonatoen likorearen ekoizpen zabala eta bere hidrofilizitatearen abantaila direla eta, LS-ak oinarrizko produktu bezala oso erabiliak izan dira hainbat merkatutan. Aipatutako hidrofilizitatea dela eta, inongo modifikazio edo purifikazio pausorik ez da behar izan prozesuetan gehitzeko. Horrez gain, toxizitaterik gabeko produktuak dira, eta purutasuna eta sulfonazio gradua erraz determina daitezke. Hala ere, haien ezaugarri fisikokimiko zehatzak ondorioztatzea nahiko konplexua da, LS-en karakterizazioa modu semikuantitatiboan burutuz soilik. Ondorioz, balio baxuko produktuetan erabiltzen da, hormigoi edo buztin gehigarri bezala edo animalientzako pentsuen aglutinatzairen bezala [31].

Hala ere, badaude ligninan oinarritutako espezialitateko produktuak. Produktu hauek beharrezko dituzten ezaugarrien arabera, konplexutasun desberdineko prozesuak behar dira ligninentzat. Honek egitura molekular eta propietate espezifikoagoen lorpena ahalbidetzen du, aurretik erabakitako aplikazioentzako bereziki diseinatuak. Molekula espezifikoagoak lortu ahala, propietate bereziekin, orduan eta balio handiagoko merkatuetan izango du sarbidea. Ondorioz, lignina balio handiko merkatuetan sartzeko, ezinbestekoa da ligninatik eratorritako molekula konplexuak eratzea, biofindegia eta biomasa lignozelulosikoa bezalako lehengaien errentagarritasuna handitzeko. Ikertzaile askok lignina hainbat material aurreratuetan gehitzeko ahaleginean dihardute aspaldi gabe, nanomaterial edo oso lignina funtzionalizatuak lortuz, eta aplikazio biomedikoetan, energia biltegiratzerako sistematan, edo bestelako materialen sintesietan gehituz [32].

## Ligninan oinarritutako materialak energia biltegiratzeko aplikazioetarako

Karbonizazio prozesua nahiko prozedura simplea izan arren, ligninatik eratorritako karbono beltzak estaldura eroale, ur-tinte, edo ehun-tinte bezala erabil daitezke [33]. Lignina erretxina fenoliko bihurtzeko modifikatu edo despolimerizatu daiteke, hedatzaile, zatiketa-agente, edo erreaktante bezala erabili daitezkeen produktuak ekoizteko [34]. Despolimerizazio erreakzio hauek oso modu zabalean aplikatzen eta aztertzen dira ikerkuntzan, ligninak duen potentzial handia dela eta. Izan ere, kimiko askoren iturri izateko ahalmena dauka, bereziki konposatu fenolikoen iturri. Adibidez, ligninatik eratorritako banilina lurrin bezala erabili izan da kosmetikoetan eta aromatizatzaila bezala elikagai industrian [17]. Hala ere, ohikoagoa da despolimerizazio erreakzioetan produktu heterogeneoak lortzea, elkarrengandik bereiztea ezinezko diren ligninatik eratorritako 30 konposatu aromatiko desberdin lortzeraino, inongo aplikazio espezifikotan aplikaezinak. Arazo honi aurre egiteko ikuspuntu berri bat inbuturatze deiturikoa da, tarteko produktu oso mugatua lortzeko prozesua diseinatzean oinarritua, eta helburutzat hartutako produktuen transformazioa burutzea du xede [35].

Beste hurbilketa bat ligninaren heterogeneitatea disolbatzaile bidezko erauzketaren bitartez murriztea da. Helburuaren arabera, metodo desberdinak diseina daitezke, ohikoenak azido bidezko erauzketa, disolbatzaile bidezko frakzionamendua eta mintz bidezko iragazketa direlarik [36]. Disolbatzaile bidezko erauzketa bereziki kustomizagarria da, lortu nahi diren lignina frakzioen arabera, ezaugarri desberdineko disolbatzaileak aukeratu daitezkeelarik [37].

Ikerketa zabala burutu da baita ere lignina material konposite aurreratuetan sartzeko helburuarekin. Anitzasun handiko materialen formulazioan aurki daiteke. Ligninaren egitura eta ezaugarriak aztertzen dira, hauek materialetan duten eraginak aztertzearekin batera. Azterketa honek ligninaren balio handiagoko aplikazioetarako sarrera ahalbidetu eta

ezagutza handiagotzen du [38]. Lignina biokonposite termoplastikoentzako matrize ona da, zuntz naturalekin lotura ona lortzen duelarik [39]. Ligninaren funtzio originala beste konposatu lignozelulosikoen itsasgarri izatea da, zurari eta gainerako material lignozelulosikoei osotasuna eta indar mekanikoa emanez. Lignina pisuaren %40 proportziorainoko kantitateetan gehitu daiteke konposite matrizeetan, kristalinitate gradu eta kristalizazio abiadura handiagotzen, eta ezaugarri termiko eta mekanikoak hobetzen dituelarik. Horrez gain, formulaketa termoegonkorretan erretxina zein konposite bezala erabili daiteke, lehena hidroxilo taldeak dituen monomero bezala, eta bigarrena ordezkapen-erreakzioetan, egitura adarkatu, funtzionalizatu, eta posizio libreak dituen konposatu bezala [40].

Lignina oraindik haratago balioztatzeko ligninatik eratorritako nanopartikulak, nanokapsulak, nanozuntzak, nanotuboak, eta bestelako nanoegiturak sintetizatu eta aplikazio desberdinetan erabili dira [38]. Sektore nagusienetako bat biomedikoa da. Izan ere, ligninak ezaugarri antimikrobiario, antioxidatzaile eta UV absorbatzaileak ditu, sendagai edo geneak garraiatzeko sistema bezala ezartzeko ahalmenarekin [41]. Horrez gain, nanoligninek azalera handiagoa dute, nahasteetan hauen ezaugarriak eta antioxidatzaile ahalmena hobetzen dutelarik, besteak beste [38]. Hala ere, lignina zitobateragarria edo zitotoxikoa dela frogatu ezean, honen aplikagarritasun biomedikoa ez da errelista [18].

Beste gai gori bat energia biltegiratzeko tresnen materialetan aplikatzea da. Bateria eta superkondentsadoreak energia berriztagarriagoen eta ibilgailu elektrikoen trantsiziorako funtsezko gailutzat daude konsideratuak. Hala ere, gailu hauek osatzen dituzten konposatuak urriak eta garestiak izan ohi dira, aukera hau bideraezin bihurtuz. Hori dela eta, konposatu lignozelulosikoak gailu hauen osagai bihurtuz, arazo hau konpon dezakeela pentsatzen da [10,11,42].

## **1.5. BILTEGIRATZE ENERGETIKOA (ES)**

Teknologiaren aurrerapenek, karbono neutralen emisioetarako ekimenek eta energia-iturri berriztagarrien oparotasunak erronka bat dakarte egungo energia-biltegiratze sistementzat [43]. Mundu mailako energia eskaerak hirukoitzu egingo dituen estimazioekin, mende amaierarako energia sare berriak behar dira etorkizuneko energia eskakizunak modu iraunkorrean betetzeko [44]. Elektrizitatea sortu bezain pronto kontsumitzen da, baina elektrizitatea sortu eta kontsumitzen diren kokalekuak desberdinak izan ohi dira, azaroaren konponbide bezala energia biltegiratze sistemak beharrezko direlarik. Energia biltegiratzeko sistema desberdinak daude, energia biltegiratzeko transformazioaren eta ondorengo erabilpenaren araberakoa.

Energia biltegiratzeko sistema desberdinak 1.4. Irudian daude irudikatuak. Energia kimikoa da energia biltegiratzeko sistema nagusia, garraio eta elektrizitate sorreran erabilia. Sistema mota honek atomo eta molekulen arteko lotura kimikoetan gordetzen du energia, eta hauek erreakzionatu eta haustean, energia askatu eta energia termiko edo mekanikoan eraldatzen da. Energia hau ondoren energia elektrikoan bihurtzen da bero-makinien bidez. Erregai kimiko ohikoenak ikatza, gasolina, gasolio, eta petrolio-gas likidotuak dira. Hala ere, sistema honek erregai berriztagarriak ere hartzen ditu barne, hidrogenoa, gas natural sintetikoa, bioerregaiak, eta energia termo-kimikoa bezalakoak.

Hidrogenoa garbia da, oso ugaria, eta erregai ez toxikoa. Edozein jatorri primariotik izan daiteke ekoiztua, eta ur lurruna askatzen da emisio bezala. Gas natural sintetikoa materia organikoaren degradaziotik ekoizten da,  $\text{CH}_4$  eta  $\text{CO}_2$  bezala nagusiki. Bioerregaiak erregai hidrokarburoak ordezka ditzakete, biomasatik eratorritako hidrokarburo motzak lortuz, bai likido edo gas egoeran. Energia biltegiratzeko sistema termo-kimiko nagusia amonioaren disoziazio erreakzioa da,  $\text{H}_2$  eta  $\text{N}_2$  lortuz. Erreakzio


endotermikoa da, beraz, amoniakoa gordeta dagoen erreaktore kimikoan eguzki energia nahikoa absorbatutakoan, bere disoziazioa gertatzen da. Kontrako erreakzioa gertatzean, amoniakoaren birsintesia alegia, erreakzio exotermikoaren ondorioz energia askatzen da, eta biltegiratutako eguzki energia berreskuratzen da.

Energia elektrokimikoa erreakzio kimikoen elektroi mugimenduen ondorioz sortzen da. Bi biltegiratze mota nagusi daude, bateria elektrokimikoak eta kondentsadore elektrokimikoak. Nahiz eta lehenengo mota elektrokimikoa izan, bigarrena biltegiratze elektriko bezala klasifikatzen da. Haize eta eguzki energiak nagusiki biltegiratze sistema elektrokimikoen bitartez biltegiratzen dira. Kargatzeko ahalmenaren arabera, zelda edo bateria desberdinak klasifika daitezke. Zelda edo bateria primarioak ezin dira berriz kargatu. Pila sekundarioak, bestalde, berriz kargatu daitezke, pila erabiltzean gertatzen den kontrako erreakzioa bultatzen duen korrontea emanet. Zelda primarioak akuosoak diren bitartean, pila sekundarioak akuosoak zein ez-akuosoak izan daitezke. Erreserba pilak beste bateria primario mota bat dira, biltegiratze denbora luzeetan erabiliak. Elektrolitorik gabe biltegiratzen dira eta baldintza txarretan gorde daitezke. Azkenik, erregai-pilak hidrogeno bitartez kargatzen dira, eta elektrizitatea erregaa dagoen bitartean ekoizten da.

Energia elektrikoa biltegiratzeko gailu gisa sailkatutako sistema nagusiak kondentsadoreak dira. Normalean korronte altuak behar diren kasuetan erabiltzen dira, baina gaitasun baxua dute, eta, beraz, aldi laburretarako bakarrik erabil daitezke. Superkondentsadoreek gaitasun handiagoa dute eta kalterik jasan gabe birkargatu daitezke, kondentsadoreen eta bateria konbentzionalen artean sortutako beharraren hutsunea betez. Iman supereroaleek haril supereroaleetan ekoiztutako energia gordetzen dute temperatura kriogenikoetan.

Beste biltegiratze sistema bat energia mekanikoan datza. Sistema hauek uretik, olatuetatik eta itsasikaretatik sortutako energia bihurtzeko eta biltegiratzeko ibiltzen da. Bolante sistema da erabiliena, zilindro birakari bat duclarik, bira ematean energia zinetikoa energia mekaniko bezala biltegiratzen du. Sistema hau tren-makina elektrikoentzat da interesgarria, bolante sistema hauek trenbideen alboan kokatu eta bateria estatiko modura ibiltzeko. Ponpatze bidezko hidrometaketa maila desberdinetako urtegietan erabiltzen da, ura goreneko mailetatik behoko mailetara mugitzen denean sortzen den energia metatzeko. Azkenik, aire konprimituaren energia konpresore batek airea konprimitu eta lur azpian gordetzean sortzen den energia da.

Azken energia biltegiratzeko sistema mota energia termikoa da. Beroa edo hotza gordetzen du, eta behar denean askatzen du. Bizitoki-eraikin edo eraikin industrialetan energia kontserbatzeko interesgarria da, ura berotzeko edo elektrizitatea sortzeko [44].



**1.4 Irudia.** ES sistemek sailkapena.

## 1.6. ENERGIA ELEKTROKIMIKOA BILTEGIRATZEKO (EES) GAILUAK

Bateriak potentzial handiko energia biltegiratze sistemak dira, erantzun azkar, fidagarri eta autodeskarga abiadura motelarekin. Biltegiratze mota bakoitzak bere abantailak dituenez, helburu desberdinatarako sistema desberdinen garapenaren beharra bultzatzen da. Hala ere, energia elektrokimiko bidezko energia biltegiratzea karbono neutralitaterako trantsizioan funtsezko sistema konsideratzen da [45].

Bateria tradizionalak zelda elektrokimiko batez osatuak daude gutxienez. Zeldak seriean konektatu ezkero, bateria tentsio espezifiko ( $V_d$ ) bat emateko diseinatuak egongo dira, eta paraleloan konektatu ezkero, korronte espezifiko bat ( $I_d$ ) emango dute.

Zelda baten energia dentsitatea aldi batean deskarga baten karga-transferentzia totalaren (pisuko edo bolumeneko) eta korronte espezifiko eta konstantearen mendeko da. Energia dentsitate honi kapazitate espezifikoa ( $Q(I_d)$ ) deritzo, eta bateria diseinatzerakoan garrantzi handiko eta kontuan hartu beharreko faktorea da. Zelda kopuru txikieneko bateriak diseinatzea nahi izaten da, kudeaketa arruntago eta kostu baxuagoa baitute. Beraz, energia dentsitate altuko zeldak biziki interesgarriak dira.

Zeldak hiru atal desberdinez daude osatuak: bi elektrodo eta elektrolito batez. Elektrodo bati anodo deitzen zaio, bestea katodo delarik. Zelta barruan gertatzen diren erreakzio kimikoek biltegiratze elektrokimikoa eta energia elektrikoaren sorrera ahalbidetzen dute.

Anodoa erreduktorea den bitartean, katodoa oxidatzailea da. Hori dela eta, anodoan oxidazio erreakzioak gertatzen dira, katodora garraiatuko duen elektroi bat askatuz. Katodoan ordea, elektroi hau erreduktion erreakzio bat

burutzeko erabiliko da. Elektroi transferentzia zeldan dagoen elektrolitoari esker gertatzen da. Hala ere, beste konposatu batzuk ere sortzen dira, ioiak, kanpo-zirkuitu batetik garraiatu behar direnak. Bi prozesu hauek gertatzeko elektrodoen arteko bereizketa beharrezkoa da. Eroankortasun ioniko eta kanpo zirkuitu baten ioi transferentzia prozesuak bateratzeko modu bat elektrolito solidoen edo elektrolito likidoz bustitako bereizgailu isolatzailearen implementazioa da. Erreakzio kimikoa itzulgarria bada, bateria kargagarria da. Berriro kargatzeko, eta bateria hasierako egoerara itzultzeko, korrontea aplikatu behar zaio [46].

Bateria kargagarri zaharrenak berun-azido bateriak dira, baina gaur egun erabilienak litio-iodo bateriak dira (LIB-ak). Erabilitako metalaren arabera, bateria desberdinak daude: litio-kobalto oxidoa ( $\text{LiCoO}_2$ ), litio-burni fosfatoa ( $\text{LiFePO}_4$ ), litio-iodo manganeso oxido bateriak ( $\text{Li}_2\text{MnO}_4$ ,  $\text{Li}_2\text{MnO}_3$ , LMO), eta litio nikel manganeso kobalto oxidoak ( $\text{LiNiMnCoO}_2$ ). Garraiagarritasunarengatik dira bereziki interesgarriak, energia dentsitate altu eta erantzun azkarraren gain. Hauetako batzuk eskuko telefonoak, eskuko ordenagailuak edo kamerak bezalako gailu eramangarrietan ibiltzen dira ( $\text{LiMnO}_2$ ), beste batzuk instrumentu medikoetan erabiltzen diren bitartean ( $\text{LiNiMnCoO}_2$  eta  $\text{Li}_2\text{MnO}_4$ ). Hala ere, garestiak dira eta gaitasun mugatua dute [43].

### **1.6.1. LIB-AK**

Litio-iodo bateriak ingurumenarekiko bizimodu jasangarriagoa eraman ahal izateko gaitasun handiena duen energia biltegiratze sistema kontsideratzen da.

Hala ere, LIB gailuak txikiagoak, arinagoak, seguruagoak, eta merkeagoak izateko beharra dute gaur egungo merkatu eskaerak bete eta modu hedatuagoan erabil ahal izateko. Horretarako, material jasangarriagoen

erabilera ezinbestekoa da. Bateria sistema berriak ari dira aztertzen, non katioi poliatomikoak erabiltzen diren katodo material bezala ( $Mg^{2+}$  eta  $Zn^{2+}$  dibalenteak, edo  $Al^{3+}$  tribalentea adibidez). Na, Zn, K, Mg eta Al bezalako beste metal batzuen erabilpena ere ikertzen ari da, litioa baino merkeagoak eta ugariagoak baitira. Bereziki Na-an dago fokua, litioaren oso antzeko teknologia eta ezaugarri kimikoak behar baititu, sodio-iodi baterien prozesaketarako trantsizio industriala errazago eginez [45]. Hala ere, litioak dirau produktu gehienen metal aukera nagusi bezala.

Berriz kargatzeko LIB-a lau atalez dago osatua: anodo bat, katodo bat, elektrolito likido organikoa eta bereizgailu bat.

Gehien erabiltzen den anodo materialak karbonoa daude oinarrituak; grafitoa eta grafenoa. Anodo bitarrak ere erabil daitezke, karbono materialen eta metal oxidoen ( $Li_4Ti_5O_{12}$ ,  $TiO_2$  eta  $Fe_2O_3$ ) arteko nahasketak prestatuz.

Material katodikoak oxido multimetálicoak osatuak egon ohi dira. Kobaltoa, nikela, eta manganesoa bezalako metalek konposatuak sortzen dituzte litioarekin, hau egitura kristalinoan sartzen delarik,  $LiNi_xMnyCo_zO_2$  (NMC),  $LiCoO_2$  (LCO), eta  $LiNi_xCo_yAl_zO_2$  (NCA), fosfato metalak ( $LiFePO_4$  (LFP) eta  $LiMnPO_4$ ), eta espinela oxidoak ( $LiMn_2O_4$  (LMO) eta  $LiMn_xNi_yO_4$  (LNMO)) bezalakoak. NMC da katodo material nagusia izaten jarraituko duena [47].

Erabiltzen diren elektrolito likidoak organikoak dira, dimetil karbonato (DMC) eta etilen karbonato (EC) nahasketaz eta litio gatzez osatua. Gatz hau perkloratoa ( $LiClO_4$ ), fluoroboratoa ( $LiBF_4$ ), fluorofosfatoa ( $LiPF_6$ ) edo sulfonilo imidak ( $LiFSI$  eta  $LiTFSI$ ) izan daitezke [48].

Bereizgailuak beharrezkoak dira zirkuitu laburrak ekiditeko. Polimero bakarrez edo hainbat polimeroz osatuak egon daitezke eta film mehe eta

porotsuak izan behar dira. Polietilenoz (PE), polipropilenoz (PP), edo Celgar-ez (PP/PE) egon ohi dira osatuak, baina badaude beira-zuntzez eta zelulosaz oinarrituak ere. Azken hau geroz eta interes gehiago lortzen ari den material mota da [49].

Bai anodoak zein katodoak “binder” edo aglutinatzalea dute osagai bezala, material aktibo eta gehigarri eroaleen arteko eta korronte-kolektoreen arteko itsaspenarekin laguntzeko funtzioa betetzen duelarik. Aglutinatzale ohikoenak polibiniliden fluoruroa (PVDF) eta bere kopolimero polibiniliden fluoruro-ko-hexafluoruroa (PVDF-HFP) dira. karbono beltza da gehigarri eroale ohikoena, eta Cu-a da anodoentzako gehien erabiltzen den korronte-kolektorea, katodoentzako Al-a den bitartean [50].

### **1.6.2. LIB-ENTZAKO MATERIAL BERRI ETA JASANGARRIAK**

Baterien muntaketan hainbat atal eta materialek hartzen dute parte. LIB-ak etorkizuneko beharrak asetzeko gai izango diren sistema nagusiak kontsideratzen dira. Tamalez, honek hornikuntza eskasia eragin dezake, LIB-ak normalean lehengai urri eta garestiez osatua baitago. Horrez gain, produkzio eta postprodukzio prozesuak inguruarekiko arriskutsuak izan daitezke.

Polimero organikoak dira arazo honi aurre egiteko alternatiba nagusiak, jatorri ugarietatik eratortzeaz gain, oso maneiagarriak baitira. Katodoaren materialak ordezka ditzakete, material metaliko kantitate handiena duen atala izanik. Polipirrola (PPy) eta poli(3,4-etilen dioxifenoa (PEDOT) dira katodoen material metalikoak ordezkatzenko aztertutako polimero eroale nagusienak. Hala ere, biopolimeroak, jada naturan ekoitziak, oso merkeak dira, erraz eskura daitezke, eta polimero organikoak baino aukera jasangarriagoak dira. Biopolimero hauek, gainera, degradagarriak eta toxikotasunik gabekoak izango lirateke, baterien muntaketa eta hil ondoko

prozesaketa berdeagoa ahalbidetuz. Biopolimero hauen artean, lignina aplikazio desberdin askotan arreta irabazten ari den materiala da, baterien material modura [51] bere anfilikotasunaren, gainazal aktiboaren eta erredox erreakzioen ondorioz.

Elektrodo anodikoak karbono materialez egon ohi dira osatuak, baina gehienak jatorri fosil ez-berriztagarrietatik eterri ohi dira. Lignina bateria material bezala erabiltzeko lan gehienak honen karbonizazio prozesuetan oinarritu izan dira, eta gaur egun erabiltzen diren karbono materialengatik ordezkatzen dira. Lignina etorkizun handiko hautagaia da bere karbono proportzio altu eta egitura aromatiko nabarmenaren ondorioz. Horrez gain, bere egitura moldatuz, karbono material ezberdinak lor daitezke, eta baterientzako behar diren betebehar ezberdinak burutu ditzake. Ligninatik eratorritako karbono porotsuak elektrodoen material aktibo bezala erabiltzeko izan dira ekoiztuak. Baterien errendimenduan eragin handia du porositateak, poro handiek zinetika difusioan eta ioi eroaleen eroankortasun sarea indartzen dituelarik. Bestalde, lignina poliakrilonitriloa (PAN), polibinil alkohola (PVA) eta polietilen glikola (PEG) bezalako polimeroekin konbinatu izan da, anodo bezala erabiliko diren karbono zuntzak lortuz. Gainera, Si eta Fe bezalako trantsizio metalekin oraindik gehiago modifikatzeko aukera ematen dute [52].

Aglutinatzaile, banatzaile eta elektrolito materialekin elektrodoen antzera gertatzen da. Ezinbesteko atalak dira, bateriaren segurtasuna eta jasangarritasuna arriskuan jar ditzaketenak.

Aglutinatzaile ohikoena PVDF-a da, eta N-metil-2-pirrolidona (NMP) disolbatzaile organikoa behar izaten du disolbatzeko. Nahiz eta aglutinatzailea baterien osagai txikienetarikoa izan, eginkizun garrantzitsua dauka elektrodoari itsasten eta propietate mekaniko egokiez hornitzen. PVDF-a nahiko garestia da eta ez dio elektrodoari bestelako

funtzionalitaterik gehitzen. Horrez gain, NMP-a disolbatzaile oso toxikoa da, eta bere erabilera saihestea gomendagarria da [53]. Azkenaldian, lignina elektrodo aglutinatzaile bezala aztertu da, prozesuaren kostu eta toxizitatea asko murrizteko ahalmena edukiko lukeelarik.

LIB elektrolitoak nagusiki likidoak dira, disolbatzaile organikoz (DMC/EC) eta litio gatzez osatuak. Banatzaileak disolbatzaile nahasketarekin bustitzen dira, eta katodo eta anodoaren arteko banaketa lortzen da, zirkuitu laburrak ekiditeko. Zelulosa, kitina, lignina, edo agarosa bezalako biopolimeroak orain arte erabilitako banatzaile zeramiko, beira mikrozuntz edo poliolefinan oinarritutako PE eta PP-ak ordezka ditzakete. Adibidez, lignina elektrospinning bidez PVA edo PAN bezalako polimerikoekin tratatu eta porositate altuko egiturak eratu ziren, Li dendriten formazioaren errepresioa lortu zelarik.

Hala ere, pila kargagarri likidoak karga eta deskarga prozesuetan zehar arriskuak ekar ditzake, adibidez, likido jarioa gerta daitekeelarik, zirkuitu laburrak edo bateriaren leherketa eraginez. Hori dela eta, elektrolito gel polimerikoak (GPE) edo elektrolito solido polimerikoak (SPE) zabalki ari dira ikertzen. GPE-ak polimero eta gatzez daude osatuak, egitura eta eroankortasun ionikoa lortzen dutelarik. Lignina gehigarri bezala edo egitura polimerikoaren osagai bezala erabil daiteke, bateriari indar eta segurtasun gehiago eman diezaiokeelarik. Adibidez, lignina polibinilpirrolidona (PVP) edo poli(N-imidazol)-co-poli(poli(etilen glikol) metiletermetakrilatoarekin (LCP) erretikulatu zen [52].

Hori dela eta, produktu bio-oinarrituuen implementazioa bateria material bezala oso sustatua dago, ez bakarrik eskuragarritasunagatik, baita ere biodegradagarritasun eta hil ondoko prozesaketagatik [44].

### 1.6.3. SUPEREROALEAK

Supereroaleak (SC-ak) LIB-ekin batera, energia trantsiziorako etorkizun handiko gailuak dira. Baterien antzera, bi elektrodoz (katodo eta anodo), bereizgailu batez, eta elektrolito batez daude osatuak. Elektrodo materialen eta elektrolitoaren artean sortutako interfasearen arteko ioien adsorzio eta desorzioaren ondorioz gordetzen edo askatzen dute energia. Bi SC mota nagusi daude: geruza bikoitzeko kondentsadore elektrokimikoak (EDLC-ak) eta pseudokapazitoreak (PC-ak). Potentzial elektriko bat aplikatzean, EDLC-ak karga geruza bikoitz bat osatzen du, elektrolitoaren ioiak banatu eta elektrodoen geruzan adsorbatuta geratzean. Kontrako prozesua gertatzean, gordetako energia karga-banaketa fenomenoaren bitartez askatzen da.

Bestalde, PC-ari potentzial bat ezarritakoan, elektrodo materialetan erredox erreakzio faradaiko itzulgarriak gertatzen dira, geruza bikoitzetik pasatzen den karga bat sortuz, eta ondorioz, korronte bat sortuz [55]. SC elektrodoak nagusiki karbono materialez daude osatuak, azalera handiarekin eta beharrezko kapazitantziarako poro tamaina banaketa egokiarekin. Etorkizun laburrean espero den eskaera igoeraren ondorioz, aplikazio honentzako material berrien garapena sustatzen ari da, propietate hobetuekin [56].

Baterientzako materialekin bezala, material lignozelulosikoak, lignina bereziki, alternatiba egingarriak konsideratzen dira. Ligninatik eratorritako karbonoak SC-en material aktibo bezala erabili izan dira [57]. Horrez gain, aktibazio prozesu desberdinak egin izan dira, PAN bezalako polimero edo metal oxido desberdinekin karbonizazio eta konbinazio desberdinak burutuz [58].

## **1.7. LIGNINAREN GEHIKETA ETA MODIFIKAZIOA EES-ETAN**

Aurreko ataletan azaldu den bezala, ezaugarri desberdinak lignina motak daude. Ezaugarri hauek ligninaren xedea erabaki baino lehen aztertzea komeni da, beharrezkoa balitz, purifikazio, zatikatze edo modifikazio prozesuak kontuan hartu ahal izateko.

Ligninaren modifikazio nagusienetako bat bere konbertsioa da, karbonoa lortzeko. Prozesu arinenetako hidrolizazioa da. Lignina hidrolizatuek kapazitantziako balio onak eta egonkortasun altua lortzen dituzte. Katalizatzaile azido edo alkalinoekin 120-200 °C edo 250-300 °C-ean burutzen dira hidrolizazio prozesuak, hurrenez hurren [59], karbonizazio prozesu konbentzionalen 400-1000 °C balioekin alderatuz. Lortutako karbono materialak oso desberdinak izan daitezke, prozesuaren baldintzen, dopaketa agenteen edo gehitutako errektiboen araberakoak baitira. Baldintzen aukeraketa, edo funtzionalitateen gehiketa, lortu nahi den errendimendu espezifikoaren araberakoak dira [60].

Beste lan batzuk lignina sintetikoa erabiltzen dute, eta hauen egituraren araberako propietateak aztertzen dituzte. Siringol eta guaiacol monomeroak erabili ziren homopolimeroak (S edo G unitateez osatuak soilik) edo kopolimeroak (S eta G unitateez osatuak) sintetizatzeko, eta hidrokinonaren gehiketa aztertu zen, material hibridoaren erreodox zati luzatuen eragina aztertzeko. Erreodox zatien kantitate altuagoek film-aren errendimendu hobea erakutsi zuten [61].

Beste lan batzuetan lignina despolimerizatu eta lortutako dentsitate baxuko monomero aromatikoak (LDAM-ak) erabili ziren kinona kantitateak handitu eta polimero sintetikoen sintesian aitzindari bezala erabiltzeko [62]. PPy-a LS akuosoan sintetizatu zen baita ere, LS-an dauden kinonen eta PPy-aren

elektrokimika konbinatuz [63, 64]. Lignosulfonatoa, hala ere, prozesu zaharkitua da, eta ugariago edo jasangarriagoak diren Kraft-a bezalako beste lignina mota batzuk erabiltzeko ahalegina egin izan da. Lignina alkalinoa (AL)-PPy konpositeak modu antzekoan sintetizatu ziren [65], KL-PPy-arekin bezala, eta ondoren, karbonizatuak izan ziren [66]. Antzeko lanak egin ziren PEDOT polimeroa LS-ekin [67], KL-arekin [68], AL-arekin [68], eta sulfonazio txertatu bidezko AL modifikatuarekin konbinatzeko [69], polianilinarekin bezalaxe, kasu honetan gehien bat LS-ekin burutu zelarik [70-72].

Lignina eta beste polimero batzuen arteko konbinaketak ekoiztu ziren eta banatzaile bezala erabili ziren. Lan gehienak konpositeen ekoizpen eta elektrospinning bidezko karbonizazioan oinarritzen dira, porositate altuko eta termikoki egonkorra diren banatzaileak lortzeko. Zhao et al.-ek (2015) LIB-eten lignina-PAN banatzaile bezala erabiltzeko sintetizatu zuten elektrospinning bitartez [73]. Era berean, lignina-PVA zuntzak lortu ziren elektrospinning bidez, LIB-en banatzaile bezala erabiltzeko [74].

Beste lan batzuk elektrolito GPE-ak lortzen zentratu ziren, bai lignozelulosa zein lignina matrize bezala erabiliz. Lan batzuk lignozelulosa erabili zuten soilik mintz bezala [75], hauetako batzuk H<sub>2</sub>O<sub>2</sub> gehitu zutelarik plastifikatzaile eta ioi eroale bezala [76]. Beste batzuk hidroxipropil metil zelulosa (HPMC) polimero naturala gehitu zuten hantura efektu bezala [77]. Lignozelulosa ere beste polimero batzuekin konbinatu zen: PAN matrizean gehitu zen litio gatzaren disoziazioa sustatzeko eta eroankortasuna hobetzeko [78], PVA matrizera propietate mekanikoak hobetzeko gehitu zen [79], edo PEG mintzetara, besteak beste[80]. Beste biopolimero batzuekin ere konpositeak egin ziren, patata almidoiarekin adibidez, elektrolito zurgaketa handituz eta eroankortasun ionikoa hobetuz [81], edo kitosanoarekin [82]. Bestela, lignina isolatua aipatutako matrize berdineta ere gehitu zen: PVA [83], PVP [84], PEG [85], edo kitosanoa [86]. Horrez gain,

alilazioa bezalako modifikazioak [87] eta pisu molekular txikiko partikulak lortzeko ligninaren frakzionamendua [88] ere burutu ziren.

Lignina LIB-eten edo SC-eten sartzeko beste alternatiba ohiko bat, lignina karbono aktibo edo grafitoa bezalako karbono materialekin konbinatzean datza.

Lignina hainbat modutara funtzionalizatu eta eraldatu daiteke errendimendu hobeko karbono material konpositeak lortzeko. Lignina modifikazio mota ohiko bat bere oxidazioa da. Zentzu honetan, KL molekulen metoxi taldeak ordezkatzen oxidazioa burutu zen, hidroxikinona taldeen kopurua handituz eta ligninaren erredox gune aktiboak ugaritzuz [89]. Gainera, beste ikerketa lan batek ligninaren sulfonazio mailaren eta eroankortasun ioniko eta disolbagarritasun akuosoaren arteko erlaziona ebaluatu zituen [90]. Beste lan batean, aurretik prestatutako lignina-karbono konpositeak itsasketa hobea lortzeko eta karga faradaiko eta ez-faradaikoak konbinatzeko erretikulazio erreakzioa burutu zen [91].

## 1.8. ERREFERENTZIAK

- [1] Sharma V, Tsai M-L, Nargotra P, Chen C-W, Sun P-P, Singhania RR, et al. Journey of lignin from a roadblock to bridge for lignocellulose biorefineries: A comprehensive review. *Sci Total Environ* 2023;861:160560. <https://doi.org/10.1016/j.scitotenv.2022.160560>.
- [2] Prasad S, Sheetal KR, Venkatraman V, Kumar S, Kannoja S. Sustainable energy: Challenges and perspectives. *Sustain. Green Technol. Environ. Manag.*, Springer Singapore; 2019, p. 175–97. [https://doi.org/10.1007/978-981-13-2772-8\\_9/TABLES/6](https://doi.org/10.1007/978-981-13-2772-8_9/TABLES/6).
- [3] Afgan NH, Al Gobaisi D, Carvalho MG, Cumo M. Sustainable energy development. *Renew Sustain Energy Rev* 1998;2:235–86. [https://doi.org/10.1016/S1364-0321\(98\)00002-1](https://doi.org/10.1016/S1364-0321(98)00002-1).
- [4] Nieuwenhuijsen MJ. Urban and transport planning pathways to carbon neutral, liveable and healthy cities; A review of the current evidence. *Environ Int* 2020;140:105661. <https://doi.org/10.1016/J.ENVINT.2020.105661>.
- [5] Too J, Ejohwomu OA, Hui FKP, Duffield C, Bukoye OT, Edwards DJ. Framework for standardising carbon neutrality in building projects. *J Clean Prod* 2022;373:133858. <https://doi.org/10.1016/J.JCLEPRO.2022.133858>.
- [6] Sayed ET;, Olabi AG;, Alami AH;, Radwan A;, Mdallal A;, Rezk A;, et al. Renewable Energy and Energy Storage Systems. *Energies* 2023, Vol 16, Page 1415 2023;16:1415. <https://doi.org/10.3390/EN16031415>.
- [7] Chaitanya P, Upadhyay E, Deepak Singh D, Singh V. Nature Environment and Pollution Technology An International Quarterly Scientific Journal Open Access Journal Effective Contribution of Air Pollutants to Physiological and Psychological Human Diseases: A Systematic Review n.d.;21:1943–54. <https://doi.org/10.46488/NEPT.2022.v21i04.049>.
- [8] González-Eguino M. Energy poverty: An overview. *Renew Sustain Energy*

- Rev 2015;47:377–85. <https://doi.org/10.1016/J.RSER.2015.03.013>.
- [9] Perry RH, Green DW, Maloney JO. Thermodynamics: Thermodynamic Analysis Of Processes. Perry's Chem Eng Handb (Ed) Seventh, Int Ed 1997;43:34–6.
- [10] Irimia-Vladu M. “Green” electronics: Biodegradable and biocompatible materials and devices for sustainable future. *Chem Soc Rev* 2014;43:588–610. <https://doi.org/10.1039/c3cs60235d>.
- [11] Wang F, Ouyang D, Zhou Z, Page SJ, Liu D, Zhao X. Lignocellulosic biomass as sustainable feedstock and materials for power generation and energy storage. *J Energy Chem* 2021;57:247–80. <https://doi.org/10.1016/j.jechem.2020.08.060>.
- [12] Putro JN, Soetaredjo FE, Lin SY, Ju YH, Ismadji S. Pretreatment and conversion of lignocellulose biomass into valuable chemicals. *RSC Adv* 2016;6:46834–52. <https://doi.org/10.1039/C6RA09851G>.
- [13] Huber GW, Iborra S, Corma A. Synthesis of transportation fuels from biomass: Chemistry, catalysts, and engineering. *Chem Rev* 2006;106:4044–98. <https://doi.org/10.1021/CR068360D/ASSET/IMAGES/MEDIUM/CR068360DF00035.GIF>.
- [14] Hansen NML, Plackett D. Sustainable films and coatings from hemicelluloses: A review. *Biomacromolecules* 2008;9:1493–505. [https://doi.org/10.1021/BM800053Z/ASSET/IMAGES/LARGE/BM-2008-00053Z\\_0008.JPG](https://doi.org/10.1021/BM800053Z/ASSET/IMAGES/LARGE/BM-2008-00053Z_0008.JPG).
- [15] Boerjan W, Ralph J, Baucher M. Lignin Biosynthesis. *Annu Rev Plant Biol* 2003;54:519–46. <https://doi.org/10.1146/annurev.arplant.54.031902.134938>.
- [16] Figueiredo P, Santos HA. Lignin-based materials for biomedical applications.

n.d.

- [17] Schutyser W, Renders T, Van Den Bosch S, Koelewijn SF, Beckham GT, Sels BF. Chemicals from lignin: An interplay of lignocellulose fractionation, depolymerisation, and upgrading. *Chem Soc Rev* 2018;47:852–908. <https://doi.org/10.1039/c7cs00566k>.
- [18] Ekielski A, Mishra PK. Lignin for bioeconomy: The present and future role of technical lignin. *Int J Mol Sci* 2021;22:1–24. <https://doi.org/10.3390/ijms22010063>.
- [19] Yu O, Kim KH. Lignin to materials: A focused review on recent novel lignin applications. *Appl Sci* 2020;10. <https://doi.org/10.3390/app10134626>.
- [20] Xie ZH, Zhou JH, Li HM, Sun GW. Comparison between green liquor pretreatment-Kraft pulping and conventional Kraft pulping. *Adv Mater Res* 2013;781–784:2650–3. <https://doi.org/10.4028/www.scientific.net/AMR.781-784.2650>.
- [21] Öhman F, Theliander H, Norgren M, Tomani P, Axegård P. Method for separating lignin from a lignin containing liquid/slurry (Patent application WO2006038863), 2011.
- [22] Kouisni L, Holt-Hindle P, Maki K, Paleologou M. The LignoForce System<sup>TM</sup>: A new process for the production of high-quality lignin from black liquor. *Pulp Pap Canada* 2014;115:18–22.
- [23] Li T, Takkellapati S. The current and emerging sources of technical lignins and their applications. *Biofuels, Bioprod Biorefining* 2018;12:756–87. <https://doi.org/10.1002/BBB.1913>.
- [24] Fatehi P, Ni Y. Integrated forest biorefinery - Sulfite process. *ACS Symp Ser* 2011;1067:409–41. <https://doi.org/10.1021/bk-2011-1067.ch016>.
- [25] Mousavioun P, Doherty WOS. Chemical and thermal properties of

- fractionated bagasse soda lignin. *Ind Crops Prod* 2010;31:52–8. <https://doi.org/10.1016/J.INDCROP.2009.09.001>.
- [26] Pu Y, Hu F, Huang F, Davison BH, Ragauskas AJ. Assessing the molecular structure basis for biomass recalcitrance during dilute acid and hydrothermal pretreatments. *Biotechnol Biofuels* 2013;6:1. <https://doi.org/10.1186/1754-6834-6-15>.
- [27] Lindner A, Wegener G. Characterization of Lignins from Organosolv Pulping According to the Organocell Process Part 1. Elemental Analysis, Nonlignin Portions and Functional Groups. <Http://DxDiOrg/101080/02773818808070688> 2006;8:323–40. <https://doi.org/10.1080/02773818808070688>.
- [28] Schutyser W, Van Den Bosch S, Renders T, De Boe T, Koelewijn SF, Dewaele A, et al. Influence of bio-based solvents on the catalytic reductive fractionation of birch wood. *Green Chem* 2015;17:5035–45. <https://doi.org/10.1039/c5gc01442e>.
- [29] Karp EM, Nimlos CT, Deutch S, Salvachúa D, Cywar RM, Beckham GT. Quantification of acidic compounds in complex biomass-derived streams. *Green Chem* 2016;18:4750–60. <https://doi.org/10.1039/c6gc00868b>.
- [30] Luterbacher JS, Martin Alonso D, Dumesic JA. Targeted chemical upgrading of lignocellulosic biomass to platform molecules. *Green Chem* 2014;16:4816–38. <https://doi.org/10.1039/c4gc01160k>.
- [31] Gargulak JD, Lebo SE. Commercial use of lignin-based materials. *ACS Symp Ser* 1999;742:304–20. <https://doi.org/10.1021/bk-2000-0742.ch015>.
- [32] Österberg M, Sipponen MH, Mattos BD, Rojas OJ. Spherical lignin particles: A review on their sustainability and applications. *Green Chem* 2020;22:2712–33. <https://doi.org/10.1039/d0gc00096e>.
- [33] Snowdon MR, Mohanty AK, Misra M. A study of carbonized lignin as an

- alternative to carbon black. ACS Sustain Chem Eng 2014;2:1257–63. [https://doi.org/10.1021/SC500086V/ASSET/IMAGES/LARGE/SC-2014-00086V\\_0006.JPG](https://doi.org/10.1021/SC500086V/ASSET/IMAGES/LARGE/SC-2014-00086V_0006.JPG).
- [34] Gao Z, Lang X, Chen S, Zhao C. Mini-Review on the Synthesis of Lignin-Based Phenolic Resin 2021. <https://doi.org/10.1021/acs.energyfuels.1c03177>.
- [35] Linger JG, Vardon DR, Guarnieri MT, Karp EM, Hunsinger GB, Franden MA, et al. Lignin valorization through integrated biological funneling and chemical catalysis n.d. <https://doi.org/10.1073/pnas.1410657111>.
- [36] Gigli M, Crestini C. Fractionation of industrial lignins: opportunities and challenges. Green Chem 2020;22:4722–46. <https://doi.org/10.1039/d0gc01606c>.
- [37] Domínguez-Robles J, Tamminen T, Liitiä T, Peresin MS, Rodríguez A, Jääskeläinen AS. Aqueous acetone fractionation of kraft, organosolv and soda lignins. Int J Biol Macromol 2018;106:979–87. <https://doi.org/10.1016/j.ijbiomac.2017.08.102>.
- [38] Collins MN, Nechifor M, Tanasă F, Zănoagă M, McLoughlin A, Strózyk MA, et al. Valorization of lignin in polymer and composite systems for advanced engineering applications – A review. Int J Biol Macromol 2019;131:828–49. <https://doi.org/10.1016/J.IJBIMAC.2019.03.069>.
- [39] Naegele H, Pfitzer J, Ziegler L, Inone-Kauffmann ER, Eisenreich N. Applications of Lignin Materials and Their Composites (Lignin Applications in Various Industrial Sectors, Future Trends of Lignin and Their Composites). Lignin Polym Compos 2016;233–44. <https://doi.org/10.1016/B978-0-323-35565-0.00013-8>.
- [40] Engelmann G, Ganster J. Lignin Reinforcement in Thermosets Composites. Lignin Polym Compos 2016;119–51. <https://doi.org/10.1016/B978-0-323-35565-0.00007-2>.

- [41] Rangan A, Manjula M V., Satyanarayana KG, Menon R. Lignin/Nanolignin and Their Biodegradable Composites. *Biodegrad Green Compos* 2016;167–98. <https://doi.org/10.1002/9781118911068.CH7>.
- [42] Kłapiszewski Ł, Szalaty TJ, Graś M, Moszyński D, Buchwald T, Lota G, et al. Lignin-based dual component additives as effective electrode material for energy management systems. *Int J Biol Macromol* 2020;165:268–78. <https://doi.org/10.1016/J.IJBIOMAC.2020.09.191>.
- [43] Hannan MA, Wali SB, Ker PJ, Rahman MSA, Mansor M, Ramachandaramurthy VK, et al. Battery energy-storage system: A review of technologies, optimization objectives, constraints, approaches, and outstanding issues. *J Energy Storage* 2021;42:103023. <https://doi.org/10.1016/J.EST.2021.103023>.
- [44] Guney MS, Tepe Y. Classification and assessment of energy storage systems. *Renew Sustain Energy Rev* 2017;75:1187–97. <https://doi.org/10.1016/J.RSER.2016.11.102>.
- [45] Baboo JP, Jakubczyk E, Yatoo MA, Phillips M, Grabe S, Dent M, et al. Investigating battery-supercapacitor material hybrid configurations in energy storage device cycling at 0.1 to 10C rate. *J Power Sources* 2023;561:232762. <https://doi.org/10.1016/j.jpowsour.2023.232762>.
- [46] Goodenough JB. Electrochemical energy storage in a sustainable modern society. *Energy Environ Sci* 2013;7:14–8. <https://doi.org/10.1039/C3EE42613K>.
- [47] Kotal M, Jakhar S, Roy S, Sharma HK. Cathode materials for rechargeable lithium batteries: Recent progress and future prospects. *J Energy Storage* 2022;47. <https://doi.org/10.1016/J.EST.2021.103534>.
- [48] Su X, Xu Y, Wu Y, Li H, Yang J, Liao Y, et al. Liquid electrolytes for low-temperature lithium batteries: main limitations, current advances, and

- future perspectives. Energy Storage Mater 2023;56:642–63.  
<https://doi.org/10.1016/J.ENS.2023.01.044>.
- [49] Dai X, Zhang X, Wen J, Wang C, Ma X, Yang Y, et al. Research progress on high-temperature resistant polymer separators for lithium-ion batteries. Energy Storage Mater 2022;51:638–59.  
<https://doi.org/10.1016/J.ENS.2022.07.011>.
- [50] Das P, Thompson BC. Development of design strategies for conjugated polymer binders in lithium-ion batteries. Polym J 2022;317–41.  
<https://doi.org/10.1038/s41428-022-00708-x>.
- [51] Budnyak TM, Slabon A, Sipponen MH. Lignin-Inorganic Interfaces: Chemistry and Applications from Adsorbents to Catalysts and Energy Storage Materials. ChemSusChem 2020;13:4344–55.  
<https://doi.org/10.1002/cssc.202000216>.
- [52] Chen W-J, Zhao C-X, Li B-Q, Yuan T-Q, Zhang Q. Lignin-derived materials and their applications in rechargeable batteries. Green Chem 2022;565–84.  
<https://doi.org/10.1039/d1gc02872c>.
- [53] Pasquier A Du, Disma F, Bowmer T, Gozdz AS, Amatucci G, Tarascon J -M. Differential Scanning Calorimetry Study of the Reactivity of Carbon Anodes in Plastic Li-Ion Batteries. J Electrochem Soc 1998;145:472–7.  
<https://doi.org/10.1149/1.1838287>.
- [54] Salado M, Lizundia E, Oyarzabal I, Salazar D. The Role of Critical Raw Materials for Novel Strategies in Sustainable Secondary Batteries 2022.  
<https://doi.org/10.1002/pssa.202100710>.
- [55] Kaipannan S, Govindarajan K, Sundaramoorthy S, Marappan S. Waste Toner-Derived Carbon/Fe3O4 Nanocomposite for High-Performance Supercapacitor. ACS Omega 2019;4:15798–805.  
<https://doi.org/10.1021/acsomega.9b01337>.

- [56] Karnan M, Raj AGK, Subramani K, Santhoshkumar S, Sathish M. The fascinating supercapacitive performance of activated carbon electrodes with enhanced energy density in multifarious electrolytes. *Sustain Energy Fuels* 2020;4:3029–41. <https://doi.org/10.1039/c9se01298b>.
- [57] Zhang K, Liu M, Zhang T, Min X, Wang Z, Chai L, et al. High-performance supercapacitor energy storage using a carbon material derived from lignin by bacterial activation before carbonization. *J Mater Chem A* 2019;7:26838–48. <https://doi.org/10.1039/c9ta04369a>.
- [58] Tong Y, Yang J, Li J, Cong Z, Wei L, Liu M, et al. Lignin-derived electrode materials for supercapacitor applications: progress and perspectives. *J Mater Chem A* 2022;11:1061–82. <https://doi.org/10.1039/d2ta07203c>.
- [59] Menezes F, Nascimento V, Gomes G, Strauss M, Junqueira T, Rocha GJM, et al. Depolymerization of enzymatic hydrolysis lignin: review of technologies and opportunities for research. *Fuel* 2023;342:127796. <https://doi.org/10.1016/j.fuel.2023.127796>.
- [60] Chatterjee S, Saito T. Lignin-Derived Advanced Carbon Materials. *ChemSusChem* 2015;8:3941–58. <https://doi.org/10.1002/cssc.201500692>.
- [61] Rębiś T, Nilsson TY, Inganäs O. Hybrid materials from organic electronic conductors and synthetic-lignin models for charge storage applications. *J Mater Chem A* 2016;4:1931–40. <https://doi.org/10.1039/C5TA06821E>.
- [62] Yang W, Wang X, Jiao L, Bian H, Qiao Y, Dai H. Synthetic polymers based on lignin-derived aromatic monomers for high-performance energy-storage materials. *J Mater Chem A* 2020;8:24065–74. <https://doi.org/10.1039/D0TA08635E>.
- [63] Milczarek G, Inganäs O. Renewable cathode materials from biopolymer/conjugated polymer interpenetrating networks. *Science (80- )* 2012;335:1468–71. <https://doi.org/10.1126/science.1215159>.

- [64] Ajjan FN, Jafari MJ, Rębiś T, Ederth T, Inganäs O. Spectroelectrochemical investigation of redox states in a polypyrrole/lignin composite electrode material. *J Mater Chem A* 2015;3:12927–37. <https://doi.org/10.1039/c5ta00788g>.
- [65] Leguizamon S, Díaz-Orellana KP, Velez J, Thies MC, Roberts ME. High charge-capacity polymer electrodes comprising alkali lignin from the Kraft process. *J Mater Chem A* 2015;3:11330–9. <https://doi.org/10.1039/c5ta00481k>.
- [66] Bober P, Gavrilov N, Kovalcik A, Mičušík M, Unterweger C, Pašti IA, et al. Electrochemical properties of lignin/polypyrrole composites and their carbonized analogues. *Mater Chem Phys* 2018;213:352–61. <https://doi.org/10.1016/J.MATCHEMPHYS.2018.04.043>.
- [67] Hong N, Qiu X, Deng W, He Z, Li Y. Effect of aggregation behavior and phenolic hydroxyl group content on the performance of lignosulfonate doped PEDOT as a hole extraction layer in polymer solar cells. *RSC Adv* 2015;5:90913–21. <https://doi.org/10.1039/C5RA19676K>.
- [68] Navarro-Suárez AM, Casado N, Carretero-González J, Mecerreyes D, Rojo T. Full-cell quinone/hydroquinone supercapacitors based on partially reduced graphite oxide and lignin/PEDOT electrodes. *J Mater Chem A* 2017;5:7137–43. <https://doi.org/10.1039/c7ta00527j>.
- [69] Hong N, Xiao J, Li Y, Li Y, Wu Y, Yu W, et al. Unexpected fluorescent emission of graft sulfonated-acetone-formaldehyde lignin and its application as a dopant of PEDOT for high performance photovoltaic and light-emitting devices. *J Mater Chem C* 2016;4:5297–306. <https://doi.org/10.1039/C6TC01170E>.
- [70] Roy S, Fortier JM, Nagarajan R, Tripathy S, Kumar J, Samuelson LA, et al. Biomimetic Synthesis of a Water Soluble Conducting Molecular Complex of Polyaniline and Lignosulfonate 2002. <https://doi.org/10.1021/bm0255138>.

- [71] Xu H, Jiang H, Li X, Wang G. Synthesis and electrochemical capacitance performance of polyaniline doped with lignosulfonate. RSC Adv 2015;5:76116–21. <https://doi.org/10.1039/C5RA12292A>.
- [72] Dianat N, Rahmanifar MS, Noori A, El-Kady MF, Chang X, Kaner RB, et al. Polyaniline-Lignin Interpenetrating Network for Supercapacitive Energy Storage. Nano Lett 2021;21:9485–93. [https://doi.org/10.1021/ACS.NANOLETT.1C02843/SUPPL\\_FILE/NL1C02843\\_SI\\_001.AVI](https://doi.org/10.1021/ACS.NANOLETT.1C02843/SUPPL_FILE/NL1C02843_SI_001.AVI).
- [73] Zhao M, Wang J, Chong C, Yu X, Wang L, Shi Z. An electrospun lignin/polyacrylonitrile nonwoven composite separator with high porosity and thermal stability for lithium-ion batteries 2015. <https://doi.org/10.1039/c5ra19371k>.
- [74] Uddin MJ, Alaboina PK, Zhang L, Cho SJ. A low-cost, environment-friendly lignin-polyvinyl alcohol nanofiber separator using a water-based method for safer and faster lithium-ion batteries. Mater Sci Eng B Solid-State Mater Adv Technol 2017;223:84–90. <https://doi.org/10.1016/j.mseb.2017.05.004>.
- [75] Song A, Huang Y, Zhong X, Cao H, Liu B, Lin Y, et al. Novel lignocellulose based gel polymer electrolyte with higher comprehensive performances for rechargeable lithium-sulfur battery. J Memb Sci 2018;556:203–13. <https://doi.org/10.1016/j.memsci.2018.04.003>.
- [76] Qiu F, Huang Y, Luo C, Li X, Wang M, Cao H. An Acid-Resistant Gel Polymer Electrolyte Based on Lignocellulose of Natural Biomass for Supercapacitors. Energy Technol 2020;8:1–12. <https://doi.org/10.1002/ente.202000009>.
- [77] Luo C, Huang Y, Yin Z, Xu H, Qin X, Li X, et al. A universal natural hydroxy propyl methyl cellulose polymer additive for modifying lignocellulose-based gel polymer electrolytes and stabilizing lithium metal anodes. Mater Chem Phys 2020;250:123174. <https://doi.org/10.1016/j.matchemphys.2020.123174>.

- [78] Ren W, Huang Y, Xu X, Liu B, Li S, Luo C, et al. Gel polymer electrolyte with high performances based on polyacrylonitrile composite natural polymer of lignocellulose in lithium ion battery. *J Mater Sci* 2020;55:12249–63. <https://doi.org/10.1007/s10853-020-04888-w>.
- [79] Deng X, Huang Y, Song A, Liu B, Yin Z, Wu Y, et al. Gel polymer electrolyte with high performances based on biodegradable polymer polyvinyl alcohol composite lignocellulose. *Mater Chem Phys* 2019;229:232–41. <https://doi.org/10.1016/j.matchemphys.2019.03.014>.
- [80] Song A, Huang Y, Liu B, Cao H, Zhong X, Lin Y, et al. Gel polymer electrolyte based on polyethylene glycol composite lignocellulose matrix with higher comprehensive performances. *Electrochim Acta* 2017;247:505–15. <https://doi.org/10.1016/j.electacta.2017.07.048>.
- [81] Song A, Huang Y, Zhong X, Cao H, Liu B, Lin Y, et al. Gel polymer electrolyte with high performances based on pure natural polymer matrix of potato starch composite lignocellulose. *Electrochim Acta* 2017;245:981–92. <https://doi.org/10.1016/j.electacta.2017.05.176>.
- [82] Han JY, Huang Y, Chen Y, Song AM, Deng XH, Liu B, et al. High-Performance Gel Polymer Electrolyte Based on Chitosan–Lignocellulose for Lithium-Ion Batteries. *ChemElectroChem* 2020;7:1213–24. <https://doi.org/10.1002/celc.202000007>.
- [83] Shabanov NS, Rabadanov KS, Gafurov MM, Isaev AB, Sobola DS, Suleimanov SI, et al. Lignin-based gel polymer electrolyte for cationic conductivity. *Polymers (Basel)* 2021;13:1–13. <https://doi.org/10.3390/polym13142306>.
- [84] Liu B, Huang Y, Cao H, Song A, Lin Y, Wang M, et al. A high-performance and environment-friendly gel polymer electrolyte for lithium ion battery based on composited lignin membrane. *J Solid State Electrochem* 2018;22:807–16. <https://doi.org/10.1007/S10008-017-3814-X/FIGURES/8>.

- [85] Koda K, Taira S, Kubota A, Isozaki T, You X, Uraki Y, et al. Development of Lignin-Based Terpolyester Film and Its Application to Separator Material for Electric Double-Layer Capacitor. *J Wood Chem Technol* 2019;0:1–161.
- [86] Almenara N, Gueret R, Huertas Alonso A, Veetttil U, Sipponen M, Lizundia E. Lignin–Chitosan Gel Polymer Electrolytes for Stable Zn Electrodeposition. *ACS Sustain Chem Eng* 2023;0:null-null. <https://doi.org/10.1021/acssuschemeng.2c05835>.
- [87] Baroncini EA, Stanzione JF. Incorporating allylated lignin-derivatives in thiol-ene gel-polymer electrolytes. *Int J Biol Macromol* 2018;113:1041–51. <https://doi.org/10.1016/J.IJBIOMAC.2018.02.160>.
- [88] Baroncini EA, Rousseau DM, Strekis CA, Stanzione JF. Viability of Low Molecular Weight Lignin in Developing Thiol-Ene Polymer Electrolytes with Balanced Thermomechanical and Conductive Properties. *Macromol Rapid Commun* 2021;42:1–9. <https://doi.org/10.1002/marc.202000477>.
- [89] Zhou B, Li J, Liu W, Jiang H, Li S, Tan L, et al. Functional-Group Modification of Kraft Lignin for Enhanced Supercapacitors. *ChemSusChem* 2020;13:2628–33. <https://doi.org/10.1002/cssc.201903435>.
- [90] Ail U, Phopase J, Nilsson J, Khan ZU, Inganäs O, Berggren M, et al. Effect of Sulfonation Level on Lignin/Carbon Composite Electrodes for Large-Scale Organic Batteries. *ACS Sustain Chem Eng* 2020;8:17933–44. [https://doi.org/10.1021/ACSSUSCHEMENG.0C05397/ASSET/IMAGES/LARGE/SC0C05397\\_0008.JPG](https://doi.org/10.1021/ACSSUSCHEMENG.0C05397/ASSET/IMAGES/LARGE/SC0C05397_0008.JPG).
- [91] Chaleawlert-umpon S, Liedel C. More sustainable energy storage: Lignin based electrodes with glyoxal crosslinking. *J Mater Chem A* 2017;5:24344–52. <https://doi.org/10.1039/c7ta07686j>.

---

## **2. HELBURUAK**



Tesiaren helburu orokorra lignina mota desberdinak energia biltegiratze gailuetan erabiltzeko balioztatzea da. Horretarako, tratamendu eta modifikazio desberdinak diseinatu eta burutu ziren, eta lortutako produktuak behar bezala karakterizatu ziren, helburu bezala hartutako aplikaziorako bere egitura eta funtzionalitatea zehatztuz.

Ikerketa atal desberdinetan banandu zen, hauetako bakoitza helburu espezifiko batean zentratuz:

- Lignina mota desberdinen erauzketa eta frakzionamendu edo zatiketa disolbatzaile organiko bidezko erauzketa metodo bera erabiliz, ezaugarri fisikokimiko desberdineko zati homogeneoagoak lortzeko..
- Lignina eraldatzeko erreakzio kimiko desberdinak burutu, errendimendu hobeagoko energia biltegiratze elektrokimikoen material bezala erabili ahal izateko. Alde batetik, oxidatutako lignina nanopartikulen ekoizpenerako prozedura berri bat diseinatu eta burutu zen. Bestalde, modu desberdinean funtzionalizatutako ligninak (karboximetilatua, sulfometilatua eta metilatua) aztertu ziren.
- Lignina-karbono konposite desberdinen prestaketa eta karakterizazioa kapazitate handiagoko SC edo baterien material aktibo bezala erabiltzeko.
- LIB-en elektrodo anodikoen prestaketa lignina mota desberdinak, lignina frakzioak eta modifikazioak aglutinatzalea bezala erabiliz.

Aipatutako helburu espezifikoak lortzeko, prozedura eta teknika desberdinak erabili ziren, lan bakoitzarentzako esanguratsuenak aukeratuz, eta tesiaren atal desberdinetan azalduz.

## **2.1. TESIAREN LABURPENA**

Tesia atal desberdinan dago zatitua, proposatutako helburuak lortzeko.

Jada azaldutako lehen atalean sarrera orokor bat eta gaur egungo egoeraren oinarriak azaldu dira. Aribidean dauden ingurumen arazoak deskribatu dira, eta energiaren jasangarritasuna lor daitekeen aukera bezala aurkeztu da. Energia biltegiratze gailuetan kostu baxuko eta jasangarriak diren materialen erabilpenaren beharra azaldu da, trantsizio berderako gako direnak, material lignozelulosikoetan, bereziki ligninan, sakonduz material jasangarrien aitzindari bezala.

Hirugarren atalean tesian zehar burututako metodo eta teknika desberdinak azaltzen dira. Erabilitako lehengai lignozelulosikoen, erauzitako likoreen, eta hauspeautako ligninen karakterizazio metodoak azaltzen dira. Karakterizazio metodo kimiko, fisikokimiko, termokimiko, morfologiko eta elektrokimiko desberdinak ere gehitzen dira. Horrez gain, neurketa elektrokimikoetan erabilitako sistema desberdinak eta neurketak deskribatzen dira.

Laugarren atalean disolbatzaile organikoen bidezko erauzketa metodoa (SOSE) diseinatzen da, eta Kraft eta organosolv ligninetatik lortutako frakzioak azaldu eta karakterizatzen dira, metodo kimiko, fisikokimiko, eta termokimiko bitartez: FTIR, GPC, UV,  $^{31}\text{P}$  NMR, Py-GC/MS, TGA, eta DSC.

Bosgarren atalean lignina eraldatzeko burututako erreakzio kimiko desberdinak azaltzen dira. Atala bi azpiataletan banatzen da. Lehena ligninaren oxidazioan dago oinarritua. Lan hau ligninaren funtzionalitatea hobetzen dago zentratua, bere osotasuna mantenduz, eta degradazio eta despolimerizazio erreakzioak saihestuz. Horretarako, oxidazio baldintza malguak aukeratu ziren, ultrasoinu irradiazioekin areagotuak, eta lortutako

lignina nanopartikula oxidatuak FTIR, GPC, EA, UV,  $^{31}\text{P}$  NMR, TGA, DSC, DLS, eta TEM tekniken bitartez karakterizatu ziren. Bigarren azpiatala modifikazio mota desberdinan zentratzen da ligninaren hidroxilo eta talde karboxilikoen kopurua handitu beharrean, hauek erreakzionaraziz lignina metilatua, karboximetilatua edo sulfometilatua lortzeko. Lignina eraldatu hauek FTIR, GCP,  $^{31}\text{P}$  NMR,  $^{13}\text{C}$  NMR, DLS, eta TGA tekniken bitartez karakterizatu ziren.

Seigarren atala lignina-karbono konposite desberdinak lortzeko diseinatu da. Horretarako, bi carbono desberdin erabili ziren, carbono aktibatua eta grafitoa, eta kimikoki aktibatu eta Kraft eta organosolv ligninak jalki ziren carbonoengen geruzetan. Ligninen adizioak ezaugarri elektrokimikoak hobetu zituela aztertu zen. Lortutako konpositeak FTIR, EA, XPS, BET, DLS, AFM, SEM, CV, EIS, eta GCD tekniken bidez karakterizatu ziren.

Zazpigaren atalean, bosgarren atalean lortutako lignina eraldatuak LIB- en elektrodo anodikoaren formulazioan gehitu ziren. Errendimendu elektromikoa eta bateriaren egonkortasuna aztertu ziren, CV, EIS eta GCD neurketen bidez.

Zortzigarren eta azken atalean, ondorio nagusiak eta ikerketa honen aipamen nagusiak azaltzen dira, etorkizunek lan posibileen ikuspuntua eta lan honetatik eratorritako produkzio zientifikoa ere aipatzen direlarik.



---

### **3. METODOLOGIA**



## **3.1. LEHENGAIAK**

Tesian zehar bi lignina mota erabili dira, Kraft-a eta organosolv-a. Kraft lignina bertako paper-industriatik (Zikuñaga S.A.U., Hernani) hornitutako likore beltzetik erauzi zen, *Eucalyptus globulus*-etik eratorria. Organosolv lignina *Eucalyptus globulus* zur zatietatik erauzi zen laborategian, hauek ere Zikuñanak hornitua.

## **3.2. KARAKTERIZAZIO METODOAK**

### **3.2.1. LEHENGAIEN KARAKTERIZAZIOA**

Eukalipto zatiak Paper-ore eta paper industriaren asoziazio teknikoaren (TAPPI) eta Energia berriztagarriaren laborategi nazionalaren (NREL) metodo estandarizatu eta protokoloak jarraituz karakterizatu ziren.

Hezetasun, errauts, estraktu, azidotan disolbaezina den lignina (AIL), azidotan disolbagarria den lignina (ASL), azukre, hemizelulosa, eta lignina edukiak determinatu ziren ANNEX I-ean jarraitutako prozeduren bitartez.

### **3.2.2. LIKOREEN KARAKTERIZAZIOA**

Zikuñagak hornitutako Kraft likorea eta organosolv likoreak ligninaren erauzketa burutu baino lehen karakterizatu ziren. pH-a PH BASIC 20 m bat erabiliz determinatu zen. Dentsitatea grabimetrikoki kalkulatu zen. Eduki solido totala eta eduki ez-organikoa TAPPI T650 [1] eta TAPPI T211 [2] estandarren bidez determinatu ziren, hurrenez hurren. Bestalde, eduki organikoa, eduki solido totalaren eta ez-organikoarena arteko kenketa eginez lortu zen.

### **3.2.3. LIGNINA ETA LIGNINA KONPOSITEEN KARAKTERIZAZIOA**

Lignina laginak teknika desberdinak erabiliz karakterizatu zen. Alde batetik, laginen konposizio kimikoa purutasunaren kalkuluaren bitartez kalkulatu zen, AIL, ASL, ikatza, eta errautsa edukia determinatuz. Horrez gain, analisi elementala burtu zen, eta C, N, O, H, eta S portzentaiak determinatu ziren.

Ezaugarri fisikokimikoak ere aztertu ziren. Talde funtzional nagusiak Fourier-en transformatu bidezko espektroskopia infragorri (FTIR) bidez identifikatu ziren, pisu molekularra eta polisakabanatze-maila balioak gel bidezko iragazte-kromatografia (GPC) bidez lortu ziren, S/G ratioak pirolisi-gas-kromatografia/masa-espektrometria (Py-GC/MS) bidez, hidroxilo edukia ikusgai-ultramore espektro (UV-vis) metoden bidez eta fosforo-31 erresonantzia magnetiko nuklearren espektro ( $^{31}\text{P}$  NMR) bidez. Egitura kimikoaren analisia karbono-13 erresonantzia magnetiko nuklearren espektro ( $^{13}\text{C}$  NMR) eta X-izpi fotoelektroi-espektroskopia (XPS) bidez sakondu zen, konposizio kimikoa determinatuz.

Ezaugarri termikoak analisi termograbiometriko (TGA) eta ekortze-kalorimetria diferentzial (DSC) bidez analizatu ziren.

Ezaugarri morfologikoak argi-dispersio dinamiko (DLS), indar atomikozko mikroskopio (AFM), ekorketazko mikroskopio elektroniko (SEM) eta transmisiozko mikroskopio elektroniko (TEM) bidez determinatu ziren.

ANNEX I-ean dago ikusgai erabilitako ekipamendu eta metodologien azalpen sakonago bat.

## **3.3. KARAKTERIZAZIO ELEKTROKIMIKOA**

### **3.3.1. MATERIAL AKTIBOEN KARAKTERIZAZIOA**

#### **3.3.1.1. Voltametria ziklikoa (CV)**

CV karakterizazio kimikorako tresna baliogarria da, kimika analitikoa, materialen zientzia eta biokimika bezalako arloetan erabilia. Erredox erreakzioak karakterizatzeko erabiltzen da, erredox potentzialak determinatzeko, erreakzio mekanismo desberdinak ulertzeko, eta material desberdinen portaera elektrokimika aztertzeko. Horretarako, elektrodoari karga potentzial lineal bat aplikatzen zaio, hasierako eta bukaerako potentzial balioen artean aurrera eta atzera mugitzu.

Espezie elektroaktiboen arabera voltamograma desberdinak lortzen dira, gordetako korronte-potentzial balioak erakusten baitira kurba modura. Voltamogramaren formak gertatutako erreakzioen eta hauen itzulkortasunaren araberako informazioa eman dezake. Tontor anodikoek oxidazio erreakzioak adierazten dituzte, tontor katodikoek erreduktzio erreakzioak erakusten dituztelarik. Erredox erreakzio hauek itzulgarriak badira, bi tontorrak ongi definituak egongo dira, eta potentzial balio bera erakutsiko dute, hau baita korronte maximoa gertatzen den puntu. Erreakzio itzulgaitzen kasuan, potentzial tontorrak desberdinak eta gutxiago definituak izango dira. Horrez gain, korronte tontorra potentzial estandarrarekin erlazionatuak daude eta espezie elektroaktiboen kontzentrazioaren proportzionalak dira. Tontorren forma eta posizioak erreakzio elektrokimikoen zinetika eta mekanismoari buruzko informazioa eman dezake [3].

### **3.3.1.2. Inpedantzia-espektroskopia elektrokimikoa (EIS)**

EIS-a beste teknika elektrokimiko bat da, eta propietateak maiztasun funtzioan aztertzen dira. CV-arekin ez bezala, korronte alternoa ezartzen da, eta emaitza bezala emandako tentsioa erregistratzen da bi hauen arteko erlaziona analizatuz, erresistentzia era kapazitatea bezalako ezaugarriak lor daitezkeelarik. Lortutako inpedantzia espektroak gertatzen diren karga transferentzia eta masa garraioa bezalako prozesu elektrokimikoei buruzko informazioa sakontzeko erabil daiteke.

Inpedantzia ezaugarri konplexua da, sistemak korronte alternoaren fluxuarekiko sortutako oposizioa adierazten du larik. Bi elementuz osatuta dago: erresistentzia eta erreaktantzia. Azken hau kapazitantzia eta induktantzia osagaietan bana daiteke. Korrosioa, erreksioko elektrokimikoak eta ioi garraioa bezalako prozesuak aztertzeko ezaugarri hauek ezagutzea baliogarriak dira, elektrokimika (erregai-pila, bateriak, sentsoreak...), materialen zientzia eta biomedikuntza bezalako diciplina desberdinatetan aplikatu ahal delarik.

Inpedantzia datuak irudikatzeko modu ohikoenak Nyquist eta Bode diagramen bitartez da, zirkuitua eta osagaieikin erlazionatuak baitaude. Inpedantzia parametro konplexua denez, Nyquist diagrama zati erreals eta irudikarioaren bitartez irudikatzen da, maiztasun tarte espezifiko batean. Zati erreala abzisan eta irudikaria ordenatu-ardatzean irudikatzen dira. Korronte eremu baxuetan, kondentsadoreen inpedantzia balioak oso altuak dira, korronte-eremu altuetan inpedantzia balioa zero kontsidera daitezkeelarik. Balio ertainetan, bai zati erreals zein irudikaria dira ikusgai. Nyquist diagrama korronte altuetatik (ezkerra) baxuetara (eskuin) mugitzen da, eta gertatzen diren prozesuak identifikatzeko lagungarri izan daiteke, ezaugarri desberdinak espektroko eskualde desberdinei dagokielarik. Korronte altuko eskualdeak disoluzioaren erresistentziarekin

lotuta egon ohi da, korronte baxuak elektrodo zinetika edo difusio prozesuekin lotuta dauden bitartean.

Korrontearren informazioa behatu behar denean, Bode diagramak erabiltzen dira. Bode diagramak bi grafiko desberdinez daude osatuak: batek sistemaren erantzuna erakusten du korronte funtzió bezala (magnitude diagrama bezala ezagutua), besteak erantzunaren fase-angelua korrontearren funtzió bezala erakusten duelarik (fase diagrama). Magnitude diagramak korronte desberdinaren zehar sistemak irabazitako ezaugarriak erakusten ditu, fase diagramak sarrerako eta irteerako seinaleen atzerapen denborak ematen dituelarik. Inpedantzia datuak irudikatzeko modu hau sistemaren egonkortasun eta fase ezaugarriak identifikatzeko baliogarria da.

EIS-an erabilitako beste teknika bat, sistema konplexu baten portaera elektrikoa deskribatzeko erabilia bereziki, zirkuitu ekibalentzia modeloa (ECM) da. Modelo hauek sistemaren ezaugarri fisiko eta elektrokimikoak irudikatzen ditu, sistemaren ezaugarriak islatzen dituen konektatutako osagai elektriko desberdinez (erresistore, kapazitore, induktore...) konfiguratura. Osagai bakoitza parametro batzuekin erlazionatzen da, korrontearren mendekoa edo banandua. Parametro hauen determinaziorako, doikuntza prozesu bat behar da, inpedantzia balio esperimentalen eta kalkulatuen arteko desberdintasunak minimizatzeko. Modelo doitua Nyquist eta Bode diagrametatik ateratako balioekin aldera daitezke, modeloaren zehaztasuna egiazatzeko [3].

### 3.3.1.3. Karga/deskarga galvanostatikoa (GCD)

GCD beste teknika elektrokimiko bat da, bateria eta supereroaleen energia biltegiratzeko ezaugarriak (energia biltegiratzeko kapazitatea, efizientzia, eta portaera) karakterizatzeko erabilia bereziki. Neurketak burutzeko,

korronte konstante bat eman edo absorbatzen duen iturri batekin konektatzen da sistema. Sistemari korrontea emandakoan, energia biltegiratu egiten da, ondorioz, sistema kargatz. Korrontea absorbatzean, ordea, energia askatu egiten da, sistemaren deskarga eraginez. Karga prozesuan zehar, tentsioa gradualki igotzen da, tentsio limitera iritsi arte. Limite hau sistemaren arabera erabakitzentz da, gainkarga ekiditeko. Karga prozesuaren ondoren, korrontea aldatu egiten da, gailua deskargatzeko, gordetako energia askatuz, eta espezifikatutako korronte minimorainoko tentsio jaitsiera eraginez.

Karga eta deskargen arteko korrontea gorde egiten da, eta gordetako energia eta askatutako energiaren artean konparaketa egiten da, gailuaren energia efizientzia determinatu ahal izateko. Horrez gain, barne erresistentziaren ondorioz galduztako energia ere kalkula daiteke. GCD esperimentuak abiadura desberdinatan burutu daitezke, gailuaren kapazitate abiadura neurtzeko, eta gailuak eskaera handiko baldintzetan (abiadura azkarretan) bere errendimendua mantentzen duen jakiteko. Azkenik, hainbat karga eta deskarga ziklo burutuz, gailuaren bizi-zikloa determina daiteke, bere degradazio mekanismo posibleak determinatzeaz gain.

### **3.3.2. NEURKETEN KONFIGURAZIOA**

Prozesu elektrokimikoak aztertu eta analizatzeko konfigurazio esperimental desberdinak daude. Ikertu nahi den fenomeno elektrokimikoaren arabera, konfigurazio apropos desberdinak daude. Tesi honetan, bi konfigurazio desberdin erabili ziren.

#### **3.3.2.1. Hiru elektrodoz osatutako beirazko zelda**

Hiru elektrodoz osatutako beirazko zelda neurketa elektrokimikoak burutzeko erabili zen. Zelta bi oinarrizko elektrodoz (lan-elektrodoa (WE)

eta kontrako elektrodoa (CE)), eta erreferentzia elektrodo batez (RE) osatu zen. Hiru elektrodoak elektrolito batean murgildu ziren, sistemako elektroi eta ioiei fluxu bide bat emanez. Fluxu hau erreakzio kimikoetan askatutako elektroi eta ioien ondorioz sortu zen, energia kimikoa energia elektrikoa bilakatzen dutelarik.

Hiru elektrodoz osatutako sistemaren kasuan, tentsioa RE eta WE-en artean neurten da.

### Lan-elektrodoa


Ikertzen den erreakzio elektrokimikoa lan-elektrodoan gertatzen da. Materialak aztertzeko erabiltzen da, eta elektrodoa, edo katalizatzaile espezifiko batekin estalitako beste edozein geruza analizatu daiteke, geruzan gertatzen diren erreakzio elektrokimikoak aztertuz. Horregatik, sintetizatutako material konpositeak lan-elektrodo bezala erabili ziren.

### Erreferentiazko elektrodoa

WE-aren potentziala RE-aren potentzialaren aurka neurten da, jada jakina eta egonkorra dena. RE mota desberdinak daude, eta behar esperimental eta neurketaren konfigurazioaren arabera aukeratzen dira. RE-ak elektrolitoarekin baterakorra, behar den potentzial tartearen egokia, egonkorra eta zehatza izan behar da.

RE erabilienak kalomel saturatuzko elektrodoak (SCE) eta zilar/zilar kloruro (Ag/AgCl) elektrodoak dira.

Neurketetarako aukeratutako RE-a Ag/AgCl elektrodoa izan zen, eta Ekuazio 3.1-ean ageri den erreakzioa gertatzen da bertan:



Ek.3.1

## **Kontrako elektrodoa**

CE-ak zirkuituan zehar korrontea mugitzeko bidea ematen du, korrontea WE eta RE-en artean mugitzeko, WE-an sortutako korrontea orekatzeko. Polarizazio efektuak minimizatzen ditu eta erresistentzia baxua ematen du, hortaz, eroankortasun elektriko handia izan behar du, kimikoki inertea eta egonkorra izateaz gain. CE erabilienak platinoa (Pt), grafitoa, karbono beira eta urea dira. Aukeratutako CE-a Pt izan zen.

## **Elektrolitoa**

Elektrolito mota desberdinak daude, esperimentuaren arabera behar bezala aukeratu behar direnak. Elektrolito mota ohikoak potasio kloruro (KCl), sodio sulfato ( $\text{Na}_2\text{SO}_4$ ), azido diluitu ( $\text{H}_2\text{SO}_4$ ) edo base ( $\text{NaOH}$ ) akuosoak dira. Disolbatzaile organikoak edo likido ionikoak, bestalde, modu zabalean erabilitako elektrolito ez akuosoak dira. Beste elektrolito batzuk espezifikoagoak dira, tetrabutilamonio perkloratoa (TBAP) edo tetraetilamonio tetrafluoroboratoa (TEABF<sub>4</sub>) bezalako gatzak, edo litio ioi edo kloruro ioiak dituzten elektrolitoz osatuak.

Hiru elektrodoz osatutako zeldan azido perklorikoa ( $\text{HClO}_4$ ) erabili zen elektrolito modura, leihoko elektrokimiko zabal, disolbagarritasun akuoso ona, eta higroskopikotasun baxua dela eta. 0.1 M-ko kontzentrazioa erabili zen, ioien migrazioa ekiditen duena eta eroankortasun ioniko nahikoa duena [4].

### **3.3.2.2. Bi elektrodoz osatutako erdi zeldak**

$\text{Li}^+$  and  $\text{Na}^+$  metalez osatutako baterientzako material berrien ikerketa elektrokimikoak bi elektrodoz osatutako erdi zeldak erabiliz burutzen da, muntaketa errazaren eta lortzen den egonkortasun egokiaren ondorioz. Neurketa simplifikatuak burutzeko eta elektrodo materialen izaera elektrokimikoa ebaluatzeko erabiltzen dira, hala nola elektroaktibitatea,

egonkortasuna, eta aktibilitate katalitikoa. Tesi honetan Swagelok zeldak eta 2032 zelda botoiak erabili ziren, ANNEX I-ean sakonago azalduak.

Bi elektrodoz osatutako erdi zeldak lan-elektrodo eta kontrako elektrodo batez osatuak daude. WE-a erreakzio kimikoa gertatzen den tokia da, CE-a korrontea mugitzeko bidea ematen duelarik, zirkuitua osatuz eta WE-an sortutako korrontea orekatuz.

Konfigurazio hauek ebaluaziorako ikerketa sinplifikatuetan erabiltzen da, hoala nola elektrodo materialen azterketetan. Honela, elektroaktibitatea, egonkortasuna, eta aktibilitate katalitikoa bezalako ezaugarriak ondorioztatzen dira, erredox erreakzioak aztertzeaz, edo substratu baten gainean burututako jalkitze elektrolitiko eta estalketa elektrolitikoak ikertzeaz gain.

Litio ioi baterietan erabilitako WE ohiko bat LiFePO<sub>4</sub>-a da. Katodo material gisa erabili izan ohi da, eta bere egonkortasun, segurtasun, eta errendimendu elektrokimiko ona dela eta erabiltzen da horrenbeste. LiFePO<sub>4</sub> elektrodoarekin grafitoa eta beste karbono material edo polimero eroaleak konfiguratzten dira

Materialen aukeraketa hau erabilitako elektrolitoaren menpeko da. Izan ere, nahi gabeko erreakzioak edo degradazioa eragiten duten erreakzioak gertatzen ez direla ziurtatu behar da. Horrez gain, eroankortasun elektrikoa egokia izan behar da, eroankortasun elektriko eta egonkortasun ona emanez. Elektrolitoa normalean disolbatzaile batean disolbaturiko litio gatz bat da. LiFePO<sub>4</sub>-rekin gehien erabilitako elektrolitoa LiPF<sub>6</sub>-a da, EC eta DMC disolbatzaile nahasketan disolbatua. Azkenik, WE eta CE-n artean banatzaile bat kokatu behar da, bien arteko kontaktu zuzena ekiditeko eta elektrodoen artean litio ioien mugimendua ahalbidetzeko, izan ere karga zikloan zehar LiFePO<sub>4</sub>-tik litio ioiak askatu eta CE-ra mugitzen dira, deskarga prozesuan zehar kontrakoa gertatzen delarik [5].



### **3.4. ERREFERENTZIAK**

- [1] T 650 om-15. Solids content of black liquor. Peachtree Corners, GA: 2015.
- [2] TAPPI T 211 om-16. Ash in wood, pulp, paper and paperboard: combustion at 525 degrees. Peachtree Corners, GA: 2016.
- [3] Napporn TW, Holade Y, Kokoh B, Mitsushima S, Mayer K, Eichberger B, et al. Electrochemical measurement methods and characterization on the cell level. 2018. <https://doi.org/10.1016/B978-0-12-811459-9.00009-8>.
- [4] Arenz M, Markovic NM. Half-Cell Investigations of Cathode Catalysts for PEM Fuel Cells: From Model Systems to High-Surface-Area Catalysts. *Fuel Cell Sci Theory, Fundam Biocatal* 2010;283–316. <https://doi.org/10.1002/9780470630693.ch9>.
- [5] Heubner C, Maletti S, Lohrberg O, Lein T, Liebmann T, Nickol A, et al. Electrochemical Characterization of Battery Materials in 2-Electrode Half-Cell Configuration: A Balancing Act Between Simplicity and Pitfalls. *Batter Supercaps* 2021;4:1310–22. <https://doi.org/10.1002/batt.202100075>.



---

**4. LIGNINAREN  
FRAKZIONAMENDUA**



## 4.1. MOTIBAZIOA

Lignina erauzteko metodo berde berrien diseinuak geroz eta interes gehiago irabazi du azken urteetan, paper industrian erabiltzen diren Kraft metodoa bezalako deslignifikazio prozesu tradizionalekin alderatu ezkero. Esparru honetan, organosolv metodoa da metodo berde hedatuena bere erraztasun eta disolbatzaileen birziklagarritasuna dela eta. Horrez gain, lortutako ligninak eduki fenoliko altua, disolbatzaile organiko ohikoetan disolbagarritasun ona, eta beira-trantsizioko tenperatura baxua erakusten du. Hala ere, heterogeneoa da, pisu molekular eta eduki fenoliko totala bezalako parametroetan desbideraketa estandar altua duelarik [1].

Gaur egun merkatuan aurki daitezkeen lignina tekniko desberdinak lehengai eta erauzketa metodoaren araberakoak dira [2]. Zentzu honetan, Kraft ligninak (KL) organosolv ligninak (OL) baino pisu molekular baxuagoa erakusten du, eta lignina naturalak baino baxuagoa oraindik, Kraft prozesuan erabili diren baldintza alkalino eta tenperatura altuek eraginda [3]. Ondorioz, KL molekulek 200–200000 g/mol-eko pisu molekular balioak dituzte, karbohidrato eduki altua, eta %1-3 bitarteko sufre kantitatea [4]. Ekoiztutako KL gehiena, urteko 40-50 milioi tona inguru, papergintza industria bertan erabiltzen da energia berreskuratzeko, soberakin bat erabili gabe geratzen delarik [5]. Lignina soberakin hau aplikazio mota ugaritan erabili daiteke, hala nola dispersatzaile, nahaste, eta konpositeetan, konposatu aromatikoen aitzindari izateaz gain [6], erregai fosilek arriskuan jartzen dituzten praktika jasangarriak implementatuz.

Organosolv prozesuan, baldintza alkalinoak erabili beharrean, disolbatzaile organikoak erabiltzen dira lignina erauzteko. Gaur egungo biofindegia lignozelulosikoetan organosolv frakzionamenduaren erabilera modu zabalean aztertu da, disolbatzaile berdeekin lan egitea ahalbidetzen baitu [7]. Horrez gain, kalitate handiko lignina lortzeko ahalmena dauka,

ezaugarri interesgarri askorekin, purutasun altua, sufre eduki eza eta errauts eduki baxua hala nola [8].

Ligninaren erauzketa teknika desberdinan ageri den arazo berari aurre egiteko, heterogeneotasunari alegia, azido hauspeatzea, disolbatzaile bidezko bereizketa, eta mintz bidezko bereizketa prozesuak bezalako hurbilketa desberdinak garatu dira [9]. Disolbatzaile organiko desberdinen bidezko zatiketa edo frakzionamendua metodo guztiz pertsonalizagarria da, non disolbatzaileak (edo disolbatzaile nahasketak), frakzionamendu pauso zenbakiak, eta erabilitako antidisolbatzaileak helburu edo behar espezifikoetara doitu daitezkeen [10]. Argitaratutako aurreko lan batzuetan, lignina industrialak disolbatzaile bakarrez frakzionatu diren prozesuak aztertu dira [11], izei eta eukaliptotik eratorritako Kraft ligninak disolbatzaile organiko desberdinez frakzionatu dira [12] eta gari-lastoaren organosolv lignina, gari-lastoaren soda lignina, eta egur bigunaren Kraft lignina, azetona/ur disoluzio nahasketaren proportzio desberdinekin frakzionatu dira [13].

Disolbatzaile organikoen bidezko erauzketa sekuentzialaren metodoa (SOSE) pisu molekular antzekoa duten frakzioak lortzeko metodo egokiena dela ondorioztatu da ordea [14]. Park et al. (2018) diseinatutako metodoan, polaritate desberdineko disolbatzaileak modu sekuentzialean erabili zitzuten, ezaugarri espezifiko desberdinako frakzioak lortu zituztelarik [14].

Disolbatzaile organikoak lignina disolbatzeko duten ahalmena hidrogenoloturen ahalmenean oinarritzen da. Hidrokarbono alifatiko albo kate motzek eta hidrogeno lotura emaile gune gehiagok ahalmen hau handiagotzen dute [3]. Bestalde, urarekin nahastutako disolbatzaile nahasketek disolbatzaile puruek baino disolbagarritasun handiagoa erakusten dute, hidrogeno loturak osatzeko ahalmen handiagoarekin eta disolbatzaile organikoen

difusioa lignina molekula barnera erraztuz [13]. Hala ere, uraren gehiketak beste faktore aldakor bat suposatzen du, lortutako frakzioen ezaugarriean eragiteaz gain, komenigarriak ez diren azeotropoen sorrera eragiten dutenak. Hau prozesuaren ikuspuntu ekonomikoaren aldetik ere ez da interesgarria [15].

## **4.2. HELBURUAK**

Lanaren helburu nagusia Kraft eta organosolv ligninak frakzionatzeko SOSE metodo bat diseinatzea izan zen. Arreta berezia eman zitzzion prozesu jasangarri bat diseinatzeari, ahalik eta disolbatzaile organiko berdeenak erabiltzeari, eta hauen birziklapena sustatzeari.

Helburu hauek lortzeko, miaketa inizial bat burutu zen disolbatzaile organiko desberdinekin, eta disolbatzaile bakoitzak izandako disolbagarritasun errendimendu, batez besteko pisu molekularra pisuan ( $M_w$ ), eta polisakabanatze-maila (PI) balioak erabili ziren SOSE metodo eraginkorrena diseinatzeko.

Diseinatutako SOSE metodoa Kraft eta organosolv lignina frakzio homogeneagoak lortzeko diseinatu zen, pisu molekular eta egitura eta funtzionalitate kimiko desberdinekin, hainbat metodo fisikokimiko desberdinez analizatuak.

## **4.3. PROZEDURA ESPERIMENTALA**

### **4.3.1. ORGANOSOLV ERAUZKETA**

Organosolv lignina eukalipto txirbiletik erauzi zen, organosolv metodoaren bitartez, aurreko lan batzuetan azaldu bezala [16,17]. Aukeratutako erreakzio baldintza optimoa ondorengoak izan ziren: 90 minutu, 180 °C, 1:7 (w/w) solido-likido ratioa etanol/ur 50/50 (v/v) disolbatzaile

nahasketarekin, eta 50 mmol/L azido oxaliko katalizatzaile modura. Erreakzioa amaitutakoan, likorea solido designifikatutik banandu zen filtrazio bidez.

Ondoren, material designifikatu hau garbitu zen, lehenik aurretik erabilitako etanol/ur disolbatzaile nahasketa erabiliz, eta ondoren ur destilatu bidez, pH neutroa lortu arte. Organosolv estrakzioa 1.5 L altzairu herdoilgaitzez osatutako Parr Series 5100 presiozko erreaktore eta temperatura kontrolatzaile bat (4836 Controller) erabiliz burutu zen.

#### **4.3.2. LIGNINA ERAUZKETA**

Kraft eta organosolv ligninak likore beltzen pH-a jaitsiz lortu ziren. KL-a pH 2-raino jaitsi zen H<sub>2</sub>SO<sub>4</sub> kontzentratua (96%) pixkanaka gehituz. OL-a likore beltzari bi aldiz ur gehiago gehituz lortu zen. Erabilitako urak 2-ko pHa-a zeukan H<sub>2</sub>SO<sub>4</sub> kontzentratua (96%) gehituz. Hauspeautako ligninak gau osoan zehar sedimentatzen utzi ziren, eta 0.45 µm-ko porositateko nylon filtro paperak erabiliz iragazi eta neutralizatu ziren. Ligninak iragazia giro-temperaturan lehortu ziren.

#### **4.3.3. DISOLBATZAILE ORGANIKOEN AUKERAKETA ETA FRAKZIONAMENDUAREN ORDENA**

Metanola (MeOH), etanola (EtOH), propan-2-on (DMK), etil azetatoa (EtOAc), propan-1-ola (*n*-PrOH), propan-2-ola (*i*-PrOH), butan-2-on (MEK), eta butan-1-ola (*t*-BuOH) aukeratu ziren prozesurako disolbatzaile organiko berde posible bezala. Zortzi disolbatzaile hauek individualki erabili ziren, eta lignina disolbatzeko ahalmena eta disolbatutako ligninen pisu molekularrak determinatu ziren. Horretarako, 1 g ligninari 10 mL disolbatzaile gehitu zitzaitzien, eta agitazio magnetiko bidez nahastu ziren 2 orduz. Horren ondoren, nahastea 0.22 µm-ko porositateko nylon filtro

paperak erabiliz iragazi zen. Frakzio disolbaezina 50 °C-tan lehortu zen gauean zehar, frakzio disolbatua lurrungailu-birakariaren bitartez kontzentratu ondoren (ahalik eta disolbatzaile gehien berreskuratzeko), 50 °C-ko labean lehortu zen bi egunez.


Disolbatzaileen selekzioa eta ordenaren erabakia atal honetan lortutako emaitzen arabera burutu zen. Aukeratutako disolbatzaileekin, pisu molekular eta etekin desberdinako frakzioak lortzen zirela ikusi zen oro har. Ezaugarri antzekoak lortzen ziren disolbatzaileekin (etekin eta pisu antzekoak), ingurumenarekiko jasangarriena zen disolbatzailea aukeratu zen. Beraz, lau disolbatzaile aukeratu ziren. Disolbatzaileen ordena beraien disolbatze ahalmenaren arabera erabaki zen, ahalmen txikienekoak hasieran erabiliz, eta ahalmena modu progresiboan handituz, ahalmen handieneko disolbatzailearekin amaituz.

#### **4.3.4. LIGNINEN FRAKZIONAMENDUA ERAUZKETA SEKUENTZIALAREN BIDEZ**

Disolbatzaile organiko bidezko erauzketa sekuentziala 4.1 irudian deskribatzen da.

Aurretik aipatu bezala, prozesua lignina disolatzeko ahalmen baxuena zuen disolbatzailearekin hasi zen, eta progresiboki ahalmen handiagoa zuten disolbatzaileekin jarraitu zen. 5 g ligninari 100 mL disolbatzaile gehitu eta 2 orduz agitazio magnetikoz nahastu ziren. Denbora igarotakoan frakzio disolbagarri eta ez-disolbagarriak iragazketaz banandu ziren, berriz ere 0.22 µm-ko porositateko nylon filtro paperak erabiliz. Frakzio disolbaezina 50 °C-ko labean lehortu zen gauean zehar, frakzio disolbatua gutxi gorabehera %75ean kontzentratu (disolbatzailea lurrunduz eta berreskuratuz) eta ur azidifikatuz (pH 2-ko H<sub>2</sub>SO<sub>4</sub> disoluzioa) erauzi zelarik. Prezipitatutako lignina berriro filtratu zen, 0.22 µm-ko porositateko nylon

filtru paperak erabiliz, ur distilaluz garbitu pH neutroa lortu arte eta 30 °C-tan lehortu zen.



**4.1. Irudia.** SOSE metodoa Kraft eta organosolv ligninentzako.

#### 4.3.5. LORTUTAKO LIGNINA FRAKZIOEN KARAKTERIZAZIOA

Lehenik eta behin, ligninen konposizio kimikoa determinatu zen. Hidrolisi azido kuantitatibo bidez (QAH) lignina frakzioen purutasuna kalkulatu zen [18]. Burututako hidrolisitik, lignina puru bezala konsideratzen den AIL edo klason lignina kalkulatu zen, ASL eta azukre edukia kalkulatzeaz gain. Analisi termogramabimetrokoen bitartez ikatz eta errauts edukia kalkulatu zen. Karakterizazio fisikokimikoarentzako FTIR, GPC,  $^{31}\text{P}$  NMR, UV-vis, eta Py-GC/MS metodoak erabili ziren. FTIR-a talde funtzional nagusiak identifikatzeko erabili zen, GPC-a pisu molekularrak eta sakabanatze indizea kalkulatzeko.

Bestalde,  $^{31}\text{P}$  NMR espektroskopia bidez talde hidroxilo fenoliko eta alifatikoak eta azido karboxilikoen hidroxilo taldeak kuantifikatzeaz gain, OH fenoliko desberdinak desberdintzeko gai den teknika bat da, S/G ratio ere kalkula daitekeelarik. UV-vis espektroskopia metodoen bidez OH lotura konjugatuak eta ez-konjugatuak ere determinatu ziren. Azkenik, Py-GC/MS lignina deribatuen eta S/G ratioaren identifikazio eta kuantifikaziorako erabili zen.

Lignina frakzioen ezaugarri termikoak analisi termograbitmetrikoz (TGA) eta ekortze-kalorimetria diferentzial (DSC) bitartez analizatu ziren.

Jarraitutako prozedurak ANNEX I-ean daude azalduak.

#### **4.3.6. EZAUGARRI DESBERDINEN ARTEKO KORRELAZIOA**


Pearson korrelazioaren bitartez ligninen ezaugarri interkonektatuen arteko erlazioak ondorioztatu ziren. Bi aldagai aukeratu ziren, eta doikuntza lineal edo asintotikoak burutu ziren OriginPro v2020 software-a erabiliz.

### **4.4. EMAITZAK ETA EZTABADA**

#### **4.4.1. EUKALIPTO (E) ETA EUKALIPTO DESLIGNIFIKAZIAREN (DE) KARAKTERIZAZIOA**

Eukalipto egur zatiak organosolv deslignifikazioaren aurretik eta ondoren karakterizatu ziren. Lortutako emaitzetan, lignina edukiaren beherakada nabarmena lortu zen, prozesuaren helburua hau zelarik. Lignina galerak gainerako osagaien edukian alterazioak eragin zituen, bereziki zelulosa edukian aberastu zelarik. Lortutako emaitzak 4.2 irudian ageri dira, osagai bakoitzaren ehunekoak eduki lehorrean adierazita (KL eta Ol-en hezetasun balioak %7.72 eta %7.45 ziren hurrenez hurren). Lortutako balioak

bibliografian aurkitutako beste balio batzuekin alderatzean balio antzekoak lortu zirela ondorioztatu zen [19,20].



**4.2. Irudia.** Eukalipto zuntzen konposizioa organosolv tratamenduaren aurretik eta ondoren.

#### 4.4.2. KRAFT (K) ETA ORGANOSOLV (O) LIKOREEN KARAKTERIZAZIOA

Likore bakoitzaren ezaugarriak 4.1. taulan azaltzen dira. Bi likoreen artean desberdintasun nabarmenak antzeman zitekeen. Oro har, Kraft likorea solido edukian aberatsagoa zen, eduki ez-organikoan bereziki. Hau lignina erauzteko paper industriak erabiltzen dituen baldintza gogorren ondorio da, NaOH eta Na<sub>2</sub>S bezalako konposatuak erabiltzen baitituzte, konposatu ez-organikoez osatutako hondakinak eratuz. Deslignifikazio prozesuen desberdintasun nagusiena erabilitako disolbatzailea da, pH-a aldatzen delarik. Kraft likoreak ingurune basikoa du, organosolv ligninak pixka bat azidoa duen bitartean. Hori dela eta, erauzitako ligninak egitura eta izaera kimiko desberdinak dituzte.

**4.1. Taula.** Kraft likore (K) eta organosolv likoreen (O) ezaugarriak.

	Dentsitatea (g/cm <sup>3</sup> )	pH-a	Eduki solido totala (%)	Eduki organikoa (%)	Eduki ez- organikoa (%)	Lignina lehor edukia (g/l)
<b>K</b>	1.09 ± 0.01	13.02 ± 0.03	15.49 ± 2.94	8.55 ± 0.82	8.74 ± 0.00	41.67 ± 5.65
<b>O</b>	0.95 ± 0.01	4.02 ± 0.08	5.57 ± 0.21	5.54 ± 1.17	0.04 ± 0.15	29.11 ± 2.92

#### 4.4.3. DISOLBATZAILEEN MIAKETA INIZIALETIK LORTUTAKO ETEKIN ETA PISU MOLEKULARREN DETERMINAZIOA KL ETA OL-RENTZAT

SOSE metodoa diseinatu baino lehen, disolbatzaile organiko desberdinak testatu ziren, hauen egitura molekularrak ligninaren disolbagarritasunean nola eragiten zuen aztertzeko. Horretarako, zortzi disolbatzaile desberdin aukeratu ziren: ester bat, bi zetona, eta bost alkohol (hiru alkohol primario, bi sekundario eta tertziario bat). Aukeratutako disolbatzaileak, hauen ezaugarri batzuekin batera 4.2. taulan ageri dira.

**4.2. Taula.** Aukeratutako disolbatzaileen ezaugarri nagusiak.

	MeOH	EtOH	DMK	EtOAc	nPrOH	iPrOH	MEK	tBuOH
<b>Formula kimikoa</b>	CH <sub>4</sub> O	C <sub>2</sub> H <sub>6</sub> O	C <sub>3</sub> H <sub>6</sub> O	C <sub>4</sub> H <sub>8</sub> O <sub>2</sub>	C <sub>3</sub> H <sub>8</sub> O	C <sub>3</sub> H <sub>8</sub> O	C <sub>4</sub> H <sub>8</sub> O	C <sub>4</sub> H <sub>10</sub>
<b>Hildebrand</b>	29.7	26.0	19.9	18.2	---	24.4	---	---
<b>Irakite puntuoa (°C)</b>	65.0	78.0	56.0	77.0	97.0	82.6	79.6	82.0
<b>Sukoitasuna*</b>	3	3	3	3	3	3	3	3
<b>Osasun arriskua*</b>	3	1	1	1	1	1	1	2
<b>Erreaktibitatea*</b>	0	0	0	0	0	0	0	0

\* NFPA 704: Larrialdiko erantzunetarako materialmen arriskuen identifikaziorako sistema estandarrak

4.3. Irudiak eta 4.3. taulak aukeratutako disolbatzaile guztiekin lortutako etekin eta pisu molekularrak aurkezten dituzte. Kraft ligninarekin lortutako disoluzio etekinak organosolv ligninekin lortutakoak baino handiagoak direla ikus daiteke. Honen arrazoia KL-ren pisu molekularra baxuagoa delako da seguruenik, organosolv ligninaren erdia hain zuzen ere (3167 eta 5800 g/mol). Hala ere, disolbatutako ligninen pisu molekularrek, nahiz eta lignina mota desberdinekin burtu, joera bera zutela ikusi zen, bereziki EtOH, EtOAc, nPrOH, iPrOH, MEK, eta tBuOH-en kasuan.  $M_w$ -ek gorabehera berdinak izan zituzten KL eta OL-ntzako, baina lortutako etekinekin, halaber, kontrakoa gertatu zen.

**4.3. Taula.** Etekinak,  $M_w$ , eta PI balioak disolbatutako lignina frakzio bakoitzeko.

Disolbatzailea	Kraft lignina			Organosolv lignina		
	Etekina (%)	$M_w$ (g/mol)	PI	Etkina (%)	$M_w$ (g/mol)	PI
<b>MeOH</b>	89.70	2770	3.8	88.61	5016	3.3
<b>EtOH</b>	79.85	2233	3.3	36.35	2300	3.0
<b>DML</b>	87.97	11985	4.2	87.57	6040	3.7
<b>EtOAc</b>	57.89	1802	2.6	32.90	1931	2.7
<b>nPrOH</b>	60.62	1507	2.6	24.08	1287	2.7
<b>iPrOH</b>	33.08	999	2.1	6.46	1014	2.4
<b>MEK</b>	79.43	2275	3.7	38.39	2048	3.1
<b>tBuOH</b>	61.69	1373	2.5	6.37	1171	2.6


KL-rekin lortutako kantitateak esanguratsuak ziren bitartea, OL-rekin balio nahiko baxuagoak lortu ziren. Honek ligninen PI balioekin lotura izan dezake. Izan ere, KL OL baino txikiagoa eta homogeneoagoa denez (2.91 eta 4.44-ko PI-ak dituzte, hurrenez hurren), disolbatzaile gehiagotan da disolbagarria. Hala ere, OL handiagoa eta heterogeneoagoa da, tamaina desberdin gehiagoko molekulez osatua, tamaina handiagokoak disolbatzeko selektiboagoak izatearen desabantailarekin. Hori dela eta, organosolv

lignitekin etekin baxuagoak lortu ziren, bereziki disolbatzeko ahalmen baxuko disolbatzaileekin. MeOH eta DMK ziren disoluzio etekin handieneko disolbatzaileak bi lignina motentzat, eta pisu molekular handienak ere disolbatzaile haukin lortu ziren. Nahiz eta bi disolbatzaile hauek talde funtzional berdinez osatuak ez egon (MeOH alkohol primario den bitartean MEK zetona bat da), adarketa antzekoa dute, metil talde bat. Adar hau izan daitekeen alkano adar txikiena denez, disolbatzaileen talde funtzionalak bai lignina partikula txikiak zein handiak disolbatzeko eskuragarri zeuden. EtOH eta MEK-ek MeOH eta DMK-ren antzeko izaera eta konposizioa erakutsi zuten. EtOH eta MEK alkohol primarioa eta zetona dira hurrenez hurren, etil talde batez adarkatuak. Beraz, EtOH eta MEK-ek MeOH eta DMK-k baino adar luzeagoa dute, lignina molekula handiak disolbatzeko zailtasun handiagoa erakutsiz, eta ondorioz, etekin baxuagoak lortuz.

Gainerako disolbatzaileak, EtOAc, *n*-PrOH, *i*-PrOH eta *t*-BuOH, aurretik aipatutakoak baino eragotziagoak dira. Adarkatuagoak izateaz gain, talde funtzionalak ere desberdinak dira. Nahiz eta hauetako hiru alkoholak izan baita ere (*n*PrOH, *i*PrOH eta *t*BuOH), ez dira alkohol mota berekoak. *n*-PrOH primarioa da, *i*-PrOH sekundarioa, eta *t*-BuOH terciarioa. Horrez gain, EtOAc ester bat da. Beraz, lau disolbatzaile hauen polaritateak desberdinak dira, orden hau jarraituz: *n*-PrOH>*i*-PrOH>*t*-BuOH>EtOAc. Hala ere, disolbatzaileen polaritate eta lortutako etekin edo frakzioen pisuaren artean ez zen erlaziorik aurkitu.

Lortutako emaitzetatik ondoriozta daiteke disolbatzailearen polaritateak baino honen partikula tamainak eragin handiagoa izan zuela ligninaren disolbagarritasunean. Izan ere, disolbatzaile txikienak izan ziren etekin handiena lortu zutenak, eskuragarriagoak baitira lignina makromolekularentzat. Beraz, aukeratutako disolbatzaileak eta beraien ordena ahalik eta metodo berdeenaren diseinuan eta frakzio homogeneo baino desberdinen lorpenean oinarritu zen. Ondorioz, *i*-PrOH, EtOAc, EtOH,


eta DMK prozesuarentzako disolbatzaile egokienak zirela erabaki zen, etekin balio on hauek prozesuan zehar galduztako materiala minimizatzeko ahaleginagatik, eta lortutako frakzioen ezaugarri desberdinengatik, lignina frakzio desberdinak lortzea ahalbidetuz.



**4.3. Irudia.** Lignina mota bakoitzaren disolbatze etekinak eta pisu molekularrak.

#### 4.4.4. DISOLBATZAILE ORGANIKO BIDEZKO ESTRAKZIO SEKUENTZIALAREN ETEKINAK


4.4 Irudian frakzionamendu sekuentzialaren etekinak erakusten dira. Kraft lignina organosolv lignina baino gehiago disolbatu zen, disolbatzaileen miaketa inizialean ikusi bezala, KL-ren pisu molekular baxuagoen ondorioz. Hala ere, prozesuan jasandako galerak handiago izan ziren KL-rekin. Oro har, disolbatze portzentaiak antzeko mantendu ziren estrakzio sekuentzialeko lehenengo hiru pausoetan. Hala ere, disolbatze etekina nabarmenki igo zen azken pausuan, DMK erabilitakoan. Disolbatzaile miaketa burututakoan bezala, DMK-k disolbatu zuen lignina kantitate gehien.



**4.4. Irudia.** Disolbatze etekinak eta pisu molekularrak lignina mota bakoitzeko.

#### 4.4.5. EGITURA KIMIKOA

KL, OL, eta hauen frakzioen infragorri espektroak 4.5 irudian ageri dira, eta molekulen amankomuneko eta bereizitako ezaugarri estrukturalak islatzen dira bertan.



**4.5. Irudia.** Lignina originala eta SOSE metodoaren bidez frakzionatutakoen FTIR espektroak.

3400  $\text{cm}^{-1}$ -tan espektro banda zabal bat azaltzen da, hidroxilo alifatikoen O-H luzatze-bibrazioei atxikia. Bi lignina motekin ikusi zen frakzionamendu prozesuak talde funtzional honen ugaritasuna txikiagotu zuela, frakzio disolbaezinean banda ia ikusezin bihurtuz. 2900  $\text{cm}^{-1}$ -ko banda talde metoxi, metil, eta metileno C-H luzatze-bibrazioei dagokie. Kraft eta organosolv

lignina originalen C-H banden intentsitatea frakzioena baino intentsitatea baxuagokoa zen. KL frakzioetan, frakzio zenbakia igo ahala intentsitatea ere igotzen joan zen. OL frakzioetan aldaketa hau horren nabarmena ez izan harren, intentsitatea ere handiagotu zen. Banda honen intentsitatearen handitzea frakzionamendu prozesua aurrera joan ahala burutu zen, geroz eta molekula handiagoak disolbatu zirelako prozesuan zehar, eta hauek metil eta metileno taldeez adarkatuagoak zirelako [21].

Fenomeno hau Py-GC/MS metodoaren bitartez aztertu zen baita ere, molekula adarkatuez eratorritako molekulen ugaritasuna FTIR espektroetatik ikusitako antzekoa zelarik.  $1600$  eta  $1420\text{ cm}^{-1}$  artean agertzen diren bandak talde aromatikoen C-H taldeen bibrazio eta deformazioei dagokie.  $1325\text{ cm}^{-1}$ -tan agertzen den banda S unitateen eratzunei dagokien bitartean,  $1260\text{ cm}^{-1}$ -tan azaltzen dena G unitateen eratzunei dagokie. Banda hauen intentsitatea frakzionamendu sekuentziala aurrera joan ahala txikiagotu zen, nahiz eta S/G ratioa nahiko egonkor mantendu.

#### **4.4.6. PISU MOLEKULARRA ETA LIGNINA PURUTASUNA**

SOSE frakzionamenduan lortutako frakzioen  $M_w$  eta PI balioak ere kalkulatu ziren. Balio hauek, karakterizazio kimikoarekin batera, 4.4 taulan daude adieraziak. 4.3 taulan ageri diren balioetatik aldaketa nabarmenak ikusi daitezke.

Adibidez, lehenengo frakzioarekin, *i*-PrOH-n disolbatuarekin,  $M_w$  eta PI balio antzekoak lortu ziren. Hala ere, bigarren frakziotik aurrera, aurreko pausoan disolbatutako frakzioek hurrengo pausoetan lortutako frakzioetan eragin zuten, pisu molekular desberdinak lortu zirelarik. Zentzu honetan, bigarren frakzioak (*EtOAc*-n disolbatuak) %25 eta %30 inguruko beherapenak izan zituen KL eta OL frakzioen  $M_w$  balioetan. Hirugarren

frakzioak (EtOH-n disolbatuak) %9ko balio txikiagoa erakutsi zuen KL F1-ek, eta %15 txikiagoa OL F3 laginak. Laugarren frakzioak, DMK-n disolbatuak, %60ko beherapena erakutsi zuen KL F4-en eta %24koa OL F4-en. Hala ere, frakzio disolbaezinen  $M_w$  balioa bi lignina moten kasuan antzekoa izan zen, 14514 g/mol KL FI-rentzat eta 14255 g/mol OL FI-rentzat.

#### 4.4. Taula. Lignina originala eta frakzioen $M_w$ , PI eta konposizio kimikoak.

	$M_w$ (g/mol)	PI	AIL (%)	ASL (%)	Ash (%)
<b>KL</b>	3167	2.91	73.99 ± 2.24	19.00 ± 0.77	7.01
<b>KL F1</b>	951	1.85	81.64 ± 1.93	14.04 ± 2.95	4.32
<b>KL F2</b>	1310	2.14	75.75 ± 5.95	18.44 ± 2.49	5.81
<b>KL F3</b>	1893	2.39	87.72 ± 0.63	9.14 ± 0.34	3.14
<b>KL F4</b>	4682	3.50	88.68 ± 0.73	8.24 ± 0.25	3.08
<b>KL FI</b>	14514	4.43	83.54 ± 2.59	12.66 ± 0.61	3.80
<b>OL</b>	5800	4.44	90.91 ± 0.82	6.23 ± 0.67	2.86
<b>OL F1</b>	1036	1.61	84.01 ± 2.05	13.79 ± 0.56	2.20
<b>OL F2</b>	1341	1.81	81.42 ± 0.06	17.23 ± 4.01	1.35
<b>OL F3</b>	2096	2.47	85.38 ± 2.00	12.26 ± 0.96	2.36
<b>OL F4</b>	4569	3.08	82.00 ± 2.45	14.71 ± 1.31	3.29
<b>OL FI</b>	14255	3.82	89.02 ± 6.00	7.90 ± 0.54	3.08

Orokorrean, ligninaren jatorria kontuan hartu gabe (nabarmena baita KL-k OL-k baino pisu molekular txikiagoa duela, 3167 g/mol OL-ren 5800 g/mol-ekin alderatuta), frakzionamenduaren atal bakoitzean lortutako lignina frakzioak oso antzekoak zirela ondoriozta daiteke. KL F1 eta OL F1, *i*-PrOH-rekin lortutako frakzio disolbagarriak, hau da alkohol sekundario simpleenarekin, oso antzekoak ziren, 951 eta 1036 g/mol-eko pisu molekularrekin hurrenez hurren. Lortutako bigarren frakzioa, EtOAc-rekin, etanol eta azido azetikoaren esterrarekin, 1310 eta 1341 g/mol balioak

zituzten hurrenez hurren. Prozesu osoan zehar jarraitu zen frakzio pausu berean antzeko pisu molekularra lortzearen joera.

Izan ere, hirugarren pausuan lortutako frakzioek, EtOH alkohol primarioan disolbagarriak, 1893 eta 2096 g/mol-eko pisu molekularrak erakutsi zituzten. Laugarren pausuko frakzioekin, DMK disolbatzailean disolbatuak, 4682 eta 4569 g/mol-eko balioak lortu ziren. Ondorioz, SOSE prozesua frakzio homogeneoak lortzeko baliogarria izan zen, bai Kraft zein organosolv ligninekin erabiltzeko. PI balioak  $M_w$  balioekin batera igo ziren, erabilitako disolbatzaileak geroz eta solubilitate ahalmen handiagoa izanik, molekula tamaina zabalagoak disolbatu baitzitzuten. Azidotan disolbaezina den lignina (AIL) eta azidotan disolbagarria den lignina (ASL) edukieei dagokienez, OL-k purutasun altua erakutsi zuen (%90.91 AIL edukiarekin), KL-ren balioarekin alderatuz (%73.99 AIL) lignina isolatzeko erabilitako prozesu baldintza arinagoen ondorioz

Horrez gain, OL-k KL-k baino ASL eduki baxuagoa zuela ikusi zen erabilitako erazuketa prozesu [22]. Hasierako ligninak purutasun handiagoa izateak lortutako frakzioen etekinean eragina izan zuen. OL-ren purutasun altuaren ondorioz, zaila da SOSE metodoak purutasuna oraindik ere gehiago hobetzea. Ondorioz, OL frakzioek OL originalak baino purutasun baxuagoa lortu zuten. KL-ren kasuan, ordea, purutasuna hobetzeko baliogarria izan zen, KL-ren frakzio gehienek %10 inguruko purutasun igoera izan baitzuten.

4.4 Irudian azaltzen diren berreskuratutako frakzio disolbatuen etekinei dagokienez, ikus daiteke OL ligninarekin lortutakoak nabarmenki baxuagoak zirela, bereziki lehen pausuko frakzioetan, lignina mota honen pisu molekular handiagoko molekulen ondorioz. Pisu molekular handiko ligninek disolbagarritasun baxua dute, beraz, OL KL baino disolbagaitzagoa zen. Hala ere, frakzionamendu prozesuarekin lignina frakzio homogeneagoak lortu ziren, PI balio baxuagoekin, bi lignina motentzat.

Beraz, SOSE prozesua bi lignina motentzat erabilgarria eta arrakastatsua dela ondoriozta daiteke.

Ligninaren propietate garrantzitsuenetako bat bere hidroxilo taldeen edukia da, disolbagarritasun eta errektibitatean eragiten baitu. Ondorioz, molekulen OH talde desberdinaren kuantifikazioa garrantzi handikoa da. Hori lortzeko erabil daitekeen metodo zehatz eta aurreratuenetakoa  $^{31}\text{P}$  NMR espektroskopia bidezko determinazio kuantitatiboa da. Tontor desberdinak hidroxilo talde desberdinekin daude erlazionatuak, eta hauek integratuz, eta kontzentrazio ezaguneko barne estandarraren integrazioarekin alderatuz, hauen kontzentrazioak lor daitezke. OH alifatikoen, C5-ordezkatuen, guaiaziloen, p-hidroxifeniloen eta azido karboxilikoen OH taldeen kontzentrazioak lortu ziren mmol OH/g lignina unitateetan. Horrez gain, S/G ratioa ere kalkulatu zen, C5-ordezkatuen OH taldeak (seinalleen gainjartzearen ondorioz siringil OH taldeak bezala konsideratzen dira) guaiazil OH taldeekin zatikatuz, lortutako emaitzak 4.5 taulan azaltzen dira.

Ligninak hostozabalen zuretik eratorriak zirela ondorioztatu zen, p-hidroxifenil unitateen gabeziaren ondorioz, hauek soilik konifero-zurean eta belarretan azaltzen baitira. Lortutako S/G ratioak bat balioa baino altuagoa zuten, hau ere hostozabalen ezaugariekin bat datorrelarik [23]. Bi lignina motentzako erabilitako lehengaia berdina izan arren, hidroxilo taldeen kontzentrazioetan desberdintasun nabarmenak zeuden. OL-ren batez besteko hidroxilo edukia handiagoa zen, bereziki OH alifatikoetan, KL-k baino hiru aldiz eduki gehiago zuelarik. Hala ere, S OH taldeen kontzentrazioa txikiagoa izan arren, G OH edukia nahiko antzeko mantendu zen, eta CA hidroxilo talderik ez zen aurkitu. Ondorioz, OL-ren S/G ratioa KL-rena baino txikiagoa zen.

**4.5. Taula.**  $^{31}\text{P}$  NMR emaitzak KL, OL eta SOSE metodoaren bitartez lortutako frakzioentzat.

<i>OH edukia (OH mmol/g lignina)</i>					<i>S/G ratioa</i>
	<i>Al</i>	<i>S</i>	<i>G</i>	<i>H</i>	<i>CA</i>
<b>KL</b>	0.43	1.37	0.25	-	0.21
<b>KL F1</b>	0.63	3.73	0.82	-	0.55
<b>KL F2</b>	0.19	1.38	0.40	-	0.19
<b>KL F3</b>	1.76	3.73	1.28	-	0.34
<b>KL F4</b>	1.42	2.86	1.24	-	0.31
<b>KL FI</b>	1.37	0.94	0.43	-	0.10
<b>OL</b>	1.44	0.98	0.32	-	-
<b>OL F1</b>	1.41	3.03	1.34	-	0.09
<b>OL F2</b>	1.52	2.90	0.81	0.05	0.10
<b>OL F3</b>	1.76	2.69	0.85	-	0.12
<b>OL F4</b>	2.50	1.89	0.85	-	0.06
<b>OL FI</b>	3.56	1.11	0.36	-	0.04

Lignina erauzketa metodo desberdinek frakzionamendu prozesuan nola eragin zuten aztertu zen, eta KL eta OL ligninek joera desberdina erakutsi zutela identifikatu zen. Lehenengo KL frakzio disolbatuak (KL F1), lignina originalaren (KL) hidroxilo eduki bikoitza baino gehiago zuela ikusi zen. Hala ere, aldaketa nabarmenena S OH taldeetan ikusi zen, bere edukia hirukoiztu zelarik, kontzentrazio altua lortuz. S/G ratioa, bestalde, G unitateen hazkundearren ondorioz jaitsi zen. Bestalde, lortutako bigarren frakzioak (KL F2) KL-k baino hidroxilo talde gutxiago zituen. Honen arrazoia EtOAc-ren solubilitate baxua izan daiteke alde batetik, baina beste arrazoi bat disolbatzailearen ezaugarria izan daiteke. Ester bat denez, ez du OH talde librerik, eta ondorioz, disolbaturiko lignina frakzioak OH talde eskuragarri gutxi edukiko ditu baita ere.


Hirugarren disolbatzailearekin lortutako frakzioak (KL F3) lehenengo frakzioaren joera antzekoa izan zuen, non OH mota guztiak taldeen edukia handitu zen. Igoera esanguratsuena G OH taldeekin gertatu zen, hasierako kontzentrazioa laukoitzuz. OH alifatikoak ere ugaritu ziren, eta S OH taldeek eduki maximoa lortu zuten, nahiz eta S/G ratioa jaitsi, G unitateak S unitateak baino gehiago ugaritu baitziren. Lortutako azken frakzioaren (KL F4) OH edukia ere handiagotu egin zen. Azido karboxilikoen eta alifatikoen OH edukia pixka bat igotzearekin batera, S eta G unitateak ere ugariagotu ziren. G unitateak beraien hasierako edukia laukoiztu zuten, eta S unitateek bikoiztu, S/G ratioa txikituz, eta lortutako frakzio guztien ratio baxuena lortuz. Estrakzio sekuentzialean geratzen den frakzio disolbaezinari dagokionez (KL FI), hidroxilo alifatikoen ugaria zela ikusi zen, nahiz eta hidroxilo fenolikoen edukia ez zen gehiegi urrundu hasierako baliotik.

OL eta bere frakzioei dagokienez, orokorrean OH edukia KL ligninarena baino ugariagoa dela ikusi daiteke. Hala ere, OH fenolikoen edukia antzekoa edota pixka bat baxuagoa zen, bigarren frakzio disolbatuan izan ezik (OL F2), KL frakzioen kasuan OH eduki fenoliko gutxieneko frakzioa zen bitartean, OL-rekin bere beste frakzioen eduki antzekoa lortu zen. OL frakzioen OH alifatiko edukien desberdintasunak ez ziren nabarmenak izan, azkeneko OL F4 eta OL FI-eten izan ezik. OH fenolikoei dagokienez, frakzio disolbatuek originalaren eduki bikoitza baino gehiago lortu zuten, OL F1 frakzioak kontzentrazio altuenak lortu zituelarik, bai S OH zein G OH taldeen edukietan.

OH talde konjugatu eta ez-konjugatuak identifikatzeko, 400 eta 260 nm artean UV ekorketa burutu zen. Egitura fenolikoak sei egitura mota desberdinak bereiz daitezke. Egitura ez-konjugatuen estimazioa 300 nm eta 350-360 nm-etako absorbzio maximoak hartuz burutu zen, eta egitura konjugatuen kasuan, 350-370 nm tarteko maximoarekin egin zen [24]. 4.6

Irudiak UV-vis absorbzio espektroa (goran) eta absorbzio-deribatuen espektroak (behean) erakusten ditu, tontorren benetako posizioa eta gainjarritako tontorrak bereizteko erabilia, izan ere, deribatuen kurbak espektro originalarenak baino egituratuagoak dira [25].

Espektroen bandetatik lortutako OH konjugatu eta ez-konjugatuen absorbantzia balio numerikoak 4.6 taulan adierazi dira. Zentzu horretan, KL eta OL originalen artean ez zen desberdintasun handiegirik antzeman, aldaketa nagusiak frakzioen artean behatu baitziren.



**4.6. Irudia.** KL, OL eta frakzioen UV-vis absorbzio espektroa (goian) eta absorbzio-deribatuen espektroak (behean).

**4.6. Taula.** KL, OL eta frakzioen absorbantzia balioak UV-vis eremuaren 280 eta 315 nm uhin luzeretan.

	<b>KL</b>	<b>KL F1</b>	<b>KL F2</b>	<b>KL F3</b>	<b>KL F4</b>	<b>KL FI</b>
<b>280 nm</b>	1.01	1.46	1.09	1.05	1.00	0.53
<b>315 nm</b>	0.65	0.96	0.69	0.65	0.64	0.33
	<b>OL</b>	<b>OL F1</b>	<b>OL F2</b>	<b>OL F3</b>	<b>OL F4</b>	<b>OL FI</b>
<b>280 nm</b>	0.94	1.11	0.84	1.05	0.91	0.95
<b>315 nm</b>	0.52	0.66	0.55	0.61	0.48	0.48

Identifikatutako deribatuen tontorrak, espektroaren inflexio nagusiei dagokienak, 4.7 eta 4.8 tauletan azaltzen dira. Tontorrak, lagin guztietai ageri direnak,  $\lambda_{\max}$  bezala identifikatzen dira, eta absorbzio desplazamendu nagusiak aurrerago daude azalduak.

**4.7. Taula.** KL eta bere frakzioen uhin luzera inflexioak.

	<b>KL</b>	<b>KL F1</b>	<b>KL F2</b>	<b>KL F3</b>	<b>KL F4</b>	<b>KL FI</b>
<b><math>\lambda 1 \text{ (nm)}</math></b>	268	268.5	268.5	268	269	269
<b><math>\lambda 2 \text{ (nm)}</math></b>	270.5	271.5	271.5	271	271.5	278.5
<b><math>\lambda 3 \text{ (nm)}</math></b>	289.5	290.5	288.5	289.5	289.5	290
			290			
		300.5	301	300.5	301	300.5
				310		310.5
	314.5		314			
				320.5		
		326.5		325.5		328.5
	340	333.5	335			336.5
<b><math>\lambda 4 \text{ (nm)}</math></b>	343.5	344	343.5	343	344	345.5
					349.5	
	355.5	355	356	356	359	
<b><math>\lambda 5 \text{ (nm)}</math></b>	361.5	361.5	361.5	362	361.5	361.5
<b><math>\lambda 6 \text{ (nm)}</math></b>	393.5		398	395.5	397.5	397.5

Bi fenomeno hartu behar dira kontuan. Lehena, aipatutako guneetan azaltzen diren tontorren intentsitatea da. Bigarrena absortzioen uhin-luzeren desberdintasuna da. Izan ere, absortzioaren uhin luzeraren handiagotzea (desplazamendu batokromikoa deritzona) konjugazio mailaren handiagotzearen ondorioz izan daiteke [26].

**4.8. Taula.** OL eta frakzioen uhin luzera inflexioak.

	<i>OL</i>	<i>OL F1</i>	<i>OL F2</i>	<i>OL F3</i>	<i>OL F4</i>	<i>OL FI</i>
<b><math>\lambda_1</math> (nm)</b>	267.5	267	268	268	267.5	267
<b><math>\lambda_2</math> (nm)</b>	268.5	267.5	269	270	269	268
	276	277.5	275.5	281	282	284
<b><math>\lambda_3</math> (nm)</b>	288	289.5	288.5	289	288	288
	297.5	304.5	297.5	297.5	298	
	311	310	312	310	311	311.5
	318.5	315				312
			322.5			
	335	334.5	333.5	335	335	339
<b><math>\lambda_4</math> (nm)</b>	342	343	342	341.5	339	347
	351.5	352.5	350.5			
				354		
<b><math>\lambda_5</math> (nm)</b>	362	361	362	362		363
	365			365	364	365.5
	375.5		375.5	365.5	375.5	
<b><math>\lambda_6</math> (nm)</b>	386.5	388	385	386.5	388	388

KL-n, KL F1 laginak erakutsi zituen intentsitate handienak, bai tontor konjugatueta ( $\lambda_1$  eta  $\lambda_2$ ) zein ez-konjugatueta ( $\lambda_5$ ). Espektro konjugatuauan, (350-370 nm), KL-ren frakzio gehienak isokromikoak zirela ikusi zen, KL F3 izan ezik, desplazamendu batokromikoa erakutsiz.

Hala ere, desplazamendu hiperkromikoa ere identifikatu zen, KL F1 >KL F2 >KL F3 >KL F4 >KL FI joera hiperkromikoa jarraituz. Honek KL F3, KL F4, eta KL FI lagentzat desplazamendua hipsokromikoa izan zela adierazten du. OL-ren kasuan, OL F1 lakinak desplazamendu hipsokromikoa erakutsi zuen, frakzio disolbaezinak desplazamendu batokromikoa erakutsi zuen bitartean. Gainerako frakzioek espektro konjugatu isokromikoa erakutsi zuten. Bestalde, espektro konjugatuen absorbazioen intentsitateek orden hau jarraitu zuten: OL F1 >OL F2 >OL F3 >OL>OL F4 >OL FI.

Laginei pirolisia ere burutu zitzaien, lortutako produktu gaseosoak ligninen eta hauen frakzioen siringil, guaiazil eta hidroxifenil unitateak, deribatu karbohidratoez gain, kuantifikatzeko helburuarekin. Identifikatutako ligninen ehunekoak, S, G, eta H unitateak, eta S/G ratioak 4.9 taulan azaltzen dira.

Py-GC/ MS eta  $^{31}\text{P}$  NMR bidez lortutako emaitzetan desberdintasun batzuk ikus daitezke. Desberdintasun nabarmenena H unitateen edukian ikusi zen.  $^{31}\text{P}$  NMR-tik lortutako emaitzetan, soilik OL F2 lakinak erakutsi zuen H unitateen presentzia. Hala ere, Py-GC/MS-tik lortutakoetatik lagin guztiak erakutsi zuten H unitateetan edukia, nahiz eta denetan ugaritasun gutxienekoa izan. Desberdintasun hauek analisiaren izaerari ahal zaio esleitu. Py-GC/MS metodo suntsitzalea izanik, lortutako pirolisi produktuen identifikazioan nahasteak gerta daitezke, beste producto batzuk H unitate bezala identifikatzuz. Horrez gain, S eta G unitateetan desberdintasun identifikagarriak aurki daitezke, nahiz eta ez izan hain nabariak.

KL frakzioentzako, S unitateen edukiak joera hau erakutsi zuen: KL F2 >KL F3 >KL F1 >KL F4 >KL>KL FI. G unitateek joera hau jarraitu zuten: KL F4 >KL F2 >KL F3 >KL>KL F1 >KL FI. OL frakzioen S unitateek joera hau jarraitu zuten: OL>OL F3 >OL F4 >OL F1 >OL F2 >OL FI; eta G unitateena hurrengoa: OL F2 >OL FI>OL F1 >OL F4 >OL F3 >OL. S/G ratioak ere aldatu zirela


antzeman zen, ondorengo joerak ikusirik: KL F2 >KL F3 > KL>KL F1 >KL F4 >KL FI and OL F2 >OL F3 >OL>OL F1 >OL F4 >OL FI.

**4.9. Taula.** Identifikatutako ligninaren, S, G, eta H unitateen ehunekoak, eta S/G ratioak.


<i>Lignina identifikatua(%)</i>	<i>S unitateak (%)</i>	<i>G unitateak (%)</i>	<i>H unitateak (%)</i>	<i>S/G ratioa</i>
<b>KL</b>	74.55	51.00	44.90	4.11
<b>KL F1</b>	92.39	50.89	44.88	4.23
<b>KLF2</b>	98.25	55.07	42.11	2.82
<b>KL F3</b>	92.59	53.74	42.31	1.27
<b>KL F4</b>	92.79	48.15	45.62	1.06
<b>KL FI</b>	69.09	31.94	43.06	25.00
<b>OL</b>	91.50	54.88	42.33	2.80
<b>OLF1</b>	91.97	50.83	44.59	4.58
<b>OLF2</b>	92.69	48.75	46.39	4.86
<b>OLF3</b>	87.48	62.94	34.02	3.04
<b>OLF4</b>	89.35	57.61	39.50	1.46
<b>OLF1</b>	90.81	47.61	46.17	6.22
				1.03

Ligninen interkonektatutako ezaugarrien arteko erlazioa determinatzeko Pearson-en korrelazio koefizientea erabili zen. Lehenik, Py-GC/MS eta  $^{31}\text{P}$  NMR tekniketatik lortutako S/G ratioen balioen arteko korrelazioa lortu zen, eta 4.7 irudian ikus daiteke. Korrelazioak 0.4008-ko Pearson koefiziente balioa eman zuen KL laginentzat eta 0.2649-koa OL-ntzat. Horrez gain,  $^{31}\text{P}$  NMR bidez lortutako S/G ratioen eta  $M_w$ -en arteko erlazioa aztertu zen 4.8 irudian. Bestalde, 4.9 irudian DSC-tik lortutako  $T_g$  eta  $M_w$ -en arteko korrelazioak azaltzen dira. Azkenik, 4.10 irudiak DSC-tik lortutako  $T_g$  (Kelvinetan) eta  $M_n$ -en arteko korrelazioa neurtu zen Flory-Fox modeloaren bitartez. 4.7, 4.9 eta 4.10 irudietan azaltzen diren koefizienteen determinazioa karratu txikienen doikuntza linealean oinarritzu kalkulatu


ziren. 4.8 irudian kalkulatutako determinazio koefizientea, bestalde, karratu txikieneko doikuntza asintotiko exponetzialarekin kalkulatu zen.




**4.7. Irudia.** Py-GC/MS eta  $^{31}\text{P}$  NMR bidez kalkulatutako S/G ratioen korrelazioa.



**4.8. Irudia.**  $^{31}\text{P}$  NMR bidez kalkulatutako S/G ratioen eta  $\text{M}_\text{w}$ -en arteko korrelazioa.



**4.9. Irudia.** DSC-tik lortutako  $T_g$  balioen eta  $M_w$  balioen arteko korrelazioa, doikuntza linealetik kalkulatua.




**4.10. Irudia.** DSC-tik lortutako  $T_g$  (Kelvinetan) eta  $M_n$  balioen arteko korrelazioa, Flory–Fox modeloaren bidez kalkulatua.

Aurretik aipatu bezala, pisu molekular handiagoko frakzioek S unitate gutxiago edukitzeko joera dute [27,28]. Ondorioz, frakzionamendu prozesua aurrera joan ahala S edukia gutxiagotu egin zen, S/G ratioa txikiagotuz baita ere. Joera hau argi ikusi zen  $^{31}P$  NMR-tik lortutako emaitzetan, KL>KL F1 >KL F2 >KL F3 >KL F4 >KL FI eta OL F2 >OL F3 >OL>OL F1 >OL F4 >OL FI joerak ikusirik.

S/G ratioen eta  $M_w$ -en arteko erlazioa 4.8 irudian auteman daiteke xehetasun handiagoarekin. Nabarmena da, lignina originalak kontuan izan gabe, soilik frakzioak, S/G ratioan jaitsiera nabarmena egon zela  $M_w$ -a igo ahala. Jaitsiera hau nabarmenagoa bihurtu zen 4000 g/mol baliotik aurrera, Wang et al. (2018)-ek esan bezala [29].

Laginetatik lortutako kurba termogravimetricoek ligninen eta hauen frakzioen egonkortasun termikoa erakutsi zuten. Egonkortasuna tenperatura altuetan galduztako masaren arabera kalkulatu zen. %5 eta %50-aren masa totala degradatu zeneko tenperatura kalkulatu zen ( $T_{5\%}$  eta  $T_{50\%}$  bezala izendatuak hurrenez hurren), eta bukaeran lortutako hondakina ikatz bezala konsideratu zen. 4.11 Irudiak TG eta DTG kurbak erakusten ditu, KL eta bere frakzioak ezkerrean eta OL eta bere frakzioak eskubian. Horrez gain, degradazio etapa guztiak eta hauen tenperaturak 4.10 taulan daude zerrendatuak.



**4.11. Irudia.** TG eta DTG kurbak, ezkerrean KL eta bere frakzioenak, eta eskuinean OL eta bere frakzioenak.

Lagin gehienetan, %5eko masa degradazioa 100 °C-ko tenperaturen behetik gertatu zen, hezetasun galerarekin bat datorrena. Hala ere, %50eko masa degradazioa gertatu zeneko tenperatura aldatzen joan zen. Nahiz eta  $T_{50\%}$  balio guztiak 320-tik 400 °C-etarainoko tartean izan, prozesuan lortutako frakzioek joera antzekoa erakutsi zuten. KL F1 eta OL F1 frakzioek  $T_{50\%}$  balio baxuenak erakutsi zituzten, seguruenik hauek ere  $M_w$  txikieneako frakzioak

izatearen ondorioz, errazago degradatzen zirelako. Hala ere, SOSE prozesua aurrera joan ahala eta lortutako frakzioen  $M_w$ -ak handiagotu ahala,  $T_{50\%}$  balioak ere handiagoak ziren.

**4.10. Taula.** KL, OL eta frakzioen masa totalaren %5 eta %50 gertatzen den temperaturak, eta 800 °C-tan geratzen de errauts hondakina.


	<i>Lagina</i>	<i>KL</i>	<i>KL F1</i>	<i>KL F2</i>	<i>KL F3</i>	<i>KL F4</i>	<i>KL FI</i>
<i>TGA</i>	<i>T<sub>5%</sub> (°C)</i>	185	205	200	230	210	220
	<i>T<sub>50%</sub> (°C)</i>	430	435	470	460	510	440
	<i>Char (%)</i>	42.37	36.61	38.07	37.89	39.84	34.38
<i>DTGA</i>	<i>1. Etapa (°C)</i>	60	65	70	55	55	75
	<i>2. Etapa (°C)</i>	150	140	120	180	220	140
	<i>3. Etapa (°C)</i>	240	230	255	240	400	240
	<i>4. Etapa (°C)</i>	300	370	430	385		400
	<i>5. Etapa (°C)</i>	400					
	<i>OL</i>	<i>O1</i>	<i>O2</i>	<i>O3</i>	<i>O4</i>	<i>OI</i>	
<i>TGA</i>	<i>T<sub>5%</sub> (°C)</i>	80	230	185	220	190	220
	<i>T<sub>50%</sub> (°C)</i>	370	420	430	480	480	450
	<i>Char (%)</i>	31.85	30.86	32.64	64.59	37.06	33.81
<i>DTGA</i>	<i>1. Etapa (°C)</i>	60	60	70	60	60	70
	<i>2. Etapa (°C)</i>	350	385	130	280	260	195
	<i>3. Etapa (°C)</i>			230	385	375	295
	<i>4. Etapa (°C)</i>			400	530	520	410

Salbuespen bakarra KL F3 izan zen,  $T_{50\%}$  balioa txikiagoa lortu zuelarik, KL F2-k, KL F1-ek edo KL-k baino  $M_w$  handiago eduki arren. Honen arrazoia KL F3-k gainerako frakzioak baino OH talde alifatikoen eduki handiagoa edukitzea izan daiteke, talde hauek besteak baino degradagarriagoak baitira [30]. Hala ere, frakzio batzuk  $T_{50\%}$  balioa txikiagoa zuten, degradagarritasunarekin erlaziorik ez zutelarik. Ikatx eduki baxuagoek

karbono eduki baxuagoa dutela adierazten dute, atmosfera ineertean errez degradatzen ez direnak.

DTGA-ei dagokienez, frakzio desberdinek degradazio etapa kantitate eta tenperatura desberdinak erakutsi zituzten. 100 eta 150 °C-ko tenperatura tarteetako etapak hezetasun galerarekin erlazionatuak daude, 200 eta 300 °C artean polisakarido eta azido eta alkohol alifatikoen degradazioarekin erlazionatuak daude, 300 °C-tik gorakoak S eta G konposatueng eratzun aromatikoen degradazioei dagokiolarik, fenol, aldehido, alkohol eta azidoak lortuz [1].

**4.12 Irudiak** lignina desberdinen eta hauen frakzioen DSC kurbak erakusten ditu. DSC kurbetatik lortutako deribatuen analisiak  $T_g$  balioak lortzeko erabili ziren, eta 4.11 taulan zerrendatuak daude.



**4.12. Irudia.** KL eta frakzioen (ezkerrean) eta OL eta frakzioen (eskuinean) DSC kurbak.

**4.11. Taula.** KL, OL, eta frakzioen beira-trantsizioko tenperatura ( $T_g$ ).

	<b>KL</b>	<b>KL F1</b>	<b>KL F2</b>	<b>KL F3</b>	<b>KL F4</b>	<b>KL FI</b>
<b><math>T_g</math> (°C)</b>	128.67	114.2	123.47	164.18	175.26	191.01
<b>OL</b>	<b>OL F1</b>	<b>OL F2</b>	<b>OL F3</b>	<b>OL F4</b>	<b>OL FI</b>	
<b><math>T_g</math> (°C)</b>	139.71	103.01	111.62	152.11	157.75	177.56

Lortutako  $T_g$  balioek joera bera jarraitu zuten KL eta OL ligninentzat: KL FI>KL F4 >KL F3 >KL>KL F2 >KL F1 eta OL FI>OL F4 >OL F3 >OL>OL F2 >OL F1. Erlazio zuzenki proportzioanala ikusi zen  $M_w$  eta  $T_g$  balioen artean, lortutako ligninen kasuan 0.05 mailan korrelazio esanguratsua erakutsi zutelarik, 0.7651 eta 0.7844 Pearson balioak lortuz KL eta OL frakzioentzat, hurrenez hurren (4.9 Irudian ikusgai). Doiketa linealetik kanpotiko profila erakutsi zuten lignina bakarrak EtOH eta DMK disolbatzaileekin erauzitakoak izan ziren (KL F3, KL F4, OL F3 eta OL F4). Frakzio hauek egonkortasun termiko handiena erakutsi zuten baita ere 4.11 irudian.  $T_g$  balio handiagoa izatearen arrazoia lignina kondentsatuagoetan du oinarri ( $M_n$  altua), Allegreti et al. (2018)-k adierazi zuen bezala [31].

Flory-Fox modeloaren bitartez,  $T_g$ -ak  $M_n$ -en funtzio bezala modelatuz (4.8 irudian ikusgai), ezagutarazi zen Kraft frakzioen K balioa 3.41 zela, organosolv frakzioena 5.34 zen bitartean.  $T_{go}$  balioak 472.66 eta 464.94 izan ziren Kraft eta organosolv frakzioentzako hurrenez hurren (4.8 Irudia). Balio hauek Kraft ligninaren frakzionamendu solbolitikoan oinarritutako beste lan batzuek datuen antzekoak zirela ikusi zen [14,32].

## **4.5. ONDORIOAK**

Disolbatzaile organiko bidezko erauzketa sekuentzialaren metodoa pisu molekular homogeneoko frakzioak lortzeko erabili zen, ligninaren erauzketa metodoak (Kraft edo organosolv) eraginik erakutsi ez zuelarik. Disolbatzaile organikoak  $M_w$  desberdineko frakzioak lortzeko aukeratu ziren. Burututako ordenak goranzko  $M_w$  balioko frakzioak eman zituen.

Bestalde,  $M_w$  balioen bariazioak frakzioen egitura eta ezaugarri termokimikoak aldatu zituen.  $M_w$  handiagoko frakzioek S unitateetan eta OH taldeetan ugaritasun txikiagoa zuten bitartean, metil eta metoxi eduki handiagoa zuten. Ondorioz, S/G ratioa ere aldatu egin zen, frakzionamendu

prozesua aurrera joan ahala oraindik ere gehiago jaitsi zelarik.  $M_w$  balioen aldaketak frakzioen degradazio parametroak ere eraldatu zituen, lortutako azken frakzioak lignina molekula degradagaitzagoak lortuz.

Ondorioz, lortutako lignina frakzio desberdinek egitura eta ezaugarri bereiziak erakutsi zitzuten, material lignozelulosiko desberdinatik eratorriak direnean ezaugarri hauek konstante mantentzea espero direlarik. Nahiz eta lignina motak eragin minimoak izan azken frakzioen ezaugarrietan, ikerketa zabalagoa behar da metodoaren aplikagarritasuna lehengai aukera zabalagoekin bermatzeko.

Frakzio txikienak, talde hidroxiloetan aberatsenak, abantailatsua izango dira kimikoki aktiboak diren ligninak behar diren prozesuetan. Bestalde, lignina frakzio handiagoak erresistentzia termokimiko hobea duten materialetan gehitzeko onuragarriak dira. Aurkikuntza hauek metodo honen bidez lortutako lignina frakzioen moldakortasuna nabarmentzen dute, aplikazio industrial desberdinak hornituz.



## 4.6. ERREFERENTZIAK

- [1] Ramakoti B, Dhanagopal H, Deepa K, Rajesh M, Ramaswamy S, Tamilarasan K. Solvent fractionation of organosolv lignin to improve lignin homogeneity: Structural characterization. *Bioresour Technol Reports* 2019;7. <https://doi.org/10.1016/j.biteb.2019.100293>.
- [2] Matsushita Y. Conversion of technical lignins to functional materials with retained polymeric properties. *J Wood Sci* 2015;61:230–50. <https://doi.org/10.1007/s10086-015-1470-2>.
- [3] Melro E, Alves L, Antunes FE, Medronho B. A brief overview on lignin dissolution. *J Mol Liq* 2018;265:578–84. <https://doi.org/10.1016/j.molliq.2018.06.021>.
- [4] Lora JH, Glasser WG. Recent industrial applications of lignin: A sustainable alternative to nonrenewable materials. *J Polym Environ* 2002;10:39–48. <https://doi.org/10.1023/A:1021070006895>.
- [5] Wenger J, Haas V, Stern T. Why Can We Make Anything from Lignin Except Money? Towards a Broader Economic Perspective in Lignin Research. *Curr For Reports* 2020;6:294–308. <https://doi.org/10.1007/s40725-020-00126-3>.
- [6] Dessbesell L, Paleologou M, Leitch M, Pulkki R, Xu C (Charles). Global lignin supply overview and kraft lignin potential as an alternative for petroleum-based polymers. *Renew Sustain Energy Rev* 2020;123:109768. <https://doi.org/10.1016/j.rser.2020.109768>.
- [7] González M, Tejado Á, Peña C, Labidi J. Organosolv pulping process simulations. *Ind Eng Chem Res* 2008;47:1903–9. <https://doi.org/10.1021/ie070432j>.
- [8] Mesa L, González E, Cara C, González M, Castro E, Mussatto SI. The effect of organosolv pretreatment variables on enzymatic hydrolysis of sugarcane bagasse. *Chem Eng J* 2011;168:1157–62. <https://doi.org/10.1016/j.cej.2011.02.003>.

## Ligninan oinarritutako materialak energia biltegiratzeko aplikazioetarako

- [9] Gigli M, Crestini C. Fractionation of industrial lignins: opportunities and challenges. *Green Chem* 2020;22:4722–46.  
<https://doi.org/10.1039/d0gc01606c>.
- [10] Pang T, Wang G, Sun H, Sui W, Si C. Lignin fractionation: Effective strategy to reduce molecule weight dependent heterogeneity for upgraded lignin valorization. *Ind Crops Prod* 2021;165:113442.  
<https://doi.org/10.1016/j.indcrop.2021.113442>.
- [11] Li H, McDonald AG. Fractionation and characterization of industrial lignins. *Ind Crops Prod* 2014;62:67–76.  
<https://doi.org/10.1016/j.indcrop.2014.08.013>.
- [12] Tagami A, Gioia C, Lauberts M, Budnyak T, Moriana R, Lindström ME, et al. Solvent fractionation of softwood and hardwood kraft lignins for more efficient uses: Compositional, structural, thermal, antioxidant and adsorption properties. *Ind Crops Prod* 2019;129:123–34.  
<https://doi.org/10.1016/j.indcrop.2018.11.067>.
- [13] Domínguez-Robles J, Tamminen T, Liitiä T, Peresin MS, Rodríguez A, Jääskeläinen AS. Aqueous acetone fractionation of kraft, organosolv and soda lignins. *Int J Biol Macromol* 2018;106:979–87.  
<https://doi.org/10.1016/j.ijbiomac.2017.08.102>.
- [14] Park SY, Kim JY, Youn HJ, Choi JW. Fractionation of lignin macromolecules by sequential organic solvents systems and their characterization for further valuable applications. *Int J Biol Macromol* 2018;106:793–802.  
<https://doi.org/10.1016/j.ijbiomac.2017.08.069>.
- [15] Ajao O, Jeaidi J, Benali M, Abdelaziz OY, Hulteberg CP. Green solvents-based fractionation process for kraft lignin with controlled dispersity and molecular weight. *Bioresour Technol* 2019;291:121799.  
<https://doi.org/10.1016/j.biortech.2019.121799>.
- [16] Alfonsi K, Colberg J, Dunn PJ, Fevig T, Jennings S, Johnson TA, et al. Green chemistry tools to influence a medicinal chemistry and research chemistry based organisation. *Green Chem* 2008;10:31–6.  
<https://doi.org/10.1039/b711717e>.

- [17] Gordobil O, Moriana R, Zhang L, Labidi J, Sevastyanova O. Assesment of technical lignins for uses in biofuels and biomaterials: Structure-related properties , proximate analysis and chemical modification. *Ind Crop Prod* 2016;83:155–65. <https://doi.org/10.1016/j.indcrop.2015.12.048>.
- [18] Sluiter A, Hames B, Ruiz R, Scarlata C, Sluiter J, Templeton D, et al. Determination of structural carbohydrates and lignin in Biomass-Laboratory Analytical Procedure (LAP). 2012. <https://doi.org/NREL/TP-510-42618>.
- [19] Pan X, Arato C, Gilkes N, Gregg D, Mabee W, Pye K, et al. Biorefining of softwoods using ethanol organosolv pulping: Preliminary evaluation of process streams for manufacture of fuel-grade ethanol and co-products. *Biotechnol Bioeng* 2005;90:473–81. <https://doi.org/10.1002/bit.20453>.
- [20] Dong C, Meng X, Yeung CS, Tse HY, Ragauskas AJ, Leu SY. Diol pretreatment to fractionate a reactive lignin in lignocellulosic biomass biorefineries. *Green Chem* 2019;21:2788–800. <https://doi.org/10.1039/c9gc00596j>.
- [21] Alekhina M, Ershova O, Ebert A, Heikkinen S, Sixta H. Softwood kraft lignin for value-added applications: Fractionation and structural characterization. *Ind Crops Prod* 2015;66:220–8. <https://doi.org/10.1016/j.indcrop.2014.12.021>.
- [22] Gordobil O, Egüés I, Labidi J. Modification of Eucalyptus and Spruce organosolv lignins with fatty acids to use as filler in PLA 2016;i:45–52. <https://doi.org/10.1016/j.reactfunctpolym.2016.05.002>.
- [23] Del Río JC, Gutiérrez A, Hernando M, Landín P, Romero J, Martínez ÁT. Determining the influence of eucalypt lignin composition in paper pulp yield using Py-GC/MS. *J Anal Appl Pyrolysis* 2005;74:110–5. <https://doi.org/10.1016/j.jaap.2004.10.010>.
- [24] Gärtner A, Gellerstedt G, Tamminen T. Determination of phenolic hydroxyl groups in residual lignin using a modified UV-method. *Nord Pulp Pap Res J* 1999;14:163–70. <https://doi.org/10.3183/npprj-1999-14-02-p163-170>.
- [25] Bosch Ojeda C, Sanchez Rojas F. Recent applications in derivative

## Ligninan oinarritutako materialak energia biltegiratzeko aplikazioetarako

- ultraviolet/visible absorption spectrophotometry: 2009-2011. A review.  
Microchem J 2013;106:1-16.  
<https://doi.org/10.1016/j.microc.2012.05.012>.
- [26] Faleva A V., Belesov A V., Kozhevnikov AY, Falev DI, Chukhchin DG, Novozhilov E V. Analysis of the functional group composition of the spruce and birch phloem lignin. Int J Biol Macromol 2021;166:913-22. <https://doi.org/10.1016/j.ijbiomac.2020.10.248>.
- [27] Chen S, Cheng H, Wu S. Pyrolysis characteristics and volatiles formation rule of organic solvent fractionized kraft lignin. Fuel 2020;270:117520. <https://doi.org/10.1016/j.fuel.2020.117520>.
- [28] Tagami A, Gioia C, Lauberts M, Budnyak T, Moriana R, Lindström ME, et al. Solvent fractionation of softwood and hardwood kraft lignins for more efficient uses: Compositional, structural, thermal, antioxidant and adsorption properties. Ind Crops Prod 2019;129:123-34. <https://doi.org/10.1016/j.indcrop.2018.11.067>.
- [29] Wang YY, Li M, Wyman CE, Cai CM, Ragauskas AJ. Fast Fractionation of Technical Lignins by Organic Cosolvents. ACS Sustain Chem Eng 2018;6:6064-72. <https://doi.org/10.1021/acssuschemeng.7b04546>.
- [30] Tejado A, Peña C, Labidi J, Echeverria JM, Mondragon I. Physico-chemical characterization of lignins from different sources for use in phenol-formaldehyde resin synthesis. Bioresour Technol 2007;98:1655-63. <https://doi.org/10.1016/j.biortech.2006.05.042>.
- [31] Allegretti C, Fontanay S, Krauke Y, Luebbert M, Strini A, Troquet J, et al. Fractionation of Soda Pulp Lignin in Aqueous Solvent through Membrane-Assisted Ultrafiltration. ACS Sustain Chem Eng 2018;6:9056-64. <https://doi.org/10.1021/acssuschemeng.8b01410>.
- [32] Passoni V, Scarica C, Levi M, Turri S, Griffini G. Fractionation of Industrial Softwood Kraft Lignin: Solvent Selection as a Tool for Tailored Material Properties. ACS Sustain Chem Eng 2016;4:2232-42. <https://doi.org/10.1021/acssuschemeng.5b01722>.

---

## **5. LIGNINAREN ERALDAKETAK**



## 5.1. MOTIBAZIOA

Lignina hondakin bezala kontsideratu izan den eta hainbat aplikaziotarako balio erantsi handiko produktu bezala erabiltzeko kontuan hartu izan ez den materiala da. Nahiz eta bere kimika interesarria izan eta gaur egun erabiltzen diren petroliotik eratorritako kimiko eta materialak ordezkatzeko gaitasuna izan [1], heterogeneitate altua eta formazio ez-ordenatua dute [2]. Birfindegia prozesu berri eta berdeagoen garapenean aurrerapenak burutu dira, non likido ioniko (IL-k), disolbatzaile eutektiko sakonak (DES) bezalako disolbatzaile jasangarriagoak erabiltzeaz gain [3], lignina transformatu eta eraldatzeko prozesuak diseinatu diren, balio handiko produktu bezala balioesteko helburuarekin. Despolimerizazioa, pirolisia eta hidroprozesaketa bezalako prozesuak oso aztertuak izan dira, ultrairagazpen, pH bidezko hauspeatze selektibo, mintz bidezko iragazketa mekaniko, eta disolbatzaile berdeen bidezko frakzionamendua bezalako prozesuez gain [4].

Ligninaren balioa handitzeko estrategia aztertuenetakoa bere oxidazioa da, aldehido aromatikoak (bainilina industrialki manufakturatua), zetonak, eta azidoak bezalako molekula txikiagoak lortzeko bide delarik [5–7]. Lignina molekulen barne loturak hautsiz, gaur egungo merkatuan dauden erregai fosiletatik eratorritako konposatu aromatikoak ordezkatzeko ligninak duen gaitasuna erabat handitzen da. Horrez gain, molekula hauen lorpenak, talde funtzional errektiboen ugaritzearen ondorioz hauen aitzindariak baino homogeneoago eta funtzionalizatuagoak, balio erantsiko merkatuetarako konposatu elementu bezala erabiltzea errazten dute [8]. Itsasgarri [9], poliester termoegonkorren estaldurak [10], sendagaien banaketarako nanogarraiatzailak [11], agente antioxidatzaile/antimikrobiokoak, argia biltzeko konplexuak, ingurune erremediazioa edo elektrodo material bezala erabili izan dira adibidez [12].

Oxidazio erreakzio selektibo asko diseinatu dira lignina molekulak hautsi eta funtzionalizatzeko, ozonazioa, oxidazio katalitikoa, fotokatalitikoa, US irradiaketa, eta oxidazio elektrokimikoa bezalako prozesu jasangarriagoak eta energetikoki eraginkorragoak nabariaraziz [13]. Adibidez, Garedew et al. (2020)-ek, oxidazio prozesu elektrokatalitikoan oinarritutako lanak burutu zituen, non giro-tenperatura eta presioetan produktu desberdinak lortu ziren potentziala egokituz [14]. Trantsizio metal desberdinak erabili izan dira prozesuen katalizatzaile modura [15], edo likido ioniko protikoak bezalako disolbatzaile alternatiboak ere erabili izan dira [16,17]. Horrez gain, oxidazio hidrotermikoa [18], despolimerizazio entzimatikoa [19,20], eta funtzionalizazio prozedura desberdinak [21,22] burutu izan dira. Prozesu hauetatik lortutako produktu ohikoenak pisu molekular baxuko konposatu fenolikoak (LMWPC) dira, hala nola aldehido fenolikoak, zetonak eta azidoak [23].

Bestalde, azido mukonikoa, maleikoa edo sukzinikoa bezalako azido díkarboxilikoak (DCA-k) lor daitezke ligninaren frakzionamendu oxidatiboaren bitartez, gaur egungo prozesuak ordezkatuz [24]. Azkenik, ligninaren oxidaziotik lor daitezkeen beste konposatuen familia konposatu aromatikoen deribatu oxidatua da, kinonak bezala ezagutuak. Molekula hauek interesgarriak dira Kraft prozesuetan katalizatzaile bezala erabiltzeko, oreatze prozesuaren errendimendua hobetzeko, edo molekula organiko erredox aktibo bezala, energia biltegiratze prozesuetan erabiltzen diren metal erredox aktiboak ordezkatzen, biomasatik eratorritako material merkeen gehitzea bultzatzuz [25].

Ligninaren oxidazioa katalizatzaile kimiko desberdinak (homogeneoak zein heterogeneoak) erabiliz modu hedatuak ikertu da. Konposatu mota desberdinak erabili izan dira agente katalizatzaile modura, ohikoenak diren metalikoetatik hasiz, Cu-a bezala [26], Cu-Au edo Fe-Au bezalako bimetalez dopatutako TiO<sub>2</sub>-ra arte [27], KOH-az [28] edo KO<sup>t</sup>Bu-az [29] gain. Agente

katalitiko hauek beste agente oxidatzaile batzuekin batera erabili izan dira modu zabalean,  $H_2O_2$ -a bezala, paper industrian modu hedatuak erabilitako agente zuritzalea delarik. Hidrogeno peroxidoa deskonposizio erreakzioekiko oso sentikorra da, bereziki temperatura eta pH altuak erabiltzen direnean [30]. Ligninen fenol taldeekin erreakzionatzeko gai dela azaldu izan da, fenoxi erradikalak sortuz, eta hauek pisu molekular baxuko konposatuetan degradatzen dira. Hala ere, erreakzio hauek metalak gehitzean edo pH balioa peroxidoaren  $pK_a$  balioaren antzekoa (11.7) mantentzean burutzen dira [31]. Degradazio erreakzio minimoak baldintza arinagoetan gerta daitezke hala eta guztiz ere, egitura fenolikoetatik erreakzio produktu primarioak (kinonak nagusiki) lortuz [32].

Lignina US irradiazioa ezarriz balioztatu daiteke baita ere, kabitazio akustikoan oinarriturik. Baldintza egokietan irradiatutako likidoek, lurrun burbuilak sortu, hedatu eta kolapsatu ditzakete, hauek kabitazio efektuaren ondorioz erradikalak eratuz [33]. Kabitazio efektu hau burbuilen inplosioaren ondorioz sortzen da, presio eta temperatura altuko guneak sortuz, likidoa orokorrean temperatura kontrolatuan mantentzen delarik. US-a birfindegia prozesuetan deslignifikazio prozesuak hobetzeko erabili izan da gehienbat, erauzketa etekinak eta purutasuna handituz. Hala ere, duela gutxi, teknologia hau lignina nanopartikulak sintetizatzeko gai dela aztertu da, nanozelulosa eta nanokitina bezalako entitateen antzera [34]. Lignina ultrasoinu indarren menpe jartzean, molekulen tamaina nabarmenki txikiagotzen da, kabitazio efektuaren moduan eragindako indarrek egituraren dauden lotura molekularrak haustearen ondorioz [35]. Beraz, 100 nm diametro inguruko nanolignina esferikoak lor daitezke, beraien artean berriro lotzeko eta molekula handiagoen eratzea fisikoki ekidinez [34,36].

Bestalde, lignina balioztatzeko beste aukera bat bere egitura eraldatzea eta talde funtzional berriak sartzea da. Hurbilketa interesgarri bat talde funtzional hidrofilikoen gehiketa da, Kraft eta organosolv ligninen prozesaketa zailari aurre egiten lagunduko liokeen hurbilketa izanik [37]. Nahiz eta talde funtzional hidrofilikoak lignina partikuletan aurkitu, egitura tolestu eta konplexuaren ondorioz eragotziak egon ohi dira. Hori dela eta, lignina molekuletan hainbat talde funtzional sartzea bide interesgarria izan daiteke ura bezalako disolbatzaile polarretan disolbagarriagoak bihurtzeko [38].

Hainbat eraldaketa proposatu izan dira ezaugarri desberdinako ligninak sintetizatzeko, hidrofilizitate handiagoko materialak lortzeko helburuarekin, material hauen prozesagarritasuna errazteko eta aplikazio desberdinatarako material hauen errendimendua hobetzeko [39–43].

Karboximetilazio erreakzioa uretan disolbagarriak diren partikulak lortzeko modu hedatuena erabili izan den eraldaketa bat da. Zelulosarekin zabalki erabili izan da, izan ere, kristalizazio maila altuak bere disolbagarritasuna zaitzen du uretan. Lortzen den zelulosa karboximetilatua (CMC) elikagaien ontziraketan [44], aplikazio biomedikoetan [45], farmazeutikoetan [46], eta oihal industria bezalako aplikazioetan erabili izan da [47]. Horrez gain, garbiketa eta higiene pertsonalen produktuetan ere erabili izan ohi da [46]. Uretan duen disolbagarritasunaren eta lortzen duen likatasun balioen ondorioz, lodigarri, egonkortzaile, eta likatasun eraldatzaile bezala erabiltzeko ezaugarri interesgarriak dauzka, hala nola, elikagaietan, hortzetako pasta eta lozioak bezalako higiene pertsonaleko produktuetan, edota pilula farmazeutikoen prestaketen eta paper eta ontziratze materialen (kartoi edo kutxen) aglomeratzairen bezala [47].

Berriki, kitosanoa bezalako beste biomaterialekin estrategia antzekoa jarraitu da, non kitosano karboximetilatua (CMCS) kosmetika [48], medikamentuak garraiatzeko sistema [49], ur hondakinen tratamendu, elikagaien kontserbazio, eta mintz teknologiak bezalako aplikazioetan erabili izan den. Lignina karboximetilatua (CML) bestalde, ikerketapean dago oraindik, baina potentzial handia erakusten ari da buztin suspentsioen dispersatzale [50,51], malutatzaile [52], fosforeszentzia bikaineko argitasun sekundarioa duen material [53], hazkuntza azkarreko zuren ezaugarri fisiko eta mekanikoak hobetzeko eraldatzaile hibrido [54], eta metal astunen ioien adsortzio agente [55] bezalako aplikazioetan.

Beste lignina eraldaketa ohiko bat Kraft eta organosolv lignina motentzat, ura bezalako disolbatzaileetan duen disolbagarritasuna handitzeko, sulfato oreatze prozesuetan lortutako ligninen funtzionalizazioak imitatzea da. Sulfometilazio erreakzioa (SM) prozedura jasangarritzat kontsideratzen da, erreaktibo arriskutsurik erabiltzen ez delako, eta aurretik aipatutako disolbagarritasun, gainazaleko aktibilitate (uretan dispersioa hobetuz), ezaugarri ionikoak (uretan ionizatzeko gaitasunarekin) eta polimeroekin bateragarritasuna bezalako ezaugariak lortzen direlako ligninan. Ezaugarri hauek modifikazio metodo hau erakargarri bihurtzen dute sakabanatzaile eta emultsionatzaile bezalako formulazioetan, argitaratutako hainbat lanen helburu izan delarik. Adibidez, pisu molekular desberdinako ligninak aztertu ziren TiO<sub>2</sub>-aren sakabanaketa optimoa lortzeko [56], eta talde sulfonikoen eduki desberdinak lortu ziren koloragarrien dispersioen formulaziorako [41]. Kaolinaren sakabanatzaile bezala erabili dira baita ere [57] eta oliaoa uretan egonkortzeko emultsionatzaile bezala [43]. Entzimatikoki hidrolizatutako lignina (EHL) [42] emultsio mota hauetan ere erabili izan da, grafitoaren sakabanatzaile bezala erabiltzeaz gain [58]. Azkenik, lignina sulfometilatua (SML) pirrolidona eta azido poliakrilikoa bezalako beste konposatu batzuekin txertatu da lignina kobalto urdin [59]

edo ur hondakinen tratamenduan metal astunen ioiak deuseztatzeko hidrogel modura [60], hurrenez hurren.

Ugaritasunarekin erabilitako beste lignina modifikazio mota bat bere hidroxilo taldearen alkilazio erreakzioa da. Alkilazio erreakzio desberdinan bitartez ligninaren erreaktibitate eta funtzionalitatea aldatzea nahiko erraza da, auto-polimerizazioa ekiditen duen egonkortasun termikoa hobetzeaz gain [61]. Lignina partikuletan dauden hidroxilo taldeak blokeatzeko modu bat da, adibidez, talde funtzional hauek lignina nanopartikulen eraketan duten eragina aztertzeko erabilgarria izan daitekeelarik. Talde funtzional espezifiko hauek blokeatuz, metilazio maila determinatzeaz gain, ligninaren hidroxilo taldeen eta ingurunearen artean sortutako interakzioa erregulatu daiteke, ondorioz lortutako nanopartikularen tamaina kontrolatu daitekeelarik [62]. Eraldaketa hau, nanoligninen lorpenerako interesgarria izateaz gain, lignina metilatuaren egitura hidrofoboa karbono nanohodien dispertsiorako eraginkorra dela egiaztatu da [63].

## 5.2. HELBURUAK

Atal honen lehenengo zatiaren helburua funtzionalizazio maila eta azalera altuko lignina nanopartikula oxidatuak lortzea da. Helburu hau lortzeko diseinatutako bidea baldintza arinetan oinarritutako Kraft ligninaren oxidazioa zen, agente oxidatzaile ( $H_2O_2$ ) eta ultrasoinu kabitazioen akzio konbinatuarekin, aurretik aztertu ez den mekanismo integratu berritzalearen bitartez. Prozedura hau, beraz, alternatiba bat izan daiteke ligninan aurkitzen diren egitura fenolikoen erreakzio primarioen produktuak lortzeko, orain arte modu zabalagoan aztertu izan diren mekanismoak ekidinez, eta kinona bezalako pisu molekular baxuko molekula erredox aktiboak lortuz. Konposatu hauek hainbat aplikaziotarako izan dira aztertuak, aplikazio biologikoetatik hasita,

bere ezaugarri inmunotoxiko, zitotoxiko eta kartzinogenikoenengatik [64], aplikazio elektrokimikoetaraino, bateria mota desberdineta erabiliak, erredox-fluxu bateriak [65], zink-iodi bateriak [66] edo sodio-iodi bateriak bezalakoak [67].

Horrez gain, nano tamainako partikulak lortzeak, azalera eta bolumenaren arteko ratioa handiagotuz, ezaugarriak hobetzen dituela frogatu da, lignina kosmetika [68], ezaugarri mekaniko hobetueta polimero nanocomposite, edota energia biltegiratze material bezalako aplikazio sorta zabalagoan gehitzeko ahalmenarekin [69]. Behin metodoa Kraft lignina nanopartikula oxidatuak lortzeko egokia zela balioztatutakoan, baldintza optimoa organosolv lignina tratatzeko erabili zen, tratamendua erreplikatzeko helburuarekin.

Bestalde, atalaren azken zatian, eraldaketa mota desberdinek ligninaren ezaugarrietan nola eragiten duten aztertu zen. Karboximetilazio eta sulfometilazio erreakzioak lignina molekulen hidrofilizitatea hobetzen duten bitartean, polartasunaren handitzearen ondorioz, metilazio erreakzioak aurkako efektua du, hidrofilizitatea jaisten duelarik polaritatearen jaitsieraren ondorioz. Honela, nahiz eta eraldaketa guztiak ezaugarri amankomunak izan, egitura kondentsatuagoen sorrera eta egonkortasun termiko hobea bezalakoak, berriki gehitutako talde funtzionalen izaera kimiko desberdinek lignina eraldatuen prozesaketa eta egonkortasun akuosoarekin erlazionatutako ezaugarri desberdinak izango dituzte. Hain zuzen ere, karboximetilazio eta sulfometilazio erreakzioek talde funtzional anionikoak sartzen dituzte, uretan ligninaren dispercio hobeak lortuz, metilazio erreakzioak lignina nanopartikulen eraketa sustatzen duen bitartean, ligninaren egonkortasun eta errendimenduaren hobekuntzan onuragarria delarik.

## 5.3. PROZEDURA EXPERIMENTALA

### 5.3.1. LIGNINAREN OXIDAZIO SONOKIMIKOA

Lignina nanopartikula oxidatuak baldintza desberdinak erabiliz sintetizatu ziren. Horretarako, STRATIGRAPHIC Centurion XV softwareak diseinatutako modelo esperimentala erabili zen. Bi mailako edo gehiagoko diseinu faktoriala aukeratu zen, maila desberdinako hiru faktore esperimentalekin (3 maila temperatura (T) eta denbora aldagaientzako (t), eta erantzun-aldagai bat (Z Potentziala (ZP))). Hemezortzi esperimentu desberdin diseinatu ziren, 5.1. taulan lagin bakoitza sintetizatzeko erabilitako baldintza zehatzak zerrendatuak daudelarik.


Laburki, Kraft lignina (KL) %4 pisu ehuneko NaOH disoluzioan disolbatu zen, 1:20 (w/v) solido likido ratioa erabiliz eta giro temperaturan (RT), 2 orduz irabiagailu magnetiko bidez (400 rpm) nahastuz. Ondoren, H<sub>2</sub>O<sub>2</sub> (50%) gehitu zen, ligninarekiko 0.1 ratio baliokidean. Temperatura balioa 30 °C, 45 °C eta 60 °C-tara finkatu ziren, eta 15, 30, eta 45 minutuko denboretan zehar burutu ziren erreakzioak. Aukeratutako lan baldintzak (temperatura baxu eta erreakzio denborak) ultrasoinuaren intentsifikazioarekin batera, literaturan aurkeztutako emaitza antzekoak lortzeko gai dira [34,70].

Erreakzioak 100 mL-ko atorra zelda batean burutu ziren, 20 kHz VCX 750 elikatze-iturria erabiliz (Sonics & Materials, USA), bihurgailu piezoelektriko batez hornitua eta 13 mm-ko titaniozko aleazio tronpa bati konektatua (Ti-6Al-4V), eta anplitudea 57.5 µm-tara finkatua; tenperatura egonkor mantendu zen zehaztasun handiko termostato baten bidez (Huber, Germany), prozesaketa zeldari konektatua. Erreakzioa amaitutakoan, produktua %2 (v/v) H<sub>2</sub>SO<sub>4</sub> disoluzioaren bi bolumen erabiliz erauzi zen. Ondoren, prezipitatua zentrifugatu eta ur distilatuaren bidez hiru aldiz garbitu zen. Azkenik, lignina garbiak

presiopean iragazi ziren filtro euskarri bat erabiliz (Sartorius, Germany), 0.22 µm poro tamainako nylon filtro batez hornitua, eta 30 °C-tan lehortu zen. Jarraitutako prozedura 5.1 irudian dago ikusgai.

**5.1. Taula.** Ligninaren oxidazio sonokimikoen erreakzio baldintzak.

Lagina	T (°C)	t (min)	[H <sub>2</sub> O <sub>2</sub> ] (bal)
<b>OxL1</b>	30	15	0
<b>OxL2</b>	30	30	0
<b>OxL3</b>	30	60	0
<b>OxL4</b>	30	15	0.1
<b>OxL5</b>	30	30	0.1
<b>OxL6</b>	30	60	0.1
<b>OxL7</b>	45	15	0
<b>OxL8</b>	45	30	0
<b>OxL9</b>	45	60	0
<b>OxL10</b>	45	15	0.1
<b>OxL11</b>	45	30	0.1
<b>OxL12</b>	45	60	0.1
<b>OxL13</b>	60	15	0
<b>OxL14</b>	60	30	0
<b>OxL15</b>	60	60	0
<b>OxL16</b>	60	15	0.1
<b>OxL17</b>	60	30	0.1
<b>OxL18</b>	60	60	0.1



**5.1. Irudia.** Oxidazio erreakzio sonokimikoaren metodologiaren eskema.

### 5.3.2. OXIDATUTAKO LIGNINA NANOPARTIKULEN KARAKTERIZAZIOA


Lagin oxidatuen ezaugarri kimiko, fisikokimiko morfologiko eta termikoak teknika desberdinaren bitartez lortu ziren. Hidrolisi azido kuantitatiboa (QAH) lignina oxidatuen laginen purutasuna determinatzeko erabili zen, eduki elementalaren analisi elementalaren bidez (EA), sulfametazina Leco-a kalibrazio bezala erabiliz. Batez besteko pisu molekularra pisuan ( $M_w$ ) eta kopuruan ( $M_n$ ) eta polisakabanatze-maila (PI) GPC bidez determinatu ziren.

Ezaugarri kimikoak FTIR bidez behatu ziren, eta UV-vis espektrofotometroa eduki fenoliko totala (TPC), Folin-Ciocalteau metodoaren bitartez, eta OH talde konjugatu eta ez-konjugatuak determinatzeko erabili zen.  $^{31}P$  NMR talde hidroxiloak kuantifikatzeko eta S/G ratioa lortzeko erabili zen, eta TGA eta DSC-a ezaugarri termikoen analisirako erabili ziren. Azkenik, ezaugarri morfologikoak DLS eta TEM tekniken bitartez baiezztatu ziren.

### 5.3.3. KARBOXIMETILAZIO ERREAKZIOA

Karboximetilazio erreakzioaren baldintzak Konduri et al. (2015)-ek [50] optimoak bezala adierazitakoak erabiltzea erabaki zen, eta erreakzio mekanismoa 5.2. irudian dago ikusgai.

1 g KL eta OL 0.15 M-eko NaOH disoluzioaren 60 mL-tan disolbatu zen. 3 mol sodio kloroazetato (SCA) gehitu ziren lignina mol bakoitzeko, eta 100 mL-ko matraze hondobiribil batera gehitu ziren. Erreakzioa 4 orduz burutu zen, 150 rpm irabiaketa magnetiko eta 40 °C-ko tenperaturan. Behin erreakzio denbora burututakoan, disoluzioa epeldu eta pH-a gradualki doitu zen neutraltasunera, 1 M H<sub>2</sub>SO<sub>4</sub> gehituz. Disoluzioa dialisi poltsa batean (6-8 kDa poro tamainakoa) sartu zen eta osmosi bidez H<sub>2</sub>O distilatuaren aurka, erreaktibo erreakzionatu gabeak kanporatu zitezen. Ura 12 orduro aldatu zen, 2 egunen zehar, eta disoluzioa 105 °C-ko labean lehortu zen.




**5.2. Irudia.** Ligninaren karboximetilazio erreakzioaren mekanismoa.

### 5.3.4. SULFOMETILAZIO ERREAKZIOA

Jarraitutako sulfometilazio erreakzioaren baldintzak Yang et al. (2014)-ek [71] adierazitakoengen berdinak izan ziren, erreakzio mekanismoa 5.3. irudian azaltzen delarik.

1 g lignina 0.15 M NaOH disoluzioko 60 mL-tan disolbatu zen. Disoluzioa 100 mL-ko matraze hondobiribil batera transferitu zen eta 70 °C-taraino

berotu. Ondoren, 37%-ko 0.041 g formaldehido gehitu eta 1 h-z nahastu ziren. Horren ondoren, 0.6 g Na<sub>2</sub>SO<sub>4</sub> gehitu ziren, eta temperatura berriro igo zen, oraingoan 95 °C-taraino, eta 3 h-z mantendu zen. Erreakzioa amaitutakoan, disoluzioa giro temperaturara hoztu zen, pH-a 6-ra doitu, eta disoluzioa egun batzuetan zehar dializatu, 12 orduro ura aldatuz, erreakzionatu gabeko errektiboak kanporatzeko. Lignina eraldatua 105 °C-tan lehortu zen labean.




**5.3. Irudia.** Ligninaren sulfometilazio erreakzioaren mekanismoa.

### 5.3.5. METILAZIO ERREAKZIOA

Metilazio erreakzioa Sen et al (2015)-ek [61] adierazitakoa jarraituz burutu zen, erreakzio mekanismoa 5.4 irudian ikusgai dagoelarik.

1 g lignina 15 mL dimetilsulfoxidotan (DMS) disolbatu zen. Ondoren, ligninaren hidroxilo fenolikoen eduki totalaren 2 baliokide NaOH gehitu ziren, 10 baliokide dimetil karbonatoarekin (DMC) batera. Disoluzioa, ondoren, 150 °C-tara igo eta 15 h-z mantendu zen. Erreakzioa amaitutakoan, RT-ra hoztu eta 2 M HCl-ren 50 mL erabiliz azidifikatu zen, lignina eraldatua erauziz. Lignina 0.45 µm poro tamainako nylon filtro paperak erabiliz iragazi eta 4 aldiz garbitu zen ur destilatuaren 50 mL erabiliz aldi bakoitzean. Behin garbituta, 60 °C-tan lehortu zen gau oso batez.



**5.4. Irudia.** Ligninaren metilazio erreakzioaren mekanismoa.

### 5.3.6. LORTUTAKO LIGNINA KARBOXIMETILATU, SULFOMETILATU ETA METILATUEN KARAKTERIZAZIOA.

Laginak FTIR, GPC,  $^{31}\text{P}$  NMR,  $^{13}\text{C}$  NMR, DLS, eta TGA teknikak erabiliz karakterizatu ziren, eta ezaugarri kimiko, fisikokimiko, termiko eta morfologikoak zehaztu ziren. Behatutako desberdintasunak burututako eraldaketa kimikoetan txertatutako talde funtzional berriei atxiki zitzaien.

## 5.4. EMAITZAK ETA EZTABAIDA

### 5.4.1. OXIDATUTAKO LIGNINA NANOPARTIKULEN PRODUKZIOA

#### 5.4.1.1. Prozesu sonokimikoaren diseinu esperimentalua

Bi maila edo maila gehiagoko metodo faktoriala erabiliz, hemezortzi esperimentu desberdin diseinatu ziren, non T, t eta  $[\text{H}_2\text{O}_2]$  faktore

esperimental bezala aukeratu ziren. T eta t 3 mailako faktoreak ziren, 30, 45, eta 60 °C eta 15, 30, eta 60 min mailen balioak zirelarik, hurrenez hurren. Bestalde,  $[H_2O_2]$  2 mailako faktorea zen, non ligninarekiko  $H_2O_2$ -ren 0.0 eta 0.1 balioakideak erabili ziren. Esperimentu bakoitzaren Z Potenzial balio esperimentalak, argi-dispersio dinamikoaren (DLS) bitartez neurtu ziren. Mendeko aldagai bezala konsideratuak, eta 5.2 taulan laburtuak, aldagai aske normalizatuekin batera.

**5.2. Taula.** Aldagai independiente normalizatuak, temperatura ( $X_1$ ), denbora ( $X_2$ ), eta  $[H_2O_2]$  ( $X_3$ ), neurtutako menpeko aldagaien balioekin batera ( $Y_{ZP}$ ).

<b>Lagina</b>	<b><math>X_1</math></b>	<b><math>X_2</math></b>	<b><math>X_3</math></b>	<b><math>Y_{ZP}</math></b>
<b>OxL1</b>	-1	-1	-1	-42.68
<b>OxL2</b>	-1	0	-1	-43.34
<b>OxL3</b>	-1	1	-1	-45.98
<b>OxL4</b>	-1	-1	1	-33.74
<b>OxL5</b>	-1	0	1	-33.19
<b>OxL6</b>	-1	1	1	-32.68
<b>OxL7</b>	0	-1	-1	-29.91
<b>OxL8</b>	0	0	-1	-32.46
<b>OxL9</b>	0	1	-1	-38.22
<b>OxL10</b>	0	-1	0	-29.91
<b>OxL11</b>	0	0	0	-28.66
<b>OxL12</b>	0	1	0	-32.72
<b>OxL13</b>	1	-1	-1	-33.19
<b>OxL14</b>	1	0	-1	-33.52
<b>OxL15</b>	1	1	-1	-33.91
<b>OxL16</b>	1	-1	1	-29.19
<b>OxL17</b>	1	0	1	-35.39
<b>OxL18</b>	1	1	1	-35.23

Z potentzialaren modelo koadratiko osoarentzako erregresio koefizienteak, hauen desbideraketa estandarra eta dagokien balio estatistikoak (*t*), Student *t*-testaren arabera, 5.3 taulan daude zerrendatuak. Horrez gain, Z Potentzialaren Pareto Diagrama estandarizatua 5.5 irudian azaltzen da.

### 5.3. Taula. Z Potentzialen modelo koadratiko osoen erregresio koefizienteak.

<i>Koefizienteak</i>	<i>Y<sub>ZP</sub></i>	<i>Desbideraketa estandarra</i>	<i>t</i>
<i>b<sub>0</sub></i>	-31.7408 <sup>a</sup>	1.16813	-27.1723
<i>b<sub>1</sub></i>	2.5967 <sup>a</sup>	0.6398	4.0585
<i>b<sub>2</sub></i>	-1.6771 <sup>b</sup>	0.6398	-2.6212
<i>b<sub>3</sub></i>	2.6306 <sup>a</sup>	0.5224	4.5186
<i>b<sub>12</sub></i>	-0.5650	0.7836	-0.7210
<i>b<sub>13</sub></i>	-2.6308 <sup>a</sup>	0.6398	-4.1119
<i>b<sub>23</sub></i>	0.3788	0.6398	0.5920
<i>b<sub>11</sub></i>	-4.0250 <sup>a</sup>	1.1082	-3.6321
<i>b<sub>22</sub></i>	-0.3538	1.1082	-0.3192

<sup>a</sup>Koefiziente esanguratsuak %99ko kofiantza mailan.


<sup>b</sup>Koefiziente esanguratsuak %95eko kofiantza mailan.

5.3 Taulan ikusten den bezala, ZP mendeko aldagaiia (*Y<sub>ZP</sub>*) tenperatura (*X<sub>1</sub>*), denbora (*X<sub>2</sub>*) eta [H<sub>2</sub>O<sub>2</sub>] (*X<sub>3</sub>*) aldagai independenteekin erlaziona daiteke, bigarren mailako ekuazio polinomialaren bitartez (5.2 ekuazioa):

$$Y_{ZP} = -31.7408 + 2.5967X_1 - 1.6771X_2 + 2.3606X_3 - 0.5650X_1X_2 - 2.6308X_1X_3 + 0.3788X_2X_3 - 4.0250X_1^2 - 0.3538X_2^2 \quad 5.2 \text{ Ek}$$

Bestalde, Pareto diagramak *X<sub>1</sub>* *X<sub>2</sub>*, *X<sub>2</sub>* *X<sub>3</sub>* eta denboraren efektu kuadratikoaren (*X<sub>2</sub><sup>2</sup>*) aldagaien interakzioak alde batera utziz, gainerako aldagaiiek %95eko esangura-maila baino altuagoa dute. Honen antzera, tenperatura eta [H<sub>2</sub>O<sub>2</sub>]-k Z potentzialean modu negatiboan eragin zutela

aztertu zen, denborak modu positiboan eragin zuen bitartean. Horrez gain,  $[H_2O_2]$ -k, temperaturak, eta bien konbinaketak ( $X_1X_3$ ) esangura handieneko aldagaiaik direla ikusi zen.



**5.5. Irudia.** Z Potenzialaren Pareto diagram estandarizatua.

ANOVA bat burutu zen Z potentzialaren modelo koadratiko doituaren baliozkotasuna ebaluatzeko. Beraz, 5.4 taulan  $R^2$  determinazio-koefizientea,  $R^2$  doitua eta erregresioaren esangura estatistikoa laburbiltzen dira.

**5.4. Taula.** Z potentzialaren modelo koadratiko osoaren bariantza-analisia.

Jatorria	Karratuen gehiketa	AG	Karratuen batezbestekoa	F-balioa	P-balioa
<b>Erregresioa</b>	367.5971	8	45.9496	9.3540	0.0015
<b>Errorea</b>	44.2108	9	4.9123		
<b>Totala</b>	411.8079	17	24.2240		
<b>R<sup>2</sup></b>			0.8926		
<b>R<sup>2</sup> (ag-rentzako doitua)</b>			0.7972		

5.4 Taulari dagokionez, lortutako  $R^2$  determinazio-koefizienteak 0.8926-ko balioa zuen. Balio honek modeloak Z potentzialaren aldakortasun osoaren %90 inguru kontuan hartzen duela esan nahi du. Aldakortasun osoaren zati txiki bat, %10.74 zehazki, besterik geratu zen azaldu gabe modeloaren bitartez. Lortutako  $R^2$  determinazio-koefizientearen arabera, modeloaukeratutako aldagai independenteen eta Z potentzialaren arteko interakzioak deskribatzeko apropoa dela ondoriozta daiteke.

Bestalde, modeloaren aurreikusteko gaitasuna, Fisherren F-testaren bitartez determinatua, %95eko konfiantza-mailan, esangura estatistikoa baiezztatu zuen. Hau F-balioaren erregresiotik nabarmendu zen, 0.0015-eko p-balioa lortuz.

Aurretik aipatu bezala, diseinatutako modelo matematikoarekin, oxidatutako lignina nanopartikulen Z potentziala prozesu sonokimikoaren tenperatura, denbora eta  $[H_2O_2]$  aldatuz aurreikus daiteke. Modelo hau erabiliz, Z potentzial balio minimoa, oxidatutako lignina nanopartikulen egonkortasun hoherena izango duena, ondorengo baldintzetan lortzen dela ziurtatu daiteke: 30°C, 60 minutu, eta  $H_2O_2$  gehitu gabe. Baldintza hauek hirugarren esperimentuaren baldintzakin datozen bat.

Hala ere, nahiz eta jakina izan prozesu sonokimikoaren puntu optimoa, 18 esperimentuetan lortutako oxidatutako lignina nanopartikulen karakterizazio sakona burutu zen. Hau parametro guztieta eta nanopartikulen ezaugarrieta aztertutako aldagai desberdinek nola eragiten duten aztertzeko burutu zen.

#### **5.4.1.2. Etekina, pH aldaketa, eta sistemari banatutako energia totala.**

Sistemari banatutako energia totala lagin bakoitzeko dokumentatu zen, 5.3 ekuazioak adierazten duen ultrasoinu ahalmen eta igarotako denborarekin erlazionatuta:

$$E = P \cdot t$$

5.3. Ek

non E sistemari banatutako energia de, P ultrasoinu ahalmena, eta t igarotako denbora diren.


Lortutako oxidatutako lignina nanopartikulen etekinak, 5.5 taulan zerrendatuak, antzekoak dira lagin gehienentzat. Produktuaren galera prozesuan zehar burututako pauso desberdinaren gertatu zen, hala nola erauzketa, zentrifugazio eta iragazketa ataletan. Nahiz eta kantitate nahiko esanguratsua galdu (%25 inguru), berreskuratze atalak optimizatz, errez lortu ahalko litzateke honen murrizketa.

Sistemari bidalitako energiari dagokienez, 5.6 irudian ikusgai, jarraitutako joera denborarekiko lineala zen.  $H_2O_2$  gehiketak bestalde, nabarmenki eragin zuen pH-aren aldaketan, konposatuaren izaera azidoa eta  $HOO^-$  ioien disoziazioa direla eta, balioa dezente jaitsiz.

Peroxidoa gehitu ez zen esperimentuetan, pH nahiko konstante mantendu zen; bestalde, peroxidoaren gehitzeak pH balioak jaitsi zituen. Nabaria da baita ere sonikazio denbora igoerak  $H_2O_2$ -aren disoziazioan lagundu zuela, bereziki tenperatura ertain eta altuetan, izan ere pH-a asko jaitsi zen tenperatura batzuekin alderatu ezkero.

**5.5. Taula.** Baldintza desberdineko oxidazio erreakzioen etekinak, sistemari bidalitako energia totala eta pH aldaketak.

Lagina	Etekina (%)	E (kJ)	pH aldaketa
<b>OxL1</b>	76.65	50.54	-0.59
<b>OxL2</b>	74.62	100.00	-0.63
<b>OxL3</b>	75.92	209.45	-0.06
<b>OxL4</b>	72.18	58.40	-0.95
<b>OxL5</b>	72.83	95.70	-1.88
<b>OxL6</b>	74.72	194.00	-1.64
<b>OxL7</b>	74.03	60.39	-0.22
<b>OxL8</b>	76.29	133.61	-0.30
<b>OxL9</b>	68.48	201.60	-0.47
<b>OxL10</b>	76.29	54.83	-1.51
<b>OxL11</b>	74.73	113.20	-2.24
<b>OxL12</b>	74.99	238.12	-2.35
<b>OxL13</b>	71.94	45.95	-0.63
<b>OxL14</b>	73.49	87.09	-0.26
<b>OxL15</b>	71.30	180.56	-0.32
<b>OxL16</b>	66.55	89.28	-3.15
<b>OxL17</b>	69.31	171.1	-2.59
<b>OxL18</b>	73.36	188.84	-2.93



**5.6. Irudia.** Baldintza desberdineko oxidazio erreakzioen sistemari bidalitako energia totalak eta pH aldaketak.

#### 5.4.1.3. Laginiaren konposizio kimikoa eta analisi elementala

Oxidatutako lignina laginak QAH, UV-vis, HPLC eta TGA bidez analizatu ziren, azidotan disolbagaitza (AIL) eta disolbagarria (ASL) den lignina, karbohidratoak (CA) eta errauts edukia kuantifikatzeko. Laginen osagai nagusien masa edukiak 5.6 taulan zerrendatuak daude. QAH-a metodo eraginkorra da experimentu bakoitzen lortutako ligninen purutasuna (AIL) kuantifikatu eta degradazio maila kalkulatzeko, albo produktuen (ASL, CA, errautsak...) edukia kuantifikatzuz. KL-k du AIL eduki txikiena, eta ondorioz, ezpurutasun eduki handiena duen lagina da. Oxidazioaren ondoren, AIL edukia %15-etik %20-raino igo zen, ASL edukia berriz nabarmenki jaitsi zen, molekula hauetako asko prozesuan zehar disolbatu zirela ondorioztatuz. CA edukia oxidazioaren lortutako produktu degradatuen ondorioz igo zen, igoera nabarmenena azken hiru erreakzioetan gertatu zelarik, tenperatura altuena (60 °C) eta hidrogeno peroxidoa erabili zirelarik. Baldintza gogorragoek lignina molekula txikiagoetan disoziatzea hobetzen dute, hala nola azido karboxilikoa edo karbohidratoetan. Errauts

edukia, ordea, oxidazio erreakzioekin batera gutxitu zen. Hasierako KL-ak materia inorganiko altua zuen, eta beraz purutasun txikia. Denbora luzeagoko erreakzioek errauts-edukia murritzut zuten, purutasun handiko produktu bat lortuz.

#### 5.6. Taula. KL eta bere lagin oxidatuen konposizio kimikoa.

<i>Lagina</i>	<i>AIL (%)</i>	<i>ASL (%)</i>	<i>CA (%)</i>	<i>Errautsa (%)</i>
<b><i>KL</i></b>	$73.94 \pm 0.93$	$18.99 \pm 0.25$	$1.03 \pm 0.21$	$6.04 \pm 1.06$
<b><i>OxL1</i></b>	$87.97 \pm 2.67$	$7.61 \pm 1.03$	$2.89 \pm 0.11$	$1.53 \pm 0.97$
<b><i>OxL2</i></b>	$87.78 \pm 4.80$	$6.92 \pm 0.04$	$3.49 \pm 0.93$	$1.81 \pm 0.33$
<b><i>OxL3</i></b>	$87.41 \pm 1.82$	$8.00 \pm 0.23$	$3.08 \pm 0.16$	$1.51 \pm 0.08$
<b><i>OxL4</i></b>	$86.78 \pm 1.32$	$8.43 \pm 1.06$	$3.09 \pm 0.08$	$1.70 \pm 0.68$
<b><i>OxL5</i></b>	$88.92 \pm 1.36$	$6.05 \pm 0.25$	$2.79 \pm 0.23$	$2.24 \pm 2.30$
<b><i>OxL6</i></b>	$88.37 \pm 3.36$	$6.91 \pm 0.07$	$3.14 \pm 0.02$	$1.58 \pm 0.43$
<b><i>OxL7</i></b>	$89.32 \pm 2.53$	$5.92 \pm 0.07$	$3.65 \pm 0.46$	$1.11 \pm 0.09$
<b><i>OxL8</i></b>	$89.75 \pm 2.53$	$5.99 \pm 0.22$	$3.07 \pm 0.06$	$1.19 \pm 0.17$
<b><i>OxL9</i></b>	$91.23 \pm 0.85$	$4.29 \pm 0.25$	$3.59 \pm 0.48$	$0.89 \pm 0.01$
<b><i>OxL10</i></b>	$89.25 \pm 0.67$	$5.99 \pm 0.31$	$3.88 \pm 0.71$	$0.88 \pm 0.20$
<b><i>OxL11</i></b>	$88.20 \pm 1.66$	$6.79 \pm 0.43$	$4.11 \pm 0.48$	$0.90 \pm 0.12$
<b><i>OxL12</i></b>	$87.41 \pm 0.59$	$6.42 \pm 0.25$	$4.36 \pm 0.46$	$1.81 \pm 0.88$
<b><i>OxL13</i></b>	$92.60 \pm 0.32$	$6.29 \pm 0.11$	$0 \pm 0.00$	$1.11 \pm 0.07$
<b><i>OxL14</i></b>	$89.25 \pm 1.24$	$5.40 \pm 0.34$	$3.59 \pm 4.88$	$1.76 \pm 0.45$
<b><i>OxL15</i></b>	$85.75 \pm 2.05$	$4.78 \pm 0.18$	$8.48 \pm 0.62$	$0.99 \pm 0.79$
<b><i>OxL16</i></b>	$84.02 \pm 2.36$	$5.67 \pm 0.30$	$8.91 \pm 0.58$	$1.40 \pm 0.33$
<b><i>OxL17</i></b>	$86.03 \pm 0.84$	$5.50 \pm 0.30$	$7.76 \pm 1.18$	$0.71 \pm 0.02$
<b><i>OxL18</i></b>	$85.68 \pm 1.00$	$4.65 \pm 0.13$	$8.70 \pm 0.17$	$0.97 \pm 0.10$

5.7 Taulan analisi elementaletik lortutako emaitzak daude zerrendatuak. Karbono, hidrogeno, nitrogeno, oxigeno eta sufre edukiak determinatu ziren, kanpoko talde funtzional desberdinak (hala nola peroxidoaren HOO-

edo erauzketa prozesuan erabilitako azido sulfurikoaren  $\text{SO}_4^{2-}$  taldea) ligninari nola atxikitzen zaien ondorioztatzeko, erreakzio baldintzen arabera. KL karbonoz dago osatuta nagusiki ( $62.44 \pm 0.38\%$ ); hala ere, oxidazio sonokimikoaren ondorioz karbono edukia handiagotu zen, OxL9 lagnaren kasuan  $66.41 \pm 0.76\%$ -ko edukia lortuz.

Lignina biopolimeroetan ugariena den bigarren elementua oxigenoa da, %25 inguruko balioekin. KL da O eduki handieneko lagina,  $26.98 \pm 0.54\%$  balioarekin, lignina oxidatu gehienak %23-24-ko edukia duten bitartean, eta OxL3 delarik eduki gutxieneko lagina,  $23.41 \pm 0.28\%$  balioarekin. Hala ere, honek ez du esan nahi KL denik funtzionalitate handieneko lagina. Lignina makromolekulak monolignolen gurutzaketa bidezko hainbat loturen bitartez eratzen dira, ohikoenak eter loturak direlarik. Hori dela eta, O-ren eduki altua eter loturen ugaritasunarekin egon daiteke erlazionatua, hidroxilo edo karbonilo taldeekin egon beharrean [72]. Hidrogenoari dagokionez, erreakzio denborarekin handitu zen,  $5.20 \pm 0.02\%-tik$  hasi eta  $5.69 \pm 0.19\%-ko$  balioak lortzeraino; joera bera ikusi zen laginetan zehar.

S edukiari dagokionez, KL-k  $5.07 \pm 0.16\%$  balioa du, OxL3-ren kasuan  $6.08 \pm 0.05\%-raino$  igotzen delarik eta OxL18-ren kasuan  $3.93 \pm 0.11\%-raino$  jaisten delarik. Aldaketa hau erreakzioaren temperaturarengatik baldintzatua egon liteke, pH aldaketan eraginez. Temperatura baxueneko baldintzen kasuan ( $30^\circ\text{C}$ ), lortutako ligninek S eduki handiagoa eta O eduki txikiagoa dute, temperatura altueneko erreakzioekin alderatu ezkero ( $60^\circ\text{C}$ ). Antzeko zerbait gertatzen da pH aldaketarekin, eta ondorioz,  $\text{H}_2\text{O}_2$ -ren disoziazioarekin,  $\text{HOO}^-$  lortzeko.  $30^\circ\text{C}$ -tan  $\text{HOO}^-$  ioi gutxiago zeuden ingurunean laginek hauekin bateratzeko, beraz, lignina disolbatua  $\text{H}_2\text{SO}_4$ -rekin erauztean, S atomoak atxikitzeo gune aktibo gehiago zeuden. Alderantziz,  $60^\circ\text{C}$ -tan lortutako laginek  $\text{HOO}^-$  ioien eduki altuagoa zuten, beraien arteko atxikimendua bultzatuz azido sulfurikoarekin erauzketa

burutu baino lehen. Azkenik, N edukia ez zen aldatu prozesuan zehar, baliogabe izanik, laginak N gabekoak direla konsideratzeraino [73].

### 5.7. Taula. KL eta lagin oxidatuen analisi elementalala.

	C (%)	H (%)	N (%)	S (%)	O (%)
<b>KL</b>	62.44 ± 0.38	5.20 ± 0.02	0.31 ± 0.03	5.07 ± 0.16	26.98 ± 0.54
<b>OxL1</b>	64.97 ± 0.13	5.69 ± 0.19	0.32 ± 0.02	5.43 ± 0.11	23.60 ± 0.40
<b>OxL2</b>	64.87 ± 0.63	5.51 ± 0.16	0.30 ± 0.02	5.47 ± 0.09	23.84 ± 0.85
<b>OxL3</b>	64.71 ± 0.18	5.47 ± 0.03	0.33 ± 0.03	6.08 ± 0.05	23.41 ± 0.28
<b>OxL4</b>	64.59 ± 0.50	5.45 ± 0.03	0.30 ± 0.04	4.91 ± 0.15	24.75 ± 0.66
<b>OxL5</b>	64.49 ± 0.18	5.38 ± 0.06	0.31 ± 0.02	5.04 ± 0.05	24.79 ± 0.26
<b>OxL6</b>	63.53 ± 0.54	5.26 ± 0.08	0.28 ± 0.01	5.14 ± 0.05	25.80 ± 0.66
<b>OxL7</b>	64.48 ± 1.08	5.28 ± 0.08	0.30 ± 0.02	5.19 ± 0.16	24.75 ± 1.32
<b>OxL8</b>	65.25 ± 0.49	5.34 ± 0.05	0.30 ± 0.02	5.46 ± 0.08	23.64 ± 0.63
<b>OxL9</b>	66.41 ± 0.76	5.22 ± 0.09	0.33 ± 0.01	4.39 ± 0.16	23.64 ± 1.00
<b>OxL10</b>	64.00 ± 0.09	5.68 ± 0.05	0.31 ± 0.01	4.63 ± 0.03	25.39 ± 0.16
<b>OxL11</b>	63.53 ± 0.65	5.55 ± 0.04	0.28 ± 0.03	4.88 ± 0.13	25.76 ± 0.84
<b>OxL12</b>	63.45 ± 0.44	5.37 ± 0.12	0.30 ± 0.02	5.03 ± 0.06	25.86 ± 0.54
<b>OxL13</b>	66.03 ± 0.33	5.45 ± 0.04	0.33 ± 0.01	4.51 ± 0.09	23.68 ± 0.47
<b>OxL14</b>	66.00 ± 0.47	5.32 ± 0.05	0.32 ± 0.02	4.34 ± 0.09	24.02 ± 0.58
<b>OxL15</b>	66.37 ± 0.62	5.46 ± 0.01	0.34 ± 0.03	4.32 ± 0.18	23.50 ± 0.83
<b>OxL16</b>	64.79 ± 0.16	5.48 ± 0.02	0.28 ± 0.02	4.99 ± 0.07	24.45 ± 0.16
<b>OxL17</b>	65.83 ± 0.61	5.40 ± 0.03	0.32 ± 0.01	4.07 ± 0.08	24.39 ± 0.67
<b>OxL18</b>	65.78 ± 0.63	5.38 ± 0.01	0.31 ± 0.02	3.93 ± 0.11	24.60 ± 0.77

#### 5.4.1.4. Laginen ezaugarri fisikokimikoak

KL eta lagin oxidatuen  $M_n$ ,  $M_w$ , eta PI balioak 5.8 taulan daude zerrendatuak, eta lortutako kromatograma kurbak 5.7 irudian daude ikusgai. Orokorrean,  $M_w$  balioak prozesuan zehar apur bat igo ziren. Aukeratutako oxidazio

baldintza ahulak lignina degradatu eta despolimerizatzeko gai ez direla baiezstatuz, eta egitura molekularra nahiko egonkor mantenduz.

**5.8. Taula.** Batez besteko pisu molekularrak kopuruan ( $M_n$ ), pisuan ( $M_w$ ), eta polisakabanatze-indizeak (PI).


	$M_n$ (g/mol)	$M_w$ (g/mol)	PI
<b>KL</b>	856	2590	3.0
<b>OxL1</b>	828	2497	3.0
<b>OxL2</b>	852	2532	3.0
<b>OxL3</b>	849	2595	3.1
<b>OxL4</b>	851	2608	3.1
<b>OxL5</b>	871	2690	3.1
<b>OxL6</b>	901	2887	3.2
<b>OxL7</b>	860	2583	3.0
<b>OxL8</b>	876	2678	3.1
<b>OxL9</b>	1029	3580	3.5
<b>OxL10</b>	964	3204	3.3
<b>OxL11</b>	898	2821	3.1
<b>OxL12</b>	930	3002	3.2
<b>OxL13</b>	933	3071	3.3
<b>OxL14</b>	1003	3549	3.5
<b>OxL15</b>	1005	3549	3.5
<b>OxL16</b>	897	2774	3.1
<b>OxL17</b>	933	3168	3.4
<b>OxL18</b>	945	3348	3.5

Balioak originalaren (KL) antzekoak edo pixka bat handiagoak mantendu zirela ikusi zen. Igoera hau erradikalen sorrera eta hauen ondorengo asoziazioei atxiki ahal zaio, hala nola kondentsazio erreakzioei. Horrez gain, kondentsazio fenomenoa erreakzio baldintzak areagotzean gertatu ziren, bereziki tenperatura igotzean eta denbora luzatzean.

Tenperaturak 30 °C-tik beherakoak zirenean, denborak ez zuen  $M_w$ -an eraginik izan, ( $M_w(OxL1) \approx M_w(OxL2) \approx M_w(OxL3)$ ). Hala ere, tenperaturak 45 °C-tara igotzean,  $M_w$ -ak igoera txiki bat erakutsi zuen, nabariago bihurtu zelarik denbora 60 minututara luzatzean ( $M_w(OxL9)$ ).

$H_2O_2$  gehitzeak  $M_w$ -aren igoera bultzatu zuen baita ere, nahiz eta aldaketa hau horren nabaria ez izan. Azkenik, tenperatura altuenean (60 °C) denbora 30 minutuetatik luzatzeak eraginik ez zuela aztertu zen.  $H_2O_2$  gehitzean ordea denbora luzeagoek  $M_w$ -a txikiagotu zuten ( $M_w(OxL14) \approx M_w(OxL15) > M_w(OxL17) \approx M_w(OxL18)$ ). Fenomeno hau lortutako kurbetatik ikus daiteke, OxL9, OxL13, OxL14, eta OxL15 laginak baitira aldaketa nabarienak jasandakoak, tontor handiena 21 minuto inguruko erretentzio denboran azaltzen delarik,  $M_w$  balioak handiagoak direla esan nahirik.

PI aldaketei dagokienez, aldaketak ez ziren oso esanguratsuak izan.  $M_w$ -ari ezarritako antzeko fenomeno bat egotzi ahal zaio, non erreakzioetan erabilitako baldintza ahulek ez zuten konposizio molekularrean aldaketarik eragin. Bestalde, erabilitako baldintza gogorrenek egitura molekular berriak sortu zitzuten, loturen haustura eta birkondentsazioaren ondorioz eratuak, heterogeneotasun orokorra ere handitu zutelarik. Hala eta guztiz ere, PI balioen igoera mespretxagarria kontsidera daiteke.




### 5.7. Irudia. KL eta oxidatutako analogoen kromatograma kurbak.

FTIR espektroak 5.8 irudian daude ikusgai., eta frekuentzia tarte bakoitzaren kontribuzioak Annex I-ean daude zerrendatuak, A.1 taulan.


Ligninen ezaugarri estrukturalak eta talde funtzionalak ikus daitezke.  $3400\text{ cm}^{-1}$ -tan lortutako banda zabalak hidroxilo alifatiko eta fenolikoen O-H luzatze bibrazioei dagokie, banda honen intentsitatea lagin oxidatuetan intentsifikatzen da, OH edukia handitzearen ondorioz. C=O luzatze bibrazioen intentsitateak,  $1708\text{ cm}^{-1}$ -tan azaltzen den bandari lotuak, handiagotu zirela ikusi zen baita era, 5.9 irudian hurbilago ikusgai.

Bestalde,  $1610\text{ cm}^{-1}$ -tan azaltzen diren bandak egitura aromatikoen bibrazioei dagokie, oxidazio erreakzioekin intentsitatea pixka bat jaitsi zelarik, 1329 et 1217  $\text{cm}^{-1}$ -koak bezalaxe, S eta G eraztunen luzatze bibrazioei dagokienak. Honek ligninaren deskonposizio arin bat gertatu zitekeela adierazten du, talde aromatikoen hausturan oinarritua. Horrez gain,  $1150\text{ cm}^{-1}$ -ko intentsitate jaitsierak eter alifatiko taldeen murrizketa adierazten du baita ere.

Ondorioz, eraztun aromatikoen eta eter alifatiko loturen hausturak karboxiloen eta hidroxiloen hazkundea eragin zuten, bereziki ikusgai denbora luze eta tenperatura baxuen menpe erreakzionatutako laginetan (1h, 30 °C, OxL3) eta luzapen ertaineko eta erdiko temperaturen menpekoetan (45 °C, OxL8, eta OxL11), hidrogeno peroxydoaren gehiketarekin edo gehiketarik gabe. Bereziki, tenperatura altuetan (60 °C), peroxydoaren faltak prozesuarentzako onuragarria izan zen, denbora motz eta luzeen artean desberdintasun handiak ikusiz (OxL13 eta OxL15) [74].



**5.8. Irudia.** KL eta oxidatutako lignina laginen FTIR espektroa.




### 5.9. Irudia. Lignin oxidatuen banda esanguratsuen hurbilketa.

Kasu batzuetan, denbora motzek TPC edukiaren igoera mesedetu zuten, beste batzuetan, bereziki tenperaturak baita ere altuak zirenean, OH talde ugariagoko molekulen formazioa errazten zuten bitartean. Denbora motzetan (15 min), tenperatura igoerak OH taldeen galera mesedetu zuen, joera lineal bat erakutsiz (30 °C-tan 0.013 mmol/g izatetik, 45 °C-tan 0.095 mmol/g izatera, eta 60 °C-tan 0.009 mmol/g izatera). H<sub>2</sub>O<sub>2</sub> gehitutakoan, antzeko joera ikusi zen: OH kontzentrazioa denbora igo ahala jaitsi zen. Denbora ertainak izan ziren optimoak tenperatura ertainetan, denbora luzeak hoberenak izan ziren bitartean tenperatura altuentzat.

Honen arazoia tenperatura baxuek eratzun aromatikoen haustura baimentzen ez zutelako izan daiteke, eta OH alifatiko eta fenolikoen ordezkapenak denbora motzagoak behar dituztelako. Bestalde, tenperaturen igoeraren bitartez errereakzio baldintzen gogortzearen ondorioz, denbora motzak nahikoak izan ziren ligninaren eratzun aromatikoen haustura partziala eragiteko, hidroxilo taldeak bezalako talde funtzional berrien sorrera eraginez. Hala ere, denbora luzeekin, birpolimerizazioa gertatzeko joera ikusi zen, beste behin OH edukiaren galera eraginez. UV absorbzio bandak 400 eta 260 nm artean neurtu ziren, 5.10 irudian ikusi daitekeen bezala. 280 nm-tan azaltzen den absorbzio tontorra OH talde ez-konjugatuei dagokie, 315 nm-tan azaltzen direnak OH talde konjugatuei dagokien bitartean. Tenperatura baxuetan lortutako laginek TPC balioekin aztertutako joera bera ikusi zen, non denbora

luzeenek OH edukia gehien murriztu zuten, bai OH konjugatu zein ezkonjugatuak. Lagin guztiei murriztu zitzaien OH talde konjugatu eta ezkonjugatuak, nahiz eta aldaketa hau mespretxagarria izan. Hala ere, temperatura ertainetan gertatu zen jaitsiera nabarmenena, temperatura altuak gutxien jaitsi zituztelarik, denbora aldaketen eta  $H_2O_2$  gehitu arren.



### 5.10. Irudia.

Eduki fenoliko totala (TPC) eta OH talde konjugatu eta ezkonjugatuak.

$^{31}P$  NMR espektroskopia erabiliz, ligninaren OH talde desberdinak identifikatu eta kuantitatiboki determinatu ziren. OH alifatiko, C5-ordezkatu, guaiazil, p-hidroxifenil, eta azido karboxilikoko erlazionatutako tontorrak integratu ziren, eta azido N-hidroxi-5-norborneno-2,3-dikarboxilikoko imina barne estandarrarenarekin (NHND) lortutako balioarekin alderatu zen, OH mmol/g lignina kontzentrazioa lortuz. Horrez gain, S/G ratioak lortu ziren. Lortutako emaitzak 5.9 taulan

daude zerrendatuak. Ligin guztiekin erakutsi zuten H unitateen falta, Kraft ligninaren konifero-zuretik eratorria izatearen ondorioz; orokorrean, OH edukiaren igoera tratatutako ligin guztietaik ikus daiteke. Ultrasoinu indarrek egitura kondentsatuak hautsi zituen. Hori dela eta, S eta G unitateak makromolekulatik askatu ziren, kondentsazioa gertatzen deneko OH taldea berreskuratz. G unitateetan eraztun aromatikoaren C5 posizioa aske dagoenez, hauen erreaktibitatea handiagoa da eta kondentsatzeko erraztasun handiagoa dute. Ondorioz, G unitateak ugariagoak dira egitura kondentsatuetan, eta frakzionatutakoan, askatutako G unitateen kantitate gehiago lortzen da [76].

Tratatutako ligin guztien hidroxilo eduki totala (TPC) handitu zen. Tenperatura baxuenak, hidrogeno peroxidoa gehitu gabe, OH fenolikoen edukia handitzeko baldintza hoberenak zirela ikusi zen (OxL1 and OxL2), denbora luzeenak eraginkorrenak zirelarik (OxL3). OxL3 erreakzioaren baldintzek lortu zuten emaitza optimoenak, OH eduki altuenarekin, bai alifatiko zein fenolikoak. Emaitza hauek Folin-Ciocalteau metodotik lortutakoengandik bereizten dira, non denbora luzeek TPC eduki gutxiago erakutsi zuten.

Tenperatura ertain eta altuenen eraginkortasuna,  $H_2O_2$ -aren gehiketarekin batera, ez zen horren ona izan. Izan ere, baldintza gogorragoek ez zituzten emaitzak positiboki eragin (OxL9 eta OxL18). Hala ere, baldintza gogorrenetan (OxL16 eta OxL17), denbora motz eta ertainek denbora luzeak (OxL18) baino emaitza hobea erakutsi zituzten. Beste behin, emaitza hauek ez ziren bat etorri Folin-Ciocalteau metodoarekin lortutakoekin. OxL9 liginaren kasuan, neurtutako TPC-ak balio ertainak erakutsi zuen, baina denbora luzatu ahala hazkunde bat aztertu zen baldintza gogorrenen menpe (60 °C eta  $H_2O_2$  gehikuntza).

**5.9. Taula.** Aukeratutako laginen hidroxilo taldeen edukien kuantifikazioa (mmol/lignina g) eta S/G ratioak.

	<i>OH alifatikoak</i>	<i>OH C5- ordezkatuak (S)</i>	<i>OH Guaiaziloak (G)</i>	<i>OH p-Hidroxifeniloak</i>	<i>OH azrido karboxilikokoak</i>	<i>OH fenolikoa totalak</i>	<i>S/G ratioa</i>
<b><i>KL</i></b>	0.05	0.18	0.06	-	0.04	0.24	3.17
<b><i>OxL1</i></b>	0.06	0.21	0.07	-	0.03	0.28	2.86
<b><i>OxL2</i></b>	0.06	0.20	0.07	-	0.03	0.27	2.86
<b><i>OxL3</i></b>	0.07	0.25	0.09	-	0.03	0.34	2.89
<b><i>OxL9</i></b>	0.06	0.20	0.06	-	0.04	0.26	3.08
<b><i>OxL16</i></b>	0.06	0.20	0.07	-	0.03	0.27	2.83
<b><i>OxL17</i></b>	0.06	0.21	0.07	-	0.04	0.28	2.88
<b><i>OxL18</i></b>	0.04	0.20	0.07	-	0.01	0.27	2.67

OH talde alifatikoen edukia lagin guztietaan hazi zen OxL18 laginean izan ezik, erreakzio kondentsazioen ondorioz jaitsi baitzen. Hidroxilo talde alifatikoak hidroxilo talde fenolikoak baino erreaktiboagoak dira [76], oxidazio erreakzioak gertatu beharrean kondentsazio erreakzioak gertatzen direlarik. Azido karboxilikoen OH taldeetan, ez zen joera argirik ikusi. Baldintza arinagoetan, hala nola temperatura baxu eta denbora ertainetan (OxL2), eta temperatura altu eta denbora baxuetan (OxL16), COOH edukiaren etekin baxuagoa lortu zen, eta baldintza gogorragoek talde honen eraketa mesedetu zuten. Hala ere, OxL18 laginak COOH eduki txikiena erakutsi zuen, eduki alifatikoaren murrizketaren antzeko mekanismoa jarraituz.


S/G ratioari dagokionez, tratatutako lagin guztiekin erakutsi zuten S/G ratioaren balioan jaitsiera, S unitateak baino G unitate gehiago lortu zirela adieraziz. OxL18 laginak zuen ratio baliorik txikiena, baina S eta G unitateen

edukia indibidualki begiratuz, OxL3 erreakzio baldintzak S eta G unitateen edukia handitzen hoherenak izan zirela ikusi zen. Bereziki S OH mmol-en balioa handitu zen, erreakzionatzen zailena den konposatura delarik, nahiz eta tenperatura baxuak eta agente oxidatzailerik gabe burutu.

Emaitza hauek FTIR-etik lortutakoekin bat egiten dute, non 1150 cm<sup>-1</sup>-ko bandan intentsitatearen jaitsiera ikusi zen, eter alifatikoen loturaren haustura eta C=O eta OH taldeen sorrera gertatzen dela adieraziz. Aldaketa hauek tenperatura baxuetan eta hidrogeno peroxidoaren gehiketarik gabe gertatu ziren, ultrasoinu irradiaketa tenperatura baxuetan eraginkorra izan zelarik, eta aglomerazio, despolimerizazio eta degradazioa bezalako nahigabeko fenomenoak gertatu gabe lignina oxidatu zelarik. Talde funtzional oxidatuen edukia erreakzio denboraren luzapenarekin batera handitu zen, baldintzak ahulegiak zirelarik beste erreakzio mota batzuk gertatzeko. Bero gehiago eta H<sub>2</sub>O<sub>2</sub> gehitzean, beste erreakzio mota hauek ematen hasi ziren, helburu bezala finkatutako oxidazio erreakzio pausua gaindituz eta lagin degradatuak ekoitziz

#### **5.4.1.5. Laginen ezaugarri termikoak**

Lagin bakoitzari analisi termikoa burutu zitzaison. Lortutako TGA eta DTGA kurbak 5.12 irudian daude ikusgai, eta %5 eta %50-eko masa galeren tenperaturak (T<sub>5%</sub> and T<sub>50%</sub>), degradazio etapekin batera 5.10 taulan daude zerrendatuak. T<sub>5%</sub>-ek %5-eko masa degradatzen deneko tenperaturari egiten dio erreferentzia. Orokorrean, T<sub>5%</sub> balioak 150 eta 200 °C artean aurkitu ziren. Hezetasuna tenperatura horiek iritsi baino lehenago lurrunten da normalean, laginen hezetasuna %5-ekoa baino gutxiago zela esan nahirik, OxL5 eta OxL6 kasuetan izan ezik, non 75 °C-koa zen T<sub>5%</sub>-a. T<sub>50%</sub> -ak masaren %50 degradatzen deneko tenperatura da, eta bere balioak 425 eta 475 °C artekoak ziren, salbuespen batzuekin (OxL4 540 °C-rekin eta OxL15 520 °C-rekin).




### 5.11. Irudia. KL eta lagin oxidatuen TG eta DTG kurbak

DTGA kurbek temperatura desberdinietan gertatzen diren degradazio maila desberdinak erakusten dituzte. Lehenengo degradazio egoera 150 °C-tatik behera gertatzen da eta hezetasun galerari dagokio. Bigarren degradazio egoera 200 eta 300 °C artean gertatzen da, polisakaridoen eta alkohol eta

azido alifatikoen degradazioei dagokielarik. Azkenik, eratzun aromatikoen haustura eta siringil eta guaiazil unitateen degradazioa konposatu fenolikoetan 300 °C-tik gora gertatzen da [77,78].

Lehengo degradazio egoera, kasu guztietaן 50-60 °C-tan gertatu zen eta hezetasunaren galerari dagokio. Bigarren masa galera nabarmenena 200-300 °C tartean gertatu zen, degradazio ahul batzuekin. Molekula txikiak degradatu ziren lehenik, ligninaren zati nagusiena 350-460 °C-tan degradatu zen bitartean. Azkenik, ligin batzuk materia hondakin bat zuten, 700 °C ingurutan degradatu zena. OxL4 eta OxL15 liginak dira egonkortasun handiena erakutsi zuten liginak, OxL1, OxL8 eta OxL16 laginek baxuena zuten bitartean. Honen arrazoia lehenengo bi liginetan egitura kondentsatu eduki altuagoaren ondorioz izan daiteke, azken hauetan murritzagoa zen bitartean. OxL4 eta OxL15 liginen degradazio tenperatura nagusiak altuagoak ziren baita ere, KL eta OxL5-enak baxuenak ziren bitartean.

Ekortze-kalorimetria diferentzialaren kurbak 5.12 irudian ageri dira, eta lortutako  $T_g$  balioak 5.10 taulan daude zerrendatuak. Balio hauek 116-118 °C edo 97 °C ingurukoak direla ikus daiteke.  $T_g$  balioaren gorabehera ligninaren izaera heterogeneoaren ondorioz izan daiteke,  $T_g$  eta PI balioen artean erlazio bat aztertu baitzen. KL eta beste ligin oxidatuek polisakabanatze balio antzekoa mantendu zutela ikusi zen, 3.0-3.3 balioen artekoa, OxL9, OxL14, OxL15, OxL17 eta OxL18-k 3.4-3.5 balioen artekoa zuten bitartean. PI balioaren igoera txiki honek  $T_g$ -aren balioa 20 °C-tan jaistea suposatu zuen.



**5.12 Irudia.** KL eta lagin oxidatuen DSC kurbak.

## Ligninan oinarritutako materialak energia biltegiratze aplikazioetarako

**5.10. Taula.** KL eta lagin oxidatuen %5 eta %50-eko masa galeren temperatura ( $T_{5\%}$  eta  $T_{50\%}$ ), degradazio egoerak, eta beira-trantszioko tenperaturak ( $T_g$ ).

	$T_{5\%}$ (°C)	$T_{50\%}$ (°C)	Degradazio egoerak(°C)	Ikatza (%)	$T_g$ (°C)
<b>KL</b>	175	460	<b>50/150/175/225/350/425/550/740</b>	36.05	116.4
<b>OxL1</b>	150	425	<b>60/160/240/320/375/425/525/600</b>	34.59	116.6
<b>OxL2</b>	175	440	<b>60/160/240/300/375/425/525/600</b>	36.40	116.8
<b>OxL3</b>	150	445	<b>60/150/175/240/375/425/525/600</b>	36.67	116.6
<b>OxL4</b>	200	540	<b>60/175/225/300/360/460/525/650</b>	40.31	116.9
<b>OxL5</b>	75	440	<b>60/160/225/250/275/350/375/475/650</b>	35.94	117.3
<b>OxL6</b>	75	445	<b>50/150/175/250/300/375/425/525/600</b>	37.16	116.9
<b>OxL7</b>	200	450	<b>70/175/220/375/425/475/575/725</b>	34.20	116.8
<b>OxL8</b>	100	425	<b>50/190/220/290/310/375/425/525/700</b>	35.43	116.9
<b>OxL9</b>	175	475	<b>50/200/250/375/430/525/600</b>	39.94	100.0
<b>OxL10</b>	150	450	<b>50/150/190/250/300/375/425/525/600/730</b>	37.16	117.0
<b>OxL11</b>	150	450	<b>50/150/190/250/280/390/425/525/600/700</b>	37.77	116.6
<b>OxL12</b>	150	450	<b>50/150/190/250/275/390/425/510/600/700</b>	36.05	117.0
<b>OxL13</b>	180	450	<b>50/125/190/220/390/425/525/600/700</b>	37.76	117.8
<b>OxL14</b>	150	475	<b>50/200/220/375/420/525/600</b>	37.69	97.1
<b>OxL15</b>	150	520	<b>50/220/260/420/475/600/725</b>	38.89	97.0
<b>OxL16</b>	150	425	<b>50/150/175/250/300/390/425/525/675</b>	33.28	116.7
<b>OxL17</b>	100	475	<b>50/125/190/220/375/425/525/600/675</b>	38.05	97.2
<b>OxL18</b>	100	475	<b>50/200/250/300/390/425/525/600/700</b>	38.95	97.2

\*Gorriz eta letra lodiz degradazio nagusia gertatu zeneko tenperatura. Beltzez eta letra lodiz beste degradazio esanguratsuak.

### 5.4.1.6. Laginen ezaugarri morfologikoak


Lagin guztien Z potentziala (mV), eroankortasuna (mS/cm), batezbesteko tamaina (nm) eta sakabanatze indizea DLS bidez neurtu zen. Partikulen ZP balioak gainazaleko karga elektrikoaren balioari egiten dio erreferentzia,

partikulen egonkortasuna eta elkarren artean agregatuak sortzeko duten joera determinatuz. ZP balio hauek menpeko aldagai bezala erabili ziren esperimentu diseinuaren sekzioan (5.4.1.1. sekzioa) eta balio numerikoak, balio esperimentalak doitzeko erabiliak, 5.2 taulan daude zerrendatuak. ZP balio altuek (positibo zein negatibo) egonkortasun fisiko altua dutela esan nahi dute, aldaramen elektrikoa eta karga altuko gainazala dela eta, agregatuak ekidinez, eta ondorioz tamainan hazkundea. +30 mV eta -30 mV arteko balioek ezegonkortasuna adierazten dute, van der Waals indarrek partikulen gain eragiteko gai direlarik, agregatuak sortuz. Balio hau +30 mV baino altuagoa edo -30 mV baino baxuagoa denean, partikulek aldaramen indar nahikoa dute dispercioan egonkor egoteko.


ZP balioak 5.2 taulan azaltzen dira honezkeren, DOE-aren datu esperimentalen menpeko aldagai bezala. Hala ere, atal honetan ere ikusgai dira DLS teknikaren bitartez kalkulatutako beste balioekin alderatzea interesgarria delako. 5.13 irudia ikusiz, lignina partikula gehienek egonkortasun ertaina erakutsi zuten, beste batzuk egonkortasun hasiberria erakutsi zuten bitartean. KL-k egonkortasun hasiberria dauka, hala ere, lagin gehienek -30 eta -40 mV arteko balioak erakutsi zituzten. Honek prozesua partikula egonkorragoak lortzeko eraginkorra dela esan nahi du. Hiru laginek oso egonkortasun ona erakutsi zuten: OxL1, OxL2 eta OxL3. Lagin hauek tenperatura baxuenetan lortuak dira ( $30^{\circ}\text{C}$ ), denbora desberdinetan,  $\text{H}_2\text{O}_2$  gehitu gabe. ZP sonikazio deborarekin ia linealki jaitsi zen,  $45^{\circ}\text{C}$ -tan (OxL7, OxL8 eta OxL9) eta  $60^{\circ}\text{C}$  -tan (OxL13, OxL14, and OxL15)  $\text{H}_2\text{O}_2$  gehitu gabe, lortutako laginekin joera antzekoa ikusi zelarik baita ere. Hala ere, tenperatura altu hauek, partikula ezegonkorragoak eratu zituzten. Fenomeno honen arrazoia ligninaren degradazioa izan daiteke. Izan ere, tenperatura altuagoek lignina partikula txikiagoetan banatzea eragin dezake, hauen birpolimerizazioa eraginez, eta partikula ezegonkorragoak eta sakabanatze indize altuagokoak eratzu.

Partikula tamaina, eroankortasuna eta sakabanatze indizeak modu antzekoan neurtu ziren., eta 5.14, 5.15 eta 5.16 irudietan azaltzen dira hurrenez hurren. Balioak uretan dispersatutako partikulek eragindako fotoi dispersio bidez lortu ziren. Partikula tamaina eta honek ingurunearekin duen interakzioen arabera, modu desberdinean dispersatzen da, balio desberdinak lortuz. Metodo hau interesgarria da balio kuantitatiboak lortzeko, datuen biltegiraketa azkar eta emaitzak lortzeko metodo erraza baita. Hala ere, lortutako informazioa SEM edo TEM bezalako beste metodo kuantitatiboengandik desberdina izan daiteke, partikula hauek analizatzean ez baitaude dispersatuak edo disolbatuak.


ZP eta batezbesteko tamainaren artean ez zen korrelaziorik aurkitu. Hala ere, partikula txikienek, OxL3 eta OxL18-k, eroankortasun balio handienak erakutsi zituzten, beste laginen balioa ia bikoitzuz. Bi lagin hauei erreakzio denbora luzeenak eragin zitzazkien, H eduki altuagoak lortu zirelarik ondorioz, seguruenik egonkortasuna hobetzen duten hidroxilo taldeen eraketengatik. Orokorrean, ezaugarri morfologikoei dagokienez, OxL3 izan zen emaitza hoherenak lortu zituen lagina, ZP altuena, eroankortasun altuena, tamaina txikiena eta sakabanaketa indize txikiena lortu zituen lagina baita.




**5.13. Irudia.** KL eta oxidatutako lignina nanopartikulen Z potentziala (mV).



5.14. Irudia. KL eta oxidatutako nanopartikulen batezbesteko tamaina (nm).



5.15. Irudia. KL eta oxidatutako nanopartikulen eroankortasuna (mS/cm).



5.16. Irudia. KL eta oxidatutako nanopartikulen sakabanatze indizea.


Aukeratutako lignina partikulak uretan dispertsatu ziren, 0.1 pisu ehunekoan, eta TEM analisirako prestatu ziren. Lortutako irudiak 500 nm-ko eskalan eta kontraste negatiboan azaltzen dira 5.17 irudian. DLS eta TEM-etik lortutako tamaina balioak analisiaren izatearen ondorioz nahiko desberdinak direla aipatu beharra dago. Lehenengoa laginak likido ingurune batean dispertsatzu eta dispertsatutako gorputzen argi barreiatua neurtuz lortu zen. Bigarrena, ordea, lehortu egin zen eta partikula lehorrok irudikatu ziren. Hori dela eta, DLS-tik lortutako partikula tamaina balioak altuagoak ziren, baina balioen aldaketetan joera berdinak antzeman daitezke bi tekniken bidez.

TEM bitartez lortutako irudiek erreakzioek tamainak txikiagotu eta dispertsioan eragin zutela ondorioztatzen dute. KL partikulen diametroa sonokimikoki oxidatutako laginena baino dezente handiagoa zen, prozesuaren eragina frogatzuz lortutako partikuletan denborak ertainak eta luzeak zirenean. OxL1 eta OxL16 laginen batez besteko partikula tamainak KL laginaren nahiko antzekoak mantendu ziren, 125 eta 150 nm inguruko diametroko partikulak lortuz,  $H_2O_2$  gehitu arren eta emandako tenperatura balioaren arren. Tenperatura baxuetan denbora luzatzean (OxL2 eta OxL3), tamainan murrizketa handia eragin zuen, non 25 nm-ko partikula tamainak neurtu ziren. OxL17 eta OxL18 laginen kasuan murrizketa bat ere nabaritu zen denbora luzatzean, baina murrizketa ez zen horren nabaria izan. Tenperatura ertainak eta denbora luzeak (OxL9) eraginkorrik izan ziren baita ere nanoligninaren lorpenerako, teknika honen bitartez kuantifikatutako partikula txikienak baldintza hauen pean lortutako laginak erakutsi baitzuen. Teknika honekin ebaluatu daitekeen beste parametro garrantzitsu bat agregatuak sortzeko joera da. Hasieran, KL partikulak modu estuan lotuak zeuden, aglomerazioak sortuz. Hala ere, erreakzio baldintza ahulenak erabilita ere ( $30\text{ }^{\circ}\text{C}$  15 minutuz), agregatu hauek nabarmenki murriztu ziren, OxL1 laginaren irudian ikusgai, non partikula tamaina askoz ere txikiagoa izateaz gain, aglomerazioak ere txikiagoak ziren.

Erreakzio denbora igo ahala, 30 minututara (OxL2), partikulak estuki lotuak egotetik apur bat lotuak egotera pasa ziren, agregatuen ordez aglomerazioak sortuz [79]. Honek indar handieneko interakzioak hautsi zirela esan nahi du, eta indar gutxiagoko loturez ordezkatu zirela. Erreakzio denborak 60 minututara heldutakoan, partikula-partikula indarrak oharkabeak bihurtu ziren, partikula askeez osaturik nagusiki (OxL3). Temperatura 45 °C-tara igotzean, erreakzio denbora luzeena mantenduz (OxL9), aglomerazioak birstortu zirela ikusi zen. Fenomeno hau nabarmenki garatu zen temperatura 60 °C-tara igotzean, ordubeteko erreakzio denbora mantenduz (OxL18).

Behaketa hauek direla eta, aglomerazio formakuntzan erreakzio denborak erreakzio tenperaturak baino eragin handiagoa erakutsi zuela ondoriozta daiteke 60 °C-tan lortutako laginak, 15 eta 30 minuturen ondoren (OxL16 eta OxL17, hurrenez hurren) molekula askeez osatuak zeuden, partikula-partikula interakzio nabarmenik gabe. Horrez gain,  $H_2O_2$ -ren gehiketak ez zuen aglomerazioan efekturik erakutsi.

Bestalde, pisu molekular handiko partikulek partikula tamaina txikiagoak erakutsi zituztela ikusi zen [80], ligninaren erauzketan nukleazioa hasiz, izaera hidrofobiko altuagoa erakustearen ondorioz.  $M_w$  txikiko ligninak falta direnez, hauek ezin dituzte molekula handiagoak estaldu, hauek baitira ondoren erauzten diren partikulak [81].



**5.17. Irudia.** TEM bitartez lortutako KL, OxL1, OxL2, OxL3, OxL9, OxL16, OxL17, and OxL18 laginen irudiak.

**5.11. Taula.** KL eta lagin oxidatuen partikulen agregazio mota eta tamainak, eta partikula tamaina nm-tan.

Lagina	Partikula agregazio mota	Batezbesteko partikula tamaina (nm)
<b>KL</b>	Agglomerazio handiak	124.1 ± 34.6
<b>OxL1</b>	Agglomerazio txikiak	153.0 ± 39.9
<b>OxL2</b>	Agregatu ertainak	25.9 ± 2.8
<b>OxL3</b>	Partikula askeak	25.8 ± 4.0
<b>OxL9</b>	Agregatu txikiak	17.8 ± 2.7
<b>OxL16</b>	Agglomeratu txikiak	144.0 ± 25.5
<b>OxL17</b>	Partikula askeak	123.5 ± 71.0
<b>OxL18</b>	Agregatu handiak	103.7 ± 67.8

#### 5.4.1.7. Eskala igotzeko ikuspegiak

Ultrasoinu irradiazioaren erabilera eskala piloto eta industrialentzako modu zabalean aztertu izan da, bideragarritasun tekniko eta ekonomikoak aztertu direlarik. Energia dentsitatea ( $E_s$ ) hau determinatzeko faktore garrantzitsua da, sonikazio tratamenduaren parametro nagusiak kontuan hartzen baititu: ahalmena, iraupena eta bolumena. Bertako lanaren esperimentuak hiru denbora desberdinetan burutu ziren (15, 30 eta 60 minutu). Temperatura eta  $[H_2O_2]$  bezalako beste baldintza batzuk ez zuten horrenbeste eragin  $E_s$  balioan, 5.6 irudian ikusi bezala. 15 minutuko iraupeneko esperimentuek orokorrean 50 kJ kontsumitu zituzten, 30 eta 60 minutukoek 75 eta 250 kJ kontsumitu zituzten bitartean, hurrenez hurren. Prestatutako eta sonikatutako disoluzioen bolumena 60 mL-koa zen lagin guztientzat. Beraz, 15, 30 eta 60 minutuko tratamenduetan 800, 1250 eta 4170 kJ/L kontsumitu ziren hurrenez hurren.

Jasangarritasun orokorraren arabera, prozesua berdea konsideratu ahal izateko metrika batzuk aplikatu dira. Oro har, proposatutako prozesua

kategoria honen barruan sar daiteke, paper eta ore industriatik eratorritako hondakina erabiltzen baita, eta elikagai produktu bezala erabiltzeko interesik gabekoa, eta ultrasoinu kabitazioak implementatuz. Gainera, lan honek hidrogeno peroxidoa gehitzeak ondorio kaltegarriak eragiten dituela ondorioztatu da, eta beste konposatu katalitikorik ez da gehitu, lortutako hondakin edo albo produktuen ondorengoko prozesaketa erraztuz.

#### **5.4.1.8. Prozesuaren balioztatzea OL ligninarentzat**

Oxidatutako KL nanopartikulak lortzeko baldintza desberdinak erabili ondoren, burututako baldintza esperimental optimoak OxL3 laginean erabilitakoak izan zirela ondorioztatu zen. Temperatura baxuak ( $30^{\circ}\text{C}$ ), peroxido eza, eta denbora luzeak (1h) lignina oxidatuagoa lortzeko baldintza optimoak izateaz gain, nanotamainako partikulak lortzeko ere baldintza hoherenak izan ziren, hauen aplikagarritasuna handiagotuz. Horregatik, prozesua eraginkor bezala balioztatzeko, 4. Atalean erauzitako OL lignina erabili zen, eta lignina motak nanopartikulen ekoizpenean duen eragina ebaluatu zen. KL ligninarekin bezala, FTIR, GPC, TGA eta DLS teknikak erabili ziren aldaketa kimiko, fisikokimiko, termiko eta morfologikoak aztertzeko.


4. atalean azaldu bezala, organosolv lignina Kraft lignina baino nabarmenki handiagoa izan ohi da, erauzpen prozesuan erabilitako baldintza ahulagoen ondorioz. Hori dela eta, KL-rentzako diseinatutako oxidazio erreakzio sonokimikoek modu desberdinean eragin diezaioke OL-ri. OL eta sonokimikoki oxidatutako OL liginaren (OxOL bezala izendatua) emaitzak 5.12 taulan eta 5.16 irudian daude ikusgai. Erreakzioak oxidatutako liginaren  $M_w$ -a nabarmenki handiagotu zuela ikus daiteke, 10393 g/mol-eko balioa lortuz, OL originalaren pisua ia bikoitztuz. Hala ere, OxOL liginaren PI balioa nabarmenki txikiagotu zen, askoz ere lignina homogeneoagoak lortuz.

**5.12. Taula.** GPC emaitzak ( $M_w$ ,  $M_n$  and PI), DLS emaitzak (Z potentziala, eroankortasuna, batez besteko Z eta PI) eta TGA emaitzak ( $T_{5\%}$ ,  $T_{50\%}$  eta aztertutako degradazio etapak) OL eta bere lagin oxidatuarentzat (OxOL).

	OL	OxOL
<b>GPC emaitzak</b>		
$M_w$ (g/mol)	5800	10393
$M_n$ (g/mol)	1306	2104
PI	4.44	1.94
<b>DLS emaitzak</b>		
Z Potentziala (mV)	-29.326 ± 2.132	-20.634 ± 0.363
Eroankortasuna (mS/cm)	0.012 ± 0.000	0.014 ± 0.001
Batazbesteko Z (nm)	1240 ± 85	591 ± 9
PI	0.494 ± 0.016	0.602 ± 0.119
<b>TGA emaitzak</b>		
$T_{5\%}$ (°C)	95.5	194.0
$T_{50\%}$ (°C)	393.2	504.0
Degradazio etapak (°C)	48.5/ <b>362</b>	77/110.5/ <b>377</b>

\*Letra gorri eta lodiz degradazio nagusia gertatu deneko temperatura.

Ezaugarri fisikokimikoak oraindik sakonago aztertzeko, talde funtzionalak FTIR teknikaren bitartez aztertu ziren; 3400  $\text{cm}^{-1}$ -tan O-H taldearekin lotutako luzatze-bibrazioaren intentsitatea nabarmenki handiagotu zen bitartean C=O taldearekin erlazionatutako bandak, 1700  $\text{cm}^{-1}$ -tan, antzeko intentsitatea mantendu zuen. 2400-2000  $\text{cm}^{-1}$  tartean intentsitate igoera bat antzeman zen baita ere, alkino ( $\text{C}\equiv\text{C}$ ) taldeekin (2260-2190  $\text{cm}^{-1}$ ) edo zeteno ( $\text{C}=\text{C}=\text{C}$ ) taldeekin lotutako eskualdean (2150  $\text{cm}^{-1}$ -tan). Aldaketa hauek oxidazio errereakzioa organosolv ligninarekin ere eraginkorra zela baieztagaten dute, non ligninak funtzionalitate eta erreaktibilitate altuagoa erakutsi zuen.



**5.18. Irudia.** Goran eta ezkerrean, OL eta OxoL laginetatik lortutako GPC kromatogramen kurbak, goran eta eskuinean TGA eta DTG kurbak, eta behean FTIR espektroak.

Ezaugarri morfologikoak DLS teknikaren bidez aztertu ziren, non Z potentziala, eroankortasuna, batez besteko Z, eta PI balioak neurtu ziren. Nahiz eta OxoL laginaren funtzionalitate altuagoa ez zen egonkortasun akuoso hobeant itzuli, ZP balio baxuagoa lortu baitzen, partikula tamainan murrizketa oso nabaria ikusi zen, batezbesteko Z balio erdia lortu zelarik (591 nm OxoL laginarentzat, OL-ren balioa 1240 nm zen bitartean). Honek, beste behin, partikularen pisu molekularrak partikula tamainan eragiten ez duela aztertzeko baliogarria da. KL laginekin antzeko fenomenoa ikusi zen, baina kasu horretan,  $M_w$ -aren igoera ez zen horren nabarmena izan, eta partikula tamainan desberdintasunak DLS bitartez baino TEM bitartez

aztertu ziren hobeto. Kasu honetan, hala ere, DLS teknika nahikoa izan zen nanopartikulen lorpena baiezatzeko.


Azkenik, ezaugarri termikoak TGA bidez analizatu ziren. Temperaturak 800 °C-raino igo ziren, Annex I-ean azaldutako prozesua jarraituz, eta  $T_{5\%}$ ,  $T_{50\%}$ , eta degradazio etapa desberdinak aztertu ziren. Prozesuaren bitartez  $M_w$  handiagoko partikulak lortu zirenez, molekulen portaera termikoa ere hobetu egin zen.  $T_{5\%}$  eta  $T_{50\%}$  balioak jatorrizko OLrako lortutakoak baino handiagoak izan ziren. eta oxidatutako OL laginaren degradazio etapa nagusiak tenperatura altuagoetan gertatu zirela behatu zen, OxOL laginaren egonkortasun termiko hobea ondorioztatuz.

#### **5.4.2. KARBOXIMETILATUTAKO, SULFOMETILATUTAKO, ETA METILATUTAKO LIGNINEN KARAKTERIZAZIOA**

Eraldaketa desberdinatan erabilitako ligninak, eta lortutako eraldaketen FTIR espektroak 5.18 irudian daude ikusgai, eta identifikatutako talde funtzional nagusien eta hauekin lotutako bandak A.1 taulan daude zerrendatuak, Annex I-ean.

O-H luzatze-bibrazioekin lotutako  $3400\text{ cm}^{-1}$ -ko banda zabala, metil eta metileno taldeen C-H loturen luzatzeak  $2940\text{-}2840\text{ cm}^{-1}$ -tan, eta beste egitura aromatikoen C-H bibraioekin lotutako bandak  $1610$  eta  $1150\text{ cm}^{-1}$  artean izan ziren aurkitutako banda nagusiak FTIR espektroetan. KL-k OH banden intentsitate handia erakutsi zuen, OL-rena baino intentsitate altuagokoa, nahiz eta lehengai berdinietik eratorriak izan (*Eucalyptus globulus*). Hau deslignifikazio prozesuaren ondorio da, Kraft prozesuan baldintza gogorragoak erabili zirenez, lignina lotura gehiago hautsi ziren eta ondorioz molekula txikiagoak eta funtzionalizatuagoak lortu ziren. Bai KL eta OL ligninak aurreko atalean frakzionatu ziren disolbatzaile bidezko erauzketa bidez [78], non lortutako frakzio txiki eta handienak hemengo

lanean eraldatu ziren. SKL laginak BKL eta hasierako KL-rekin alderatuz hidroxilo eta karbonilo eduki altua erakutsi zuen, OL-ren kasuan bezala, non SOL-k 3400 cm<sup>-1</sup> eta 1708 cm<sup>-1</sup>-tan intentsitate altuagoa erakutsi zuen.



**5.19. Irudia.** Eraldatutako eta eraldatu gabeko lignin laginen FTIR espektroak.


Karboximetilazio erreakzioak eragindako aldaketei dagokienez, CKL zein CMOL-ren O-H luzatze-bibrazio seinaleetan intentsitate murrizketa nabaria ikusi zen, KL eta KL analogoekin alderatu ezkerro. Erreakzioaren baldintza alkalinoek talde hidroxiloak nukleo filo sendo bilakatu zituen, sodio kloroazetikoarekin erreakzionatuz eta eratzun aromatiko karboximetilatuak lortuz. Beraz, O-H bibrazio banden intentsitate murrizketa ikusi zen erreakzio guztien ondorioz, eta metil eta metilenoen C-H luzatze-bibrazioen igoera, eraldatutako ligninen --H<sub>2</sub>COOH, -CH<sub>2</sub>SOOH, -OCH<sub>3</sub>, eta -COOCH<sub>3</sub> talde berrien ondorioz.

Egitura aromatikoekin eta talde hidroxilo alifatikoekin erlazionatutako bandek ez zituzten aldaketa nabarmenak erakutsi erreakzioen eraginez, CM eta SM erreakzioen selektibitatearen ondorioz. OH aromatikoak eraldatu ziren soilik, OH alifatikoak osorik geratu ziren bitartean. Hori dela eta, 3400 cm<sup>-1</sup>-ko banda CMKL, CMOL, SMKL eta SMOL laginienzat OH alifatikoei eta erreakzionatu gabeko OH fenolikoei dagokiela esan daiteke. Bestalde, metilazio erreakzioak ez zuen selektibitaterik erakutsi, mota guztietako OH taldekin erreakzionatu zuelarik, 3400 cm<sup>-1</sup>-ko bandan aldaketa esanguratsuagoa sortuz.

Pisu molekularrak eta polisakabanatze indizeak GPC bidez kalkulatu ziren. Lortutako balioa 5.13 taulan daude zerrendatuak, eta lortutako kromatograma kurbak 5.20 irudian daude ikusgai.

**5.13. Taula.** Lignina originalen eta eraldatutako M<sub>w</sub>, M<sub>n</sub>, and PI balioak.

	M <sub>w</sub> (g/mol)	M <sub>n</sub> (g/mol)	PI		M <sub>w</sub> (g/mol)	M <sub>n</sub> (g/mol)	PI
<b>KL</b>	5048	1149	4.39	<b>OL</b>	6374	1537	4.15
<b>SKL</b>	3312	1128	2.94	<b>SOL</b>	1856	953	1.95
<b>BKL</b>	9131	2407	3.79	<b>BOL</b>	8753	2439	3.59
<b>Karboximetilatua</b>							
<b>CMKL</b>	19154	1456	4.54	<b>CMOL</b>	10710	2503	4.28
<b>Sulfometilatua</b>							
<b>SMKL</b>	23234	3124	7.44	<b>SMOL</b>	11618	2554	4.55
<b>Metilatua</b>							
<b>MKL</b>	9080	1669	4.39	<b>MOL</b>	14203	2222	6.39
<b>MSKL</b>	6474	1371	4.72	<b>MSOL</b>	6594	1414	4.66
<b>MBKL</b>	15374	3948	3.89	<b>MBOL</b>	19979	4014	4.98




**5.20. Irudia.** GPC bidez lortutako kromatograma.

Oro har, eraldaketa kimikoek molekulen pisua handiagotu zutela ikusi zen karboximetilazio erreakzioei dagokienez, bai KL eta OL-k beraien  $M_w$ -a nabarmenki handitu zuten. KL-ren kasuan, CMKL-k  $M_w$  lau aldiz handiagoa zuen. OL-ren kasuan ordea, CMOL-k OL-ren bikoitza baino pixka bat baxuagoa. Fenomeno hau molekulen tamainaren ondorio izan daiteke. Izan ere, molekula handiagoek OH-ak bezalako talde funtzionalizatu gutxiago eduki ohi dituzte, eta daudenak eragotziagoak eta erreaktibitate baxuagoakoak izan ohi dira, karboximetilazio maila baxuagoa lortuz molekula handiagoekin [50]. Karboximetilazio erreakzioa, orokorrean, ligninaren  $M_w$ -a handiagotzen du, ez soilik OH taldeak karboximetil taldeez ordezkatzen direlako, baita ere prozesuan zehar gertatzen diren kondentsazio erreakzioen ondorioz [52].

Sulfometilazio erreakzioarekin joera ia berdina ikusi zen, non SMKL eta SMOL laginen  $M_w$ -a CMKL eta CMOL laginen proportzio berean handiagotu zen [56]. Hala ere, metilazio erreakzioarekin, molekula nahiko txikiagoak lortu ziren, seguruenik lignina egonkorragoen eraketaren ondorioz, autopolarizazio erreakzioak gertatzea ekiditen dutela jakina delarik [61]. Hiru erreakzio kimiko hauek ligninen alkoxido ioien eraketan oinarrituak daudenez, nukleofilo sendo bezala jokatzen dutenak eta ondoren hainbat erreaktibo desberdinek erreakzionatzen dutenak funtzionalitate berriak lortzeko, ezinbestekoa da bai hasierako zein eraldatutako ligninen OH taldeen edukia kuantifikatza erreakzioaren eraginkortasuna zehazteko analisi kuantitatiborako metodo eraginkorrena  $^{31}\text{P}$  NMR bidezkoa da, non OH talde desberdinak espektroaren eskualde desberdinetan azaltzen diren. Honek talde bakoitzaren identifikazioa ahalbidetzen du, ondorioz OH talde mota bakoitzaren kuantifikazioa burutu ahal delarik. Lortutako emaitzak 5.21 irudian daude ikusgai eta 5.14 taulan daude zerrendatuak, eta lortutako espektroak 5.22 eta 5.23 irudietan daude ikusgai.

Karboximetilazio erreakzioa KL eta OL ligninen talde hidroxilo fenolikoak ordezkatzen eraginkorra dela ikusi zen. KL eta OL-n siringil OH totalaren %20 inguruk (OH talde C5-ordezkatuen baliokideak) erreakzionatu zuen, guiazil taldeen %16 eta %31-k erreakzionatu zuten bitartean, hurrenez hurren. p-Hidroxifeniloen OH taldeen kasuan, KL-n kuantifikatutakoena ia %30-ak erreakzionatu zuela ikusi zen, OL-n %17-arekin alderatuz. Orokorrean, KL eta OL-en eduki fenoliko totalaren %20 inguruk erreakzionatu zuela ikusi zen, OL-ren etekina txikiagoa zelarik pisu molekular handiagoaren ondorioz, eta KL-rekin alderatuz, erreaktibilitate baxuagoaren ondorioz [50,54]. OH alifatikoen (Al) edukiari dagokionez, erreakzioen selektibilitatea dela eta ez ziren aldaketa handirik ikusi. Sulfometilazio erreakzioaren ondorioz, nahiz eta erreaktibilitatean selektibilitatea erakutsi, %20-ko jaitsiera ikusi zen Al OH taldean. Murrizketa

honen kausa nagusia kondentsazio eta autopolimerizazio albo erreakzioak dira, sulfometilazio erreakzioa baino. Horrez, gain, sulfometilatzeko erraztasun handieneko OH talde aromatikoa G taldea zela ikusi zen, tesian aurretik aipatua izan den bezala, hau baita unitate erreaktiboena. Hala ere, joera hau ez zen OL motan ikusi, balio desberdinak lortu zirelarik. Nahiz eta CM erreakzioak antzekoak izan bi kasuetan, SM erreakzioak desberdintasunak aurkeztu zituen. Desberdintasun hau, beste behin,  $M_w$  desberdinei eragotzi ahal zaie, molekula handiagoek eragozpen esteriko altuagoa erakusten dutenez, autopolimerizazioa bezalako albo erreakzioak zailduz. Honen ondorioz, OH edukia gutxiago gutxitu zen, eta kondentsazio baxuagoko lignina eraldatuak lortu ziren.



**5.21. Irudia.**  $^{31}\text{P}$  NMR-tik lortutako emaitzak lagin guztientzat.


Metilazio erreakzioari dagokionez, mota guztiako OH taldeak murrizten eraginkorrena zela ikusi zen, bereziki liginina molekulak txikiagoak direnean, hauek OH talde eskuragarriagoak baitituzte.

Lortutako  $^{13}\text{C}$  NMR espektroen eskualde bakoitzeko integracioetatik lortutako balioak 5.15 taulan daude zerrendatuak. 191 ppm-tan azaltzen den bandak, karbonilo edukiarekin erlazionatuak, eraldaketa erreakzioak laginen konposizioan eragin zuela erakusten du, eraldatutako lagin guztien banda guztiz desagerraraziz Kraft ligninen kasuan, eta ia guztiz organosolv ligninak. ~175 ppm-ko seinalea, -COOH edukiarekin erlazionatua [55,84], CMKL eta CMOL kasuetan zen bakarrik ikusgai, karboximetilazio erreakzioaren eraginkortasuna baieztatuz. Erreakzio guztiekin (karboximetilazioak, sulfometilazioak eta metilazioak) eragindako beste aldaketa ikusgarriak 0-50 ppm tarteko seinaleen intentsitateen handitzea da, alkil enbor gehiagoren sarrera baieztatzen duelarik, C-C loturen seinaleen handiagotzearen ondorioz.


Lortutako integracio balio guztiak metoxi edukiaren eskualdean 6.12 ppm-ko balioa edukitzeko normalizatu ziren, aurreko lan batzuetan gomendatu bezala [85,86]. Orokorean, eraldatutako lignina laginek egitura kondentsatu gehiago dituztela ikus daiteke, lortutako  $M_w$  balioetatik ondoriozta daitekeen bezala. Horrez gain, eduki aromatiko oxigenatuak eta lignina molekula eraldatuen aromatizitate totala handiagotu zen baita ere. Beraz, ondoriozta daiteke modifikazio hauek, uretan oinarritutako formulazioetan erabiltzeko gai izateaz gain, interesgarriak izan daitezkeela beraien aromatizitate eta elektroi konjugazioengatik, molekularen zehar elektroiak gehiago mugitzeko ahalmena handiagotuz eta material elektroaktibo edo osagai bezala eduki dezaketen errendimendua hobetuz.

**5.14 Taula.** OH mota desberdinien kontzentrazioak,  $^{31}\text{P}$  NMR bidez kuantifikatuak.

	Talde hidroxilo desberdinen edukia(mmol/g)				S/G ratioa	OH TOTALA	PhOH TOTALA
	Al OH	S OH	G OH	H OH			
<i>KL</i>	2.20	4.67	0.29	1.51	0.42	16.3	9.08
<i>CMKL</i>	2.17	3.77	0.24	1.08	0.34	15.7	7.60
<i>SMKL</i>	1.71	3.72	0.14	1.15	0.32	25.9	7.04
<i>MKL</i>	0.58	1.77	0.21	0.66	0.50	8.4	3.71
<i>OL</i>	3.90	4.55	0.40	1.37	0.06	11.3	10.28
<i>CMOL</i>	3.54	3.72	0.28	1.14	0.34	13.3	9.01
<i>SMOL</i>	6.42	6.81	0.00	3.13	0.00	6.0	16.37
<i>MOL</i>	1.19	1.15	0.19	0.21	0.09	2.8	2.84
<i>BKL</i>	5.75	15.34	5.43	0.00	0.44	2.8	26.96
<i>MBKL</i>	0.92	1.91	0.86	0.78	0.06	2.2	4.52
<i>BOL</i>	4.32	3.88	0.53	1.40	0.07	7.3	10.21
<i>MBOL</i>	2.01	2.77	0.20	0.85	0.04	13.6	5.86
<i>SKL</i>	0.84	6.69	0.31	2.20	0.38	21.6	10.42
<i>MSKL</i>	0.23	0.67	0.12	0.17	0.07	5.7	1.25
<i>SOL</i>	2.16	5.35	0.27	2.01	0.13	20.1	9.93
<i>MSOL</i>	0.53	0.85	0.13	0.21	0.00	6.3	1.73



5.22. Irudia. KL eta eraldatutako analogoen  $^{13}\text{C}$  NMR espektroak.



5.23. Irudia. OL eta eraldatutako analogoen  $^{13}\text{C}$  NMR espektroak.

**5.15 Taula.** Eraldatu eta eraldatu gabeko KL eta OL laginetan identifikatutako espektro eremuak eta integrazio balioak.


<i>Espektro gunreak</i>	<i>Desplazamendu kimikoaren tartea (ppm)</i>	<i>KL</i>	<i>C<sub>M</sub>KL</i>	<i>SM<sub>K</sub>L</i>	<i>M<sub>K</sub>L</i>	<i>OL</i>	<i>C<sub>M</sub>OL</i>	<i>SM<sub>O</sub>L</i>	<i>MOL</i>
<i>Metoxil edukia</i>	57-54	6.12	6.12	6.12	6.12	6.12	6.12	6.12	6.12
<i>Metino karbono aromatikoak</i>	125-103	5.28	8.90	9.16	9.75	7.61	7.52	8.16	7.22
<i>Karbono-karbono aromatikoen egiturak</i>	141-125	2.78	7.14	6.10	-	4.49	4.67	5.03	6.00
<i>Karbono aromatiko oxigenatuak</i>	160-141	2.87	5.41	4.40	6.94	4.69	4.38	16.54	3.83
<i>Karbonil motako egituren karbonoak</i>	195-190	0.09	-	-	-	0.02	0.03	0.05	0.25
<i>Kondentsazio maila</i>	125-103	5.28	8.90	9.16	9.75	7.61	7.52	8.16	7.22

5.24 irudiak lignina partikula original era eraldatuen ZP eta eroankortasun balioak erakusten ditu, 5.25 irudiak ZP banaketa-kurbak erakusten dituen bitartean. Eraldatu gabeko ligninek, KL eta OL-k, -30 mV inguruko ZP balioak erakutsi zituen, hasierako egonkortasunaren eta egonkortasun onaren arteko balioa erakutsiz.


Karboximetilazio erreakzioak, lignina motaren arabera, eragin desberdinak izan zituen partikulen egonkortasunean. CMOL-ren kasuan ZP balioa handiagotu zen, CMKL-ren kasuan txikiagotu zen bitartean. Sulfometilazio erreakzioak balio antzekoak mantendu zituen SMKL-ren kasuan, hobekuntza txiki batekin, SMOL-ren kasuan aldaketa nabarmenagoak gertatu ziren bitartean, -45 mV inguruko ZP balioa lortzen iritsi zelarik.

Bestalde, metilazio erreakzioak ez zuen ez MKL ez MOL-n eragin nabarmenik eragin, KL eta OL laginen balio oso antzekoak lortu zirelarik. Hala ere, metilazio erreakzioa lignina frakzioekin burutu zenean (SKL, SOL, BKL, eta BOL), joera desberdina identifikatu zen. Alde batetik, frakzio txikiek,  $M_w$  balio txikia izateagatik ezaugarrituak, ZP balio txikiak lortu zitzuten, egonkortasun okerragoa erakutsiz, frakzio handiagoekin alderatuz.

Desberdintasun hau bereziki nabaria izan zen Kraft ligninaren frakzioekin. ZP balio altuagoak lortu ziren MSKL eta MSOL laginekin, eraldatu gabeko frakzioekin alderatu ezkero, MSKL-ren kasuan egonkortasun altuko partikulak lortu zirelarik. Hala ere, joera hau ez zen BKL eta BOL-ren kasuan mantendu, eraldaketa ondoren ZP balio baxuagoak lortuz.



**5.24. Irudia.** Eraldatutako eta eraldatu gabeko lignina partikulen Z potentzial eta eroankortasun balioak.




**5.25. Irudia.** Laginen Z potentzialaren banaketa-kurbak.


Behaketa hauetatik, lignina mota desberdinek egonkortasun maximoa eraldaketa prozesu desberdinatik lortu zutela ondoriozta daiteke. KL-ren kasuan, metilazio erreakzioak ZP balio baxueneko eta eroankortasun altueneko molekulak sortu zituen, oraindik aldaketa nabarmenagoak lortuz eraldaketa hauen aitzindaria KL frakzio txikia zenean. Bestalde, OL-ren kasuan, sulfometilazio erreakzioa izan zen partikula egonkorrenak ekoiztu zituen eraldaketa mota.

Batezbesteko Z balioen inguruan, joera desberdinak antzeman ziren lignina motaren arabera, 5.24 eta 5.25 irudietan ikusi bezala. CMKL laginak lagin guztien artean partikula tamaina handiena erakutsi zuen, KL partikula originalen balio hirukoitza lortuz. Tamaina hau SMKL laginarekin pixka bat txikiagotu zen eta MKL-rekin pixka bat handiagotu. ZP balioen aldakortasuna aztertzean, ZP eta partikula tamainaren arteko erlazioa alderantziz proportzionala zela ikusi zen, partikula tamaina handiagoak zirelarik ZP balioak baxuagoak zirenean. ZP balio baxuak partikulen agregazioa bultzatzen du, ingurunean dispersio egonkor bat mantentzeko gainazalean beharrezko diren ioi kopurua ez dagoenean gertatzen delarik.

Fenomeno honek ez du zertain  $M_w$  balioekin zerikusirik izan. Adibidez, OL-k 600 g/mol-eko  $M_w$  zuen, CMOL-k, bere analogo karboximetilatuak, 10700 g/mol-eko  $M_w$  zuen bitartean, prozesuan gertatutako autopolimerizazio albo erreakzioen ondorioz. Hala ere, CM talde funtzionalen gehiketak CMOL laginean ZP balio altuagoak lortu zituen, ur dispersio egonkorragoak eta aglomeratzeko joera baxuagoko partikulak lortuz. Eraldaketa honen ondorioz, lau aldiz partikula txikiagoak lortu ziren (12000 nm OL-rentzako, CMOL-rentzako 300 nm lortu ziren bitartean). Joera hau beste lagin batzuetara estrapolatu daiteke, non batez besteko Z balio antzekoak lortu ziren ZP balio baxuko partikulentzat.



**5.26. Irudia.** Eraldatutako eta eraldatu gabeko laginen batez besteko Z eta sakabanaketa balioak.



**5.27. Irudia.** Lagin guztien intentsitate bidezko tamaina banaketa.

Ligninen eta hauen eraldatutako analogoen analisi termograbiometrikoak burutu ziren.  $T_{5\%}$ ,  $T_{50\%}$ , eta degradazio etapa desberdinak identifikatu ziren eta errauts (%) hondakin balioak 5.16 taulan zerrendatu ziren, eta TGA eta DTG kurbak 5.28 eta 5.29 irudietan irudikatu ziren.

**5.16. Taula.** Eraldatutako eta eraldatu gabeko lignina laginen  $T_{5\%}$ ,  $T_{50\%}$ , identifikatutako degradazio etapa desberdinen tenperaturak, eta ikatz (%) hondakina.


	$T_{5\%}$ (°C)	$T_{50\%}$ (°C)	Degradazio etapak (°C)	Ikatz (%)
<b>KL</b>	166	424	56/150/252/ <b>385</b>	33.89
<b>CMKL</b>	113	643	74/109/ <b>307</b>	47.69
<b>SMKL</b>	116	698	85/108/ <b>307</b> /380/726	45.32
<b>MKL</b>	120	553	62/ <b>162</b> / <b>407</b> /530	44.32
<b>OL</b>	103	397	<b>385</b>	23.92
<b>CMOL</b>	101	629	82/ <b>307</b> /357/461/530/	47.54
<b>SMOL</b>	96	599	84/ <b>282</b> /356/530/661	46.01
<b>MOL</b>	215	673	61/189/ <b>380</b> / <b>411</b> /531/580	48.45
<b>SKL</b>	212	448	<b>370</b>	36.49
<b>MSKL</b>	141	482	76/153/ <b>390</b> /536	41.64
<b>SOL</b>	225	420	<b>362</b>	30.68
<b>MSOL</b>	199	518	59/187/ <b>385</b> /535	43.52
<b>BKL</b>	210	502	<b>384</b>	39.30
<b>MBKL</b>	169	751	43/169/ <b>373</b> / <b>411</b> /533	49.69
<b>BOL</b>	190	480	<b>393</b>	36.96
<b>MBOL</b>	143	470	66/170/ <b>344</b> /400/533	41.57

\*Letra gorri eta lodiz degradazio nagusia gertatzen deneko tenperatura.


Eraldaketak molekula termoegonkorragoak lortzeko eraginkorrak izan ziren, masa eduki dezente altuagoa lortuz (ikatz hondakina) 800 °C-ko tenperatura altuen eraginpean izan ondoren, atmosfera inertean. CM eta SM

erreakzioen kasuan, lignina eraldatuek degradazio etapen temperaturak baxuagoak ziren, nagusien 307 °C-tan gertatzen delarik bi kasuetan, KL-ren 385 °C-en aldean. Horrez gain, T<sub>50%</sub> tenperatura askoz altuagoak lortu ziren, 200 °C baino gehiago igoz.

Metilazio erreakzioen kasuan, ligninen egonkortasun termikoan hobekuntzak ikusi ziren baita ere, nahiz eta desberdintasun hauek horren nabariak ez izan, seguruenik M<sub>w</sub> txikiagoko partikulen eraketaren ondorioz. Beste eraldaketa motetatik bereizten den ezaugarri bat degradazio etapetan ikus daiteke, lagin metilatuetan soilik bi etapa bereiz zitezkeelarik. Metilazio erreakzioak bi erreakzio bide jarrai ditzakeenez, bi molekula desberdinaren eraketan amaituz, 5.4 irudian ikusi bezala, bi tenperatura desberdin daude lignina eraldatuaren degradazioa burutzeko



**5.28. Irudia.** Eraldatutako eta eraldatu gabeko lignina laginen TGA kurbak.



**5.29. Irudia.** Eraldatutako eta eraldatu gabeko lignina laginen DTG kurbak.

## 5.5. ONDORIOAK

Baldintza arinetan burututako ligninaren oxidazio erreakzio sonokimikoak ikertu ziren, non tenperatura eta denborak igo ziren, eta  $H_2O_2$  katalizatzaile modura gehitu zen lignina partikuletan talde funtzionalen edukia handiagotzen zen aztertzeko, eta balio erantsiko prozesuetan erabiltzeko. Lortutako lagin guztiak sonokimikoki eraldatu ziren. Ultrasoinu irradiazioa lignina nanopartikulak eratzeko eraginkorra zela ikusi zen, baldintzak ahulak izan arren, erreakzio baldintzen eragina areagotuz.

$^{31}P$  NMR teknika bitartez aztertu zen talde hidroxilo fenolikoen edukia tenperatura baxuetan igo zela gehien ( $30\text{ }^{\circ}\text{C}$ ), agente oxidatzailerik gehitu gabe, eta denbora luzez erreakzionatuz (60 min), OxL3 laginean erabilitako baldintzei dagokielarik. FTIR espektroek eduki

karboxilikoaren hazkundea baiezta zuten, metodo berri honen bitartez oxidazio erreakzioa baieztatuz. Erreakzio denbora luzeek tenperatura baxuetan burututako oxidazio erreakzioak mesedetu zituzten bitartean, tenperatura ertainek emaitza hobeak erakutsi zituzten denbora ertainekin. Bestalde, tenperatura altuek oxidazio maila altuagoak lortu zituzten denbora guztietan. Morfologiari dagokionez, OxL3 laginak Z potentzial eta eroankortasun balio handienak erakutsi zituen, tamaina eta sakabanatze txikienarekin batera.

